

284. Zenb.  
2013-4  
Urria - Abendua

# Karmel





# KARMEL 2013-4

Urria - Abendua  
284. zenbakia

## NON ZER

### Kultura

- Euskal Liburuaren I. Erakusketa, Bilbon (1935),  
*ñaki Sarriugarte Irigoien*.....3
- Urrats berriak lexikologia alorrean, *Patxi Uribarren*.....20

### Gizartea

- Euskal kultura industriaren enpresak: gaziak eta gozoak,  
*Patxi Juaristi*.....30

### Eliza

- Pedro San Eliasena Dohatsua (Pedro Eriz Egiluz 1867-1936),  
*Luis Baraiazarra* .....48
- Frantzisko Aita Santuaren alkarrizketa, *A. Olea*.....71

### Iritziak

- Sinestea arrazoizkoagoa da, *Roman Garmendia* .....80

### Literatura

#### **Kontu-Kontari**

- Ziklopearena, *Lourdes Unzueta*.....84
- René Cassin pastorala, *Joseba Aurkenerena Barandiaran* .....87

#### **Olerkiak**

- Itaka Suite eta habanera bat, *Itxaro Borda*.....98
- Irudi bete erribera, Ondarroa eta Bilbo artean,  
*Francisco Javier Arrieta Idiakez* .....105

#### **Bertsoen txokoa**

- I. Hamabi Herri... *Anttonmari Aldekoa-Otalora* .....120

# KARMEL

Hiruhilabeteroko aldizkaria

**Zuzendaria:** Julen Urkiza (Markina)

**Idazle kontseilua:** Luis Baraiazarra, Ana Urkiza,  
Patxi Uribarren, Andoni Olea, Luis Arostegi

**Helbidea:** Karmeldarrak – Markina  
48270 Markina – Bizkaia (Tel. 94-616 6019)  
karmelaldiz@telefonica.net

**Harpidetza:** Urteko harpidetza: 14 €. (Amerika: 35 dolar)

*Jarri, mesedez,  
argi eta garbi zeure helbidea,  
guk ipinitakoa ondo ez balego.*

Aldizkariaren azala: Juan Mari Arrizabalaga

*Diruz lagundutako aldizkaria:*



Jabe: Euskal Herriko Karmeldarrak  
Karmengo kalea, 5. Markina.

ISSN: 1132-2357

Legezko gordailua: BI. 459/68  
Inprimaketa: Itxaropena S.A. Zarautz

**EUSKAL LIBURUAREN I. ERAKUSKETA,  
BILBON (1935)  
(Gerrak zapuztutako ekimen itxaropentsua)**

### Literatur orbelak

Udazkenak, orbeltzaren lehenengo zantzuekin batera, literatur usaineko orbel bi opesten dizkigu urtero: alde batetik, Literatur Nobel saridunaren izena; eta, bestetik, Durangoko Liburu Azokaren kartelaren iragarpena. Aurton, Alicia Munro kanadar idazlea gailendu da nazioarteko literaturan, eta Literatur Nobel saria lortzen duen 13. emakumea bihurtu da. Durangoko Azokari dagokionez, 48. edizioaren kartel iragarlea Itziar Okariz donostiar artistak eskaini digu, originala oso.



*Alicia Munro  
idazle kanadarra*



*Itziar Okariz, berak diseinaturiko kartelarekin*

Durangoko Azokaren aipamenak baina, gerra aurreko Pizkunde kulturalaren baitan, 1935. urteko uztail-abuztuetan, Bilbon antolatutako Liburu Erakusketa berezira garamatza, beste ekimen askoren antzera, gerrak desagerrarazi egin zuena.

### Abian da “Euskal Liburuaren I. Erakusketa” Bilbon

Gerra pizteko urtebete eskas geratzen zela, 1935eko uztailaren 26an, *Euzkadi* egunkariak mezu itxaropentsu bat zabaldu zuen lau haizeetara, lehenengo orrialdearen lekurik deigarrienean, atera ere. Honako hauxe irakur zitekeen sinadura bako idazkitxoan:

El nacionalismo vasco no descansa en actividad. Pasada una época de ajeteo político, en estos últimos tiempos de relativa calma los patriotas vascos se han lanzado de lleno a la acción cultural. Como consecuencia de este movimiento renacentista, la producción literaria vasca se ha intensificado enormemente en nuestros días.<sup>1</sup>

Ekimena EAJko “Sabin-Etxia” batzokiak hartu zuen bere gain, eta hasierako asmoa urtero-urtero antolatzea izan zen. Egitasmoak ardatz nagusi bi zeuzkan: bateko, urtean urteko liburu berriak erakustea; eta, besteko, Etxeparerengandik hasita, euskal literaturaren aro eta obra nagusiak publiko zabalari erakustea. Hirugarren asmo bat ere bazegoen, hots, euskal editoreak omentzea: “Al mismo tiempo se quiere rendir un homenaje a nuestros beneméritos editores patriotas<sup>2</sup>, que no regateando sacrificio alguno constituyen hoy en día un firme puntal de nuestro renacimiento”<sup>3</sup>. Aurrerago, erakusketa uztailaren 30ean zabalduko zela adierazten zen, hau da, Inazio Deunaren jaiaren bezperan.

<sup>1</sup> “I Exposición del Libro Vasco”, *Euzkadi*, 1935-07-26, 1. or.

<sup>2</sup> Lau alditan aipatzen da *patriota* hitza idazki laburrean.

<sup>3</sup> “I Exposición del Libro Vasco”, *Euzkadi*, 1935-07-26, 1. or.

Hurrengo zenbakian, uztailearen 27an, berriro daragoio *Euzkadik* bezperako proposamenari. Badirudi, ekimenak oso harrera ona izan zuela; izan ere, ordurako, literatur obrak era esanguratsuan ugaltu ziren euskal Parnaso txikian, eta lan horiek erakusteko premia sentitzen zen giro euskaltzaleetan. Esandako zenbakian, literatur ekoizpen itxaropentsu horren ale batzuk aipatzen dira: *La Nación Vasca*, *La Casa Solar Vasca*, *Por la Libertad Vasca*, *Bide Barrijak*, *Arrats Beran*, *Eusko olerkiak*... Idazleen artean, Arantzadi, Lauaxeta, Orixe, Lizardi, Aitzol, J. Antonio Agirre... bereziki aipaturik agertzen dira artikuluan, Pizkunde horren adierazle gisa: “La Exposición del Libro Vasco de Sabin-Etxia será una demostración de que en estos últimos años los nacionalistas vascos no nos [sic] hemos pasado haciendo *números de zarzuela*”<sup>4</sup>.

Hilaren 28ko zenbakian, *Euzkadik* argitaletxe eta kultur erakundeei opetsiko die leku nagusia. Lehenengoen artean, honakook azpimarratzen dira artikuluan: Verdes Atxirika (Bilbo), Lopez Mendizabal (Tolosa), Zabalkundea eta Leizaola (Donostia), Elosu (Durango)... Erakunde kulturaleri gagozkielarik, beren-beregi aipatuko ditu Jaungoiko-Zale, Euskaltzaindia, Euskaltzaleak eta Eusko Ikaskuntza. Era berean, adierazten da Inazio Deunaren egunean Euskalduna pilotalekuan egin ohi zen ekitaldian, liburu aukeratu batzuk salgai egongo zirela, baita orduko aldizkari zenbait ere: *Argia*, *Ekin*, *Poxpolin*...

Euskal kulturaren duintasuna/bikaintasuna erakusteko go-goia ere, handia zen antolatzaileen artean, euskal kultura –bereziki, euskal literatura– gutxietsita ikusten zutelako Euskal Herriko giro eta alderdi askotan:

La velada en nuestros locales el día 30, por la noche, con la conferencia de *Lauaxeta* y su parte de música y bertzolaris, promete ser un acontecimiento. Nuestro pueblo ese día, como en los sucesivos en que se celebre la

<sup>4</sup> “Batzoki Sabin-Etxia. I Exposición del Libro Vasco”, *Euzkadi*, 1935-07-27, 1. or.

exposición, debe dar un mentis rotundo a las acusaciones gratuitas que en todo tiempo han lanzado contra él sus enemigos.<sup>5</sup>

### Erakusketaren zabalkundea

Inaugurazio egunean, lehenengo orrialdeko idazkiaz aparte, sinadurarik gabeko artikulua bat agertuko du *Euzkadik* (“Bost-Begi. Euzkel-idaztiak”), oraingoan euskara hutsean. Artikuluan, *El Pueblo Vasco* egunkarian eta giro monarkikoetan erakusketaren eta, orokorrean, euskal literaturaren inguruan nagusi ziren aurreiritziei erantzun gura izan zieten *Euzkadiko* euskaltzaleek:

Erregetarren esamesak eztauskue bururik mintzen, orre-gaitik eztautsegu jaramonik egiten, baña oraingoan eurai gagokioez. *No sabíamos que la literatura vasca tuviese*. Klasikorik eztaukogula dinosku. *Sería curioso conocer una antología de esos clásicos que se nos descubren ahora*. Itz oneik eta beste bost idatzi egin dauz idatzi Bilbo ʼko izparringi orrek [*El Pueblo Vasco*]. ¡Eta ikeratuta gazoz!<sup>6</sup>

*Euzkaditik* seriotasun gehixeago eskatzen diote *Ledesmatxaidean* argitaratzen zen egunkariari, eta euren buruari galdetzen diote ez ote diren klasiko, *Axular*, Mendiburu, Etxeberri, Etxepare, Mogel, Añibarro, Fr. Bartolome, Iztueta, Elizanburu, Barbier... Bide beretik, *Euzkadik* orduko klasikotzat jotzen ditu Eguzkitza eta Iraizoz idazle garaikideak:

Baña beste gauza bati gagokioazan: Erregetarrai etxake atsegin izan euzkel-idaztiaren ikusketa. ¿Zegaitik? Eurek eztaikielako egin olakorik. ¡Ezta urrik emon be! Batzokietan ardaua baño ezto-gula edaten-edo uste dabe. Orrek poztuten dauz! Baña arda-edan ez-eze beste gauza asko ta eder egin daruaguz! Abertzaletasunari zor yakoz berein

<sup>5</sup> “En Sabin-Etxia. I Exposición del Libro Vasco”, *Euzkadi*, 1935-07-28, 1. or.

<sup>6</sup> “Bost-Begi. Euzkel-idaztiak”, *Euzkadi*, 1935-07-30, 12. or. Ikusi, era berean, “Beocios Modernos. Los monárquicos contra el libro” (*Euzkadi*, 1935-07-30, 1. or).



liburu, aldizkingi, edesti-idatzi eta abar. Eta orain ikusi al izango dira lan eder orreik. ¡Erregetarren bildurra! Basoan dantzan egitea laketuko leuskigue, baña besterik ez. [...] Poz-pozik gagoz! Erregetarrendik besterik eztaikegu itxadon. ¡Euzkel idatziai daukotsen gorrotoa! Nor bere zo-roak darabil...<sup>7</sup>

**El desguace del "Mauretania"**

**BOCIOS MODERNOS**  
**Los monárquicos, contra el libro**

**Hoy, en Sabin-Etxia**

**Inauguración de la I Exposición del Libro Vasco**

**Victimas de un choque**

Euzkadi, 1935-08-30, 1.or.

Inaugurazio ekitaldia jendetsu ere jendetsua izan zen, eta agintari zein politikari ugari bertaratu ziren Sabin Etxera: Luis Arana Goiri, Jose Horn y Areiltza, Heliodoro de la Torre, Manuel Robles Arangiz, Jose Antonio Agirre... Ekitaldia EAJko BBBko kultur arduradunak, Agirregoitia jaunak, zabaldu zuen<sup>8</sup>.

<sup>7</sup> *Ibidem*, 12. or.

<sup>8</sup> “[...] el más digno y noble certamen que un pueblo puede exponer es el del libro, porque en el libro –añadió–, o mejor dicho en los libros se recogen con cuidado, para transmitirlo a la posteridad, todo lo que los hombres piensan, y todo lo que saben en orden a la religión, historia, literatura y

Jarraian, Estepan Urkiaga *Lauaxetak* “Bibliografía Vasca” ize-  
neko hitzaldia eskaini zuen, eta amaieran Jose Horn Areiltza  
diputatuak hitz egin zuen. Hurrengo egunean, uztailaren 31n,  
*Euzkadik* portadan eta 3. orrialdean, horri buruzko informazio  
zabala eskaini zuen, eta bertan ikus dezakegu erakusketaren  
argazki bakanetariko bat:



*Euzkadi*, 1935-07-31, 3. or.

Azokaren lehenengo egunak arrakastatsu ere arrakastatsuak  
izan ziren: “Está siendo visitadísima la I Exposición del Libro  
Vasco”<sup>9</sup>. Aurrerago, puntu biri heltzen die *Euzkadi* egunkariak  
bere lehenengo orrialdean; izan ere, ikusleak ez ezik,  
erakutsitako liburu eta dokumentuak ere gehituz zihoazen:

Ciñéndonos por ahora a lo se ha hecho, hemos de re-  
petir que el éxito actual rebasa todos los cálculos, tanto

poesía; en una palabra, en el libro vibra el pensamiento vivificador de todo  
un pueblo en marcha hacia la ruta de su emancipación y bienestar” (*Euzka-  
di*, 1935-07-31, 1. or.).

<sup>9</sup> “En Sabin-Etxia. Gran éxito de la I Exposición del Libro Vasco”, *Euzkadi*,  
1935-08-01, 1. or.

en la asistencia de público como en la exhibición de obras, pues se reciben constantemente nuevas joyas bibliográficas cedidas por los particulares, deseosos de prestar su concurso a esta magna obra de amplia cultura, que tan alto pone el prestigio del nacionalismo vasco.<sup>10</sup>

Egun berean, “Euskal Orria”-n, Urribitarte´tar Ibonek, euskaldun askoren euskararenganako nagikeria salatu eta gero, animatu egiten ditu euskaltzale guzti-guztiak erakusketara joan daitezen. Izan ere, Urribitartek dioenez, bertara azaltzen denak *irakurgai ederdu idazti txukunak, baita olerkidun idatzi begikuak* aurkituko ditu. Gero, erakusketako idazleen zerrenda sailkatu moduko bat damosku:

“Altuna, Larrakoetxea, Manterola, Zamarripa ta abarren ipuin-idazti begikuak, antxe ikusi leikez.

Zabala-Arana, Arriandiaga, Azkue, Olabide, Eguzkitza, Manterola, Belaustegi, Markiegi, Ormaetxea, *Barrentsoro*, Arrutza, Agirre´tar Domeka, ta abar ta abarren era guztijetako irakurgaidun idazti aldintsubak be, antxe ikusi leikez.

*Lauaxeta, Orixe, Lizardi, Jautarkol*, Arrese-Beitia, Arrese´tar Emeteri, *Satarka, Aizkibel*, eta beste olerkari jayo askoren olerki-idazti txukunenak be, antxe ikusi leikez.

Antxinako aldijetan idatzi ixan ziran idazti aldintsubak be, antxe dagoz. Antxe, *Axular*, Etxepare, Etxeberry, Lizarraga, Araneder, Elizanburu, Joanategi, Mogel, Mendiburu eta abar ta abar be, antxe...<sup>11</sup>

## Hitzaldiak azokan

Esan beharra dago Liburu Erakusketa nahikotxo luzatu zela denboran, uztailaren 30etik (asteartea) abuztuaren 11ra arte (igandea) iraun zuen eta. Azken igandean, gainera, gaueko

<sup>10</sup> *Ibidem*, 1.or.

<sup>11</sup> Urribitarte, Ibon: “Zaindaria´ren jaya” (Gayak), *Euzkadi*, 1935-08-01, 10. or. Mantxetan “Iralla 1 Eguena” agertzen den arren, argi dago inprenta-hutsa dena.

24:00ak egon zen zabalik, ahalik eta jenderik gehien joan ahal izan zedin. Hamahiru egunotan hainbat hitzaldi antolatu ziren, eta bertan orduko kultur eragile esanguratsuenetariko batzuek hartu izan zuten parte. Osagarri eta aringarri modura, musika kontzertu batzuk ere antolatu ziren<sup>12</sup>.

Arestian esan dugun moduan, lehenengo hitzaldia Estepan Urkiaga *Lauaxeta* gazteak eman zuen zabaltze-egunean bertan: “Bibliografía Vasca”. Lauaxetak parte aktiboa hartu zuen erakusketaren antolakuntzan, eta arin-arinka ibiltzeagatik egingdako akatsak onartu egin zituen. Edozelan ere, berak esan zuenez, lehenengo erakusketa horren helburu nagusia hurrengoetarako zimenduak jartzea zen, baita orduko euskaltzaleengan liburuarekiko interesa piztea ere. Era berean, Lauaxetak komentatu zuen antolatzaileen asmoa erakusketa iraunkor bat finkatzea zela, eta liburuaren alde egin zitekeen gauzarik garrantzitsuena zera zela: liburuak erostea eta irakurtzea.



*Euzkadi*, 1935-07-30

<sup>12</sup> “En Sabin-Etxia. Visite la I Exposición del Libro Vasco. Hoy, a la hora del café, concierto por destacados cantantes y Banda de txistularis” (*Euzkadi*, 1935-07-31, 1. or.).

Gero, euskal literaturaren ibilbide historikoa (XVI. gizaldian, Etxeparerekin hasi eta Azkuerenganaino) egin ostean, honako itaun hauxe egin zion bere buruari Laukizko olerkari-kazetari gazteak:

Hemos llegado a un momento en que cada uno de nosotros se pregunta: ¿Qué cultura tienen hoy el País Vasco? ¿Qué puede hacerse para elevar el nivel cultural de nuestro pueblo? ¿Los vascos nacionalistas tienen que dedicar más atención a la literatura euzkérica que a divulgar nuestras peculiaridades en lengua castellana?<sup>13</sup>

Erantzun modura, Lauaxetak argi utzi zuen euskal liburuak zeukan babes-beharra, eta beren-beregi zuzendu zen bere lagun jeltzaleei, liburu eta aldizkari gehiago erosteko adoretuz:

Todos los Batzokis y centros nacionalistas deben estar suscritos a las revistas y periódicos que se publican en Euzkadi; en todos ellos deben comprarse los libros vascos, porque en ello reside únicamente la ayuda al escritor. El autor que vende un libro publica otro; si no, no.<sup>14</sup>

Bestelako proposamenak ere egin zituen poeta gazteak: liburu erakusketa lokalak antolatzea, tokian tokiko baliabideak (liburutegi publikoak, pribatuak...) erabilita; liburu erakusketa ibiltariak prestatzea... Bat-batekoa izateko, mamitsu ere mamitsua izan ei zen Urkiagaren hitzaldia zabalkunde egunean.

Bigarren hitzaldia Isaac Lopez Mendizabalena izan zen: "Historia del libro y de las imprentas en nuestro pueblo". Abuztuaren 3an izan zen eta, kasuon ere, aurkezlea BBBko Kultur Kontseiluko lehendakaria, Agirregoitia jauna, izan zen. Hurrengo

<sup>13</sup> "En Sabin-Etxia. I Exposición del Libro Vasco. La conferencia de don Esteban de Urkiaga con motivo de la inauguración oficial", *Euzkadi*, 1935-08-02, 1/3. or.

<sup>14</sup> *Ibidem*, 3. or.

egunean, *Euzkadik*, labur zurrean<sup>15</sup>, “Una interesante conferencia de don Isaac López Mendizabal” titulupean zera zioen: “Un estudio detallado de las publicaciones vascas, la historia de la imprenta en Euzkadi, los trabajos literarios. Todo ello sirvió para demostrar la cultura profunda del señor López Mendizabal”<sup>16</sup>.

“Gayak” bere talaiatik, Uribitarte´tar Ibonek ere iruzkindu zuen Lopez Mendizabalen hitzaldia. Edozelan ere, *Poxpolin* ume-aldizkariaren egoera larria hizpide hartuta, euskal liburua-aren inguruan sumatzen zen irakurle-falta nabarmena salatu zuen, egun batzuk lehenago Lauaxetak esandakoari jarraituz:

*Poxpolin* ilten ba-da, irakurlerik eztaukagulako ixango da, ta ez T.B.O. baño maxagua dalako. Euzkel-idaztjajak ugarituko ba-dira, euzkel-irakurliak biar dira. Euzkel-izpa-ringiak geituko ba-dira, euzkel-irakurliak biar dira. Eta euzkel-irakurlerik ezpa-dago, euzko-abertzaletasuna zustraitu barik dagolako da. Euzkereari baño gaztelarren izkuntzeari arrera obia egiten jakalako... Euzkerearen zabalgundea egiten diñardubenai, txaluen orde, makillada garratzak emoten dakijezan askotxu dagozalako...<sup>17</sup>

Hirugarren hitzaldia abuztuaren zazpian izan zen, eta Jose Antonio Labayen jaunak eman zuen. Euskal antzerkiaz jardun zuen tolosarrak Sabin Etxea batzokian. Hona hemen, hitzaldiaren izenburua: “El teatro vasco, su historia, su desarrollo”. Hurrengo egunean, Telesforo de Arantzadi antropologoaren txanda izan zen, eta haren hitzaldiaren izenburua honakoa izan zen: “Historia Natural del País Vasco”.


<sup>15</sup> “Por eso rogamos encarecidamente a nuestros lectores nos perdonen que por lo avanzado de la hora y falta de espacio la aplacemos [hitzaldiaren erresena] hasta el próximo número” (*Euzkadi*, 1935-08-04, 1. or.).

<sup>16</sup> *Ibidem*, 1. or.

<sup>17</sup> Uribitarte, Ibon: “Euzkel-idaztjajak” (Gayak), *Euzkadi*, 1935-08-03, 10. or. Mantxetan “Iralla 3 Larunbata” agertzen den arren, argi dago inprenta-hutsa dena.



*Euzkadi, 1935-08-03*



*Euzkadi, 1935-08-07*




*Euzkadi, 1935-08-08*

Klausurako hitzaldirako Jose Antonio de Agirre eta Jesus Maria de Leizaola iragarrita bazeuden ere, azkenean Leizaolak ez zuen joaterik izan eta azken hitzaldia Jose Antonio Agirrek eman zuen, Agirregoitia jaunak aurkeztuta. Agirrerren berbal-dia, espero zitekeenez, kutsu kulturekoa izan zen:

“La conferencia del diputado bizkaino contituyó un éxito más en su dilatada carrera. [...] Con palabra serena, tal vez como nunca, el señor Agirre hizo un elogio cumplido, interesante, de nuestra cultura patria. Nos complacemos en subrayarlo, porque él ha cerrado la Exposición con broche de oro”<sup>18</sup>.

Handik hiru egunera, Ibon Uribitar-tek Agirrerren hitzaldiaren iruzkina egin zuen “Gayak” bere atalean, eta



*Euzkadi, 1935-08-10*

<sup>18</sup> “La I Exposición del Libro Vasco”, *Euzkadi*, 1935-08-11, 3. or.

hiru ardatz nagusi idoro zituen handik lasterrera lehendakari bihurtu zen hizlariaren berbaldian<sup>19</sup>.

Agirrek, hasieran, hizkuntzaren garrantzia azpimarratu zuen. Urribartek dioskunez, *geure ele maitia* behin baino gehiagotan aitatu eban; eta, konparaketa bat erabilita, honakoa gehitu zuen, politikari bilbotarrak esandakoa laburbildurik: “Aberrija´rentzat abendelia, gixonarentzat arimea baxen bearrakua da ixan be”.

Euskaraz idaztearen garrantzia izan zen Agirrereren hitzaldia-  
ren bigarren ardatza. Idazkiak, datozen lekutik datozela, berez dirateke onuragarriak euskal kulturarako. Izan ere, abertzaleek ez eze, gainontzeko euskaldunek ere euren betebeharra lukete euskal kultura propioaren eraikuntzan, euskaldun guztiguztiok jarri behar genukeelako geure hondar-alea euskal kulturaren garapenean<sup>20</sup>. Agirrereren berbak bere eginez, honakoa diosku Urribartek: “Era orretara guztijok oldoztuko ba´gendu, idazten dan baño geyago idatziko litzake, baita irakurten dogun baño geyago irakurri be”<sup>21</sup>.

Berbaldiaren hirugarren ardatza ikastolak izan ziren, eta hemen Agirrek ikastola-sare sendo baten premia aldarrikatu zuen, *euzkotarron ardurarik aundijena, ta garrantzitsubena be, ikastola-arauzkua* sortzea zela azpimarratuz. Eta Agirrek, askoren pentsamenduaren kontra, argi utzi zuen hori egiteko ez zela itxaron behar aberriaren askatasuna lortu arte.

### **Erakusketaren amaiera: balantzearen ordua**

Azken balantzea ezin baikorragoa izan zen: “La Exposición del Libro Vasco y sus organizadores de Sabin-Etxia no podían

<sup>19</sup> Urribarte, Ibon: “Sabin Etxia´n”, *Euzkadi*, 1935-08-13, 12. or.

<sup>20</sup> Hona hemen Urribarteren iruzkintxoak: “Eta ori dala-ta, euzkerea idatzi ta zabalduten dabilzanai, areyorik aundijenak ba-lira be, arrera ona egin biar yakela esaten eban, geuk zoruntsu ikusi gura dogun aberrijaren gogua landu ta aberastuten dabilztan areyuak dirala-ta” (*Ibidem*, 12. or.).

<sup>21</sup> *Ibidem*, 12. or.



haber soñado mayor éxito”<sup>22</sup>. *Euzkadi* egunkariak biziki zoriondu zituen antolatzaileak eta Sabin Etxeko Zuzendaritza taldea; eta Bermeon batuta zeuden ikasle euskaldunek ere telegrama bat bidali zuten erakusketarekin bat eginez: “Reunidos delegados de la Federación de Estudiantes Vascos en Bermeo, felicitámosles éxito I Exposición Libro Vasco. El presidente”. “Euzko Ikaslien Batzarra” eta Liburu Erakusketa egun berean amaitu ziren.

Erakusketa ixten den egunean, Lauaxetak artikulu bat idatzi zuen *Euzkadin*<sup>23</sup>, eta bertan balorazio bat eskaini zien orduko euskaltzaleei: “Hemos llegado al final. Día tras día, en los salones de Sabin-Etxia se han expuesto los mejores libros que enaltecen y honran nuestra cultura”. Ahaleginduko gara Lauaxetak artikuluan jalgitako ideia nagusiak laburbiltzen:

- a) Herri batek ezin dio bizkarra eman bere kultura propioari.
- b) Euskal kultura modu zabal batean ulertu beharra dago, eta horretan ahalegindu gara.<sup>24</sup>
- c) Arrakastatsua izan da ekimena.
- d) Munarri garrantzitsua izan da Erakusketa euskal kulturarako.<sup>25</sup>
- e) Argialetxeek eta euskal erakunde kultural gehienek ondo erantzun dute.
- f) Eregi dezagun brontzea baino iraunkorragoa izango den proiektu bat.<sup>26</sup>

<sup>22</sup> *Euzkadi*, 1935-08-11, 3. or.

<sup>23</sup> *Lauaxeta*: “I Exposición del Libro Vasco”, *Euzkadi*, 1935-08-11, 1. or.

<sup>24</sup> “Sin dejarnos llevar de partidismos, porque han cabido en un mismo lugar las obras de Campión junto a las de Balparda. No regateamos talento a nuestros contradictores. Junto a los versos maravillosamente bellos de Lizardi ostentaban sus claridades romanas los de Basterra. A nuestro juicio, no riñen batallas las obras de Moret con las de Arana y Goiri”, *Ibidem*, 1. or.

<sup>25</sup> “La Exposición marca una pauta. En las páginas de esas obras puede la juventud sentir una inquietud, la llamada del pensamiento cultural vasco”, *Ibidem*, 1. or.

<sup>26</sup> Horazio erromatar poetaren olerki-lerro batekin amaitzen du Lauaxetak

Handik lasterrera, esker oneko idazki bat argitaratu zuten erakusketaren antolatzaileek. Idazki horretan, erakusketak izan zuen beste helburu garrantzitsu bat aipatzen da, salmentei zegokiena, hain zuzen ere: “Al mismo tiempo participamos a quienes hicieron pedidos de libros en los días en que estuvo abierta dicha Exposición, que dichos pedidos han sido cursados y que por tanto dentro de pocos días podremos darles la noticia de que han llegado a nuestro poder”<sup>27</sup>.

Liburu Erakusketa Nagusiak kinatuta-edo, hurrengo egunetan *Euzkadiko* orrialdeetan, ugariak ere ugariak izan ziren liburuei buruzko aipamen iruzkin eta artikuluak. Aipaturiko liburuetariko batzuk honakook izan ziren: “Idazki barriak”<sup>28</sup> (*Euskalerrriaren Yakintza*); “Gayak”<sup>29</sup> (*Pisia*); “Tantotxoa”<sup>30</sup> (*Poxpolin* ume aldizkaria); “Idazti barriak”<sup>31</sup> (*Elerti-ziar, Errenderi Abaren olerkiak, Zumalakarregi Poematxoa, Pisía, Euskalerrriaren Yakintza...*); “Gayak”<sup>32</sup> (*Olerkiak*); “Erri jakintzea”<sup>33</sup> (*Euskalerrriaren Yakintza, Atzegunak*); [Iritzia]<sup>34</sup> (*Euskalerrriaren Yakintza*)...

bere artikulua: “Nuestros escritores de ayer y hoy han repetido el famoso verso del poeta romano: Exegi monumentum aere perennius”. Hona hemen poemaren lehenengo lerroak: “Exegi monumentum aere perennius / regali- que situ pyramidum altius, / quod non imber edax, non Aquilo inpotens / possit diruere aut innumerabilis / annorum series et fuga temporum” (Horazio, Odak, III, 30). “Borontze baiño betikorrago / oroigailu bat det eraiki nik, / ta piramideen errege-zoru / bezin jaikia: ez euri-gorritz, / ez ipar mekoz eratz eziña, / ez urte-lerro zenbatu gaitzak, / ez aldi txarren iges-bearrak” (Aita Santi Onaindiaren itzulpena, Olerti, 1969, III-IV, 62-69).

<sup>27</sup> “Batzoki Sabin-Etxia. I Exposición del Libro Vasco”, *Euzkadi*, 1935-08-15, 1. or.

<sup>28</sup> Erredadakzioa: “Idazki barriak”, *Euzkadi*, 1935-08-09, 10. or.

<sup>29</sup> Urribitarte, Ibon: “Gayak”, *Euzkadi*, 1935-08-11, 12. or.

<sup>30</sup> *Uzturre*: “Poxpolin”, *Euzkadi*, 1935-08-11, 12. or.

<sup>31</sup> Erredadakzioa: “Idazti barriak”, *Euzkadi*, 1935-08-18, 12. or.

<sup>32</sup> Urribitarte, Ibon: “Gayak”, *Euzkadi*, 1935-08-18, 12. or.

<sup>33</sup> Garro, Bernardo: “Erri Jakintzea”, *Euzkadi*, 1935-08-25, 12. or.

<sup>34</sup> *Lauaxeta*: “Euskalerrriaren Yakintza”, *Euzkadi*, 1935-08-25, 1. or. Ikusten dugunez, R. M<sup>a</sup> Azkue handiaren *Euskalerrriaren Yakintza* obra gogoangarriari arreta berezia jarri zioten orduko idazle-kazetariak.

Amaiera gisa, hona hemen, Bittor Gaubeka inprenta gizon eta editore handi bermeotarrak Erakusketa Nagusiaren kariaz eginiko gomutakia<sup>35</sup>:

EUSKO-IDAZTIJA'REN  
Lenengo Erakusketea  
1935-gaŕen Garila-Dagonila

GOMUTAKIJA  
Lagunik onenatarikua idaztija dozu,  
nai dozunian dei-egiŕen gautsazu eta  
gura dozunian itxi.

Eguraldija atsegiŕez igazteko adizki-  
derik bikaŕena idazti on bat dozu.

Idazlari batek Gixabatzari emon leiki-  
jon ondasunik andijena idazti on  
bat a.

Idazti onak, safiŕan, gixakume adiz-  
diak baŕo obiaguak dira.

Zure adizkide onakaz batera idazti  
onak biltzen ba-ŕozur zorijontsuba  
ixango zara.—(Gaubeka'taf Bitor).

EUSKEL - IDAZTIJAI LAGUNDU  
Euzkerca'ren loŕatzik ezaugafijena eta  
euspenik senduena euzkel-idaztija da.

Euzkel-idaztija dagan tokijan Euz-  
kerca bixi da.

Euzkeldunok ludi osuan edatu daŕke-  
gun oyurik zolijena idazti-biŕatez  
dagikegu.

Euzkerca'rentzako osakirik bixijena  
eta obiena euzkel idaztijak diraz.

Idazti-idazliak mategafi ixan baf do-  
guz, euren ixenak aintzagafijak dira,  
batez be Euzkel-idazliak guretzako  
gustiz goralgafijak ixan biŕa dira.

Euzkel-idazlia goraidu eta maŕetuko  
dozu bere idazti bat erosijaz.  
(Gaubeka'taf B.).

*Euzkadi*, 1935-08-03, 10. or.

<sup>35</sup> Erredakzioa: "Euzko-Jakintza-Astia. Euzkel-Idazti-Erakusketea", *Euzkadi*, 1935-08-03, 10. or.

Brontzea baino iraunkorragoa izateko jaio zen ekimen garrantzitsu hori gerra zitalak moztu zuen, ankerki moztu ere. Hogeita hamar urte geroago, 1965eko Domu Santu egunean, Durangok Santa Mariako elizpean hartu zion testigua Sabin Etxeari, apal eta xume, baina bokazio berberarekin. Aurton, Durangoko Azokak bere 48. edizioa ospatuko du Landako bere egoitza ofizialean, Durangok euskal kulturari opetsitako eraikin zabal eta ederrean.



*Landako: Durangoko Azokaren egoitza nagusia gau egun*

Une egokia, beraz, Landakotik, samurtasunez, atzerantz begiratzeko, eta orain dela laurogei urtetsu Bilbon egin zen “I Exposición del Libro Vasco” erakusketa apaltxo bere ingurumarian –orduko baldintza gogorretan– baloratzeko. Esan gabe doa, holako ekimen xumeetan izan ohi dutela oinarri gerora sortutako proiektu mardul askok.

Euskal liburugintzak eta euskal literaturak azken urteotan izan duten gorakada nabarmena ukatu barik, komeni da azpimarratzea Sabin Etxeko erakusketaren inguruan plazaratu ziren erronketariko batzuek iraun dirautela gaur egun ere: euskararen lekua Euskal Herriko kulturari; aurreiritziak euskal kultura-

ren inguruan; argialetxeen nahi eta ezinak<sup>36</sup>; aldizkari-  
egoera badaezpadakoa; irakurle kopuru urria... Durangoko  
Azokak baina, urtero, baikortasunerako zantzuak erakusten  
dizkigu. Asko gelditzen da egiteko, baina egin dena ez da gu-  
txi; eta lorpen horien inguruan on dateke gerra aurreko aitzin-  
dariak gogoratzea.

*Domu Santu egunez<sup>37</sup>*  
*Iñaki Sarriugarte Irigoien*

---

<sup>36</sup> Puntu horri dagokionez, interesgarria da lerrook idazten gaudela, Jon Kortazarrek argitaraturiko artikulua: "Liburuaren munduan itzulika, *El Correo*, 2013-10-30, 49. or.

<sup>37</sup> Durangoko Azoka abiatu zeneko 48. urteurrenean.

## URRATS BERRIAK LEXIKOLOGIA ALORREAN

Euskaltzaindiak, *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Hiztegi Batuko* azken zerrenda argitaratu ondoren, duela urtebete definiziozko *HIZTEGIA* jendearen esku jartzea urrats garrantzitsua izan da euskarako hiztegitza alorrean lanean ari garenontzat. Hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren hiztegi horretan terminoen adierak zehaztu eta erabilerak egokiro taxutzen direlako. Aukera paregabea eskaini zaigu zalantzak argitzeko eta Euskaltzaindiaren proposamenen arabera gure hiztegiak berriztatzeko.

Euskaltzaindiak emandako lehen urrats horrek eta bide horretatik emateko asmotan dituen gainerako urratsek euskal terminoen eremu semantikoak eta erabilerak egokiro zehazteaz gainera, abagune berriak eskainiko dizkigute lexikologia alorrean lanean dihardugunoi.

"Bostak Bat" Taldeko kideok hiztegi guztietan ahalegindu izan gara Euskaltzaindiak argitaratzen zituen zerrendetako bi-deetatik ibiltzen. Hori dela eta, ipini izan ditugu letra etzanez Euskaltzaindiak euskara baturako onartutako terminoak.

Izan ere, erabat desberdina delako Euskaltzaindiak gure esku zerrenda hutsak jartzea edota egokiro tratatutako material zehatza definiziozko hiztegian kontsultatu ahal izatea. Euskaltzaindiaren definiziozko hiztegiak ikuspegi berria ireki digu, alor horretan lanean ari garenoi. Urrats horrek lehen itzuliko hitz guztiak -hitzik erabilienak- definiturik eskaintzeaz gainera, zerrenda hutsean agertzen ez ziren adibideak, ñabardurak eta zehaztapenak gure esku jartzea ere ekarri zuen.

Era berean, gertakari horrek BOSTAK BAT taldeko kideoi gure definiziozko hiztegiak egokitu beharra sortu digu. Orain dela bi urte *Euskal Hiztegia* (Adorez 13) argitaratu genuenean, izugarrizko ahalegina egin genuen definizio, adibide, sinonimo, antonimo eta gainerako atal guztiak Euskaltzaindiak gure esku jarritako moldeetara egokitzen. Orain beste urrats bat burutu beharrean izan gara.

Jakina da, Euskaltzaindiak bigarren itzulia amaitu zuenean, itzel ugaritu zela euskara batuko hitzen eremua. Hain zuzen ere, 27.000 termino inguru izatetik 40.000 termino inguru izateraino. Horrela, ate berriak irekitzen zitzaizkigun hiztegi gintzan ari ginenoi, egindako lana berraztertu eta egokiro eguneratzeko.

Aurrerapauso horrek bultzatuta ekin genion aspalditik berriro eguneratzeko asmotan genituen bi hiztegi aztertu eta eguneratzeari. Hari-harira zetorkigun, gainera, aurtan (2013) betetzen baita hiztegi gintzan hasi gineneko 30. urtemuga. Gure ibilbide luze horren isla izango zen zerbait eskaini nahi genion euskaldun herritarrei. Horregatik argitaratu gura izan ditugu eguneratuta *Sinonimoen Hiztegia. Antonimoduna* (Adorez 14) eta *Es-kola Hiztegia. Irudiduna* (Adorez 15).

Garaian garaikoa baita, hiztegiok teknologia berriek ematen dizkiguten erraztasunak eta euskal lexikologian gertatutako urratsek eskainitako argitasunak elkar lotuz burutzea.

- Euskaltzaindiaren baturako arauak betez.
- Batuaren eta euskalkien artean zubiak eraikiz.
- Idaztean sortzen diren zenbait zalantza argituz.

KARMEL aldizkari honek eskaintzen didan abaguneaz baliaturik, labetik atera berri ditugun bi hiztegi horien berri zehatzak eskaini nahi dizkizuet.

## 1. Hiztegien ezaugarri orokorrak:

Aurreko lerroetan aipatu dudana bezala, hemen aurkezten ditugun hiztegi bi hauek Euskaltzaindiak urratutako bide be-

riak kontuan izanik eguneratuak izan dira. Hori dela eta, aurrera jo aurretik, orokorrean dituzten ezaugarri nagusiak jarri nahi dizkizuet ispilu batean bezala aurrez aurre:

- 1.1 Euskaltzaindiak euskara baturako emandako arau guztiak zehatz beteta burutu izan dira.
- 1.2 Euskaltzaindiak baturako onartutako terminoak letra etzanez eskaintzen dira erabiltzaileak berehala ezagutuz.
- 1.3 Euskaltzaindiak euskalki marka erantsiz eskaintako termino eta esamolde guztiei egin zaie berariaz lekua.
- 1.4 Euskaltzaindiak ortografia alorrean emandako arauak eta proposatutako bideei jarraitu gaitzaizkie oso-osoan.
- 1.5 Aparteko ahalegina egin da hiztegi biak era didaktikoan eta erabilgarrian argitaratzeko.
- 1.6 Hiztegi terminoen tratamendu zehatza, ezaugarri guztiak laburbilduz prestatu, eta zuei eskaintzen dizkizuegun Ezaugarri Nagusien koadroan jaso da.

## **2. Hiztegi bakoitzaren aurkezpena:**

Aipatutako hiztegiok, batetik, *Sinonimoen Hiztegia. Antonimoduna* eta, bestetik, *Eskola Hiztegia. Irudiduna. Oinarrizkoa*, orokorki aurkeztu, eta dituzten berrikuntzen nahiz ezaugarrien berri eman ondoren, ezinbestekoa dugu hiztegi bakoitzaren aurkezpen zehatzagoa egitea, bakoitzak bere-bereak dituen ezaugarri eta zertzeladak aurrez aurre jarri. Horretarako, hiztegi horien aurkezpen orrietan adierazia dakart hona, hango zehaztasun nagusiak bertora aldatuz.

### **2.1 Sinonimoen Hiztegia. Antonimoduna**

BOSTAK BAT taldearen lan-ibilbidean aparteko lekua izan dute sinonimoen hiztegiak. Egin-eginean ere, gure lan oparoaren abiapuntua *Sinonimoen hiztegia* izan zen orain dela 30 ur-



te (1983). Ordutik hona era desberdineko hiru hiztegi argitaratu ditugu alor honetan.

Orain erabiltzaileen esku jartzen dugun hiztegi hau, esan den bezala, Euskaltzaindiak azken urteotan hartutako erabaki guztiak aplikatuz eta bildutako aberastasunak jasoz taxutua izanda. Honela gogoratu nahi izan dugu orain dela 30 urte argitaratu genuen lehen hiztegi hura. Azalean orduko itxura –berriztatua, noski- gorde nahi izan dugu begi handi ireki biak atxikiz.

Hiztegi hau (Adorez-14, 2013) prestatzeko sinonimoen gure bigarren argitalpena (Adorez-3, 1988) hartu dugu oinarritzat, hots, 18.000 sarrera zituena. Ahozko testuetatik nahiz idatzietatik –batez ere Euskaltzaindiak gure esku jarritako iturri oparotatik- gehiketak jasoz, 30.000 sarrera inguruko liburukia atondu dugu, formatu erabilgarriagoan eskainiz.

Sinonimo-antonimoen baso nahasi zabalean, azterketa teorikoak baztertuz, honakoak izan ditzakegu gogoan hartzekoak:

- 2.1.1.** Baditugu euskaraz sinonimo hutsak diren zenbait termino: *azeria/lukia, aita/aitona, amama/amona...*
- 2.1.2.** Zenbait terminok, alor batean sinonimoak izan arren beste alorren batean, euskalkien edota erabileraren eraginez, adiera berriren bat hartu dute: *aditu/ulertu; dolutu (damutu/garbaitu) edota dolutu (atsekabetu, nahigabetu)...*
- 2.1.3.** Badira adiera oso hurbilekoa duten terminoak ere. Hauek, jakina, guztiz sinonimoak izan ez arren, euskara aberasteko bide gertatzen zaizkigu: *dardaratu/eragin, astindu...*
- 2.1.4.** Hainbat sinonimok jatorri bera izan arren, erabileraren ondorioz itxura galtzerainoko aldaketa jasan dute. Honelako asko baztertzekotzat jo ditu Euskaltzaindiak, ez erabiltzeko gomendatuz. Honelako hitzei **e**. [-erabili-] erantsi diegu alboko hitza erabili behar dela aditzera emateko: **aba**: e. **aita**; **ifernu**: e. **infernu**; **edukin**: e. **eduki**...

2.1.5. Beste zenbait termino, inoiz erabili izan diren arren, dagoeneko baztertutzat jotzekoak dira. Honelako kasuetan bizerik dirautenak erabiltzea gomendatzen da. Termino hauei **ik.** [-ikusi-] erantsi diegu alboko terminoa erabiltzea gomendatuz: **gabiko**: *ik. azao, sorta*; **baranda**: *ik. galeria, balkoi*; **barauts**: *ik. lerde*;...

2.1.6. Era berean, badira euskalkien eremuan hainbateko erabilera izan arren, erabilera askoz zabalagoko sinonimoak dituztenak. Halakoei Euskaltzaindiak bere **euskara batuko** zerrendetan **b.** (-hobetsi-) erantsi izan die. Guk inolako markarik gabe jaso ditugu errenkadan lehentasuna emanez: **baliente**: *ausart, subar, adoretzu*; **ilbeltz**: *urtarrik*; **inguru-giro**: *ingurumen* eta abar.

2.1.7. Terminoen aurkezpenari dagokionez, Euskaltzaindiak baturako onartutakoak **letra etzanez** jasotzen dira.

2.1.8. Antonimoak ezkerrean [\*] dutela jartzen dira sinonimoengandik egoki bereizita.

**Laburpena:** hiztegi hau aparteko baliabide izango du edonork aurrerantzean:

- 1) Euskaltzaindiak onartutako nahiz baztertutako terminoen berri zehatza eskaintzen duelako.
- 2) Norberaren euskalkitik beste euskalkietara edo euskara batura jauzi egiteko bidea ematen duelako.
- 3) Euskaraz, ahoz nahiz idatziz jardutean, terminoen errepikapenak baztertu, eta euskara aberatsa erabiltzeko lagungarri delako.

## 2.2. Eskola Hiztegia. Irudiduna. Oinarrizkoa

“BOSTAK BAT” taldeak -30 urteko historiari so eginik- *Sinonimoen Hiztegiak* (Adorez-1, 1983) izandako arrakasta kontuan izanda, euskarako definiziozko hiztegiak egiteari ekin zion. Lehena, aparteko arrakasta jaso zuen *Euskararako Hiztegia* (Ado-

rez 2, 1986) izan zen. Geroago, bide beretik aurrera eginez etorri ziren *Euskararako Hiztegia. Oinarrizkoa* (Adorez 4, 1990), *Eskola Hiztegia. Irudiduna* (Adorez 5, 1991) *Europa Hiztegia. Eskola Berrikoa* (Adorez 6, 1993), *Eskola Hiztegia. Irudiduna* (Adorez 5\*, 2005) eta *Euskal Hiztegia* (Adorez 12, 2011).

Hemen aipatzen dugun *Eskola Hiztegia. Irudiduna. Oinarrizkoa* deritzanak (Adorez 15, 2013) bi bertsio izan ditu aurretik. Bigarrena (2005ekoa) Euskaltzaindiak argitaratu berri zuen euskara batuko zerrendaren arabera taxutua izan zen. Definizioak eta gainerakoak euskara batuan eskaini zituen. Hori dela eta, ordutik hona urte asko igaro diren arren, gaur-gaurko hiztegia izaten jarraitzen du, euskarazko oinarrizko terminoak kontuan hartuz egin zelako.

Orain, Euskaltzaindiak bere *Hiztegi Batua* eta definiziozko *Hiztegia* argitaratu ondoren, egoera berrira egokitu ondoren zeharo eguneratua izan da. Baliabide informatiko berriek asko lagundu digute lan horretan, batez ere irudiei dagokienetan.

Laburbilduz honako EZAUGARRIOK nabarmenduko nituzke:

- 2.2.1. Kendu egin dira Euskaltzaindiak baturako onartu ez dituen sarrerak, bakarren bat izan ezik.
- 2.2.2. Hainbat termino eta esaldi berri gehitu dira. Adierak eta adibideak ere ugariagoak eta egokiagoak dirateke.
- 2.2.3. Terminoak beraien ezaugarri zehatzak (*iz. / izond. / izlag. / ad. / esap...*) ondoan dituztela aurkezten dira. Era berean honela dator edukia: a) sarrerak **letra beltzez**; b) definizioak **letra normalez**; c) adibideak **letra etzanez**.
- 2.2.4. Zientzia alorreko terminoen kasuan, eremuei dagozkien laburdurak erantsi zaizkie: **bagina:** (Anat.); **baia:** (Bot.); **balada:** (Lit.); **balea:** (Zool.)...
- 2.2.5. Sinonimoak eta antonimoak beren-beregi aztertu dira eta erraz aurkitzeko alboan **Sin.** edota **Ant.** laburdurak jarri zaiz-

kie. Horrela, terminoen inguru semantikoa taxutzeko eta esanahia argitzeko bide gertatzen dira,

**2.2.6.** Ahalegin berezia nabari daiteke irudi-alorrean:

**2.2.6.1.** *Euskararako Hiztegian* erabilitako irudi sortak berreskuratu, eta hiztegi honetara ekarri dira, kolorezko 30 orrialdetan eskainiz. Horietan, 600 termino inguru jasotzen dira.

**2.2.6.2.** *Europa Hiztegian* (1993) eta *Eskola Hiztegian* (2005) ageri diren zenbait irudi ere jaso dira, termino bakoitzaren ondoan eskainiz.

**2.2.6.3.** Berrikuntzarik handiena, alabaina, Juan Mari Arribabalaga jaunak prestatutako irudi sorta dugu, ezen aparteko aukera ematen baitigute Euskal Herri osoko hainbat eraikin eta kultura-gune ezagutzeko.

**2.2.7** Beren-beregi bildu dira Euskaltzaindiak bere *Euskara Batura* liburuan eta *Hiztegian* jasotzen dituen euskalkien eremuko lehen itzuliko termino guztiak; baita Iparraldeko ikas-toletarako prestatutako ‘*Ikasgelako lexikoa*’ liburuko terminoak ere.

**2.2.8.** Terminoen maiztasun-datuak ere batzen dira. Horrela, *Eskola Hiztegian* lehendik markaturik genituen terminoei eutsiz, beste zenbait terminori ere ezarri zaizkie [\*] edo [\*\*].

**2.2.9.** Aditz-jokoa hiztegi modura erraz kontsultatzeko eran jasotzen da. Aditz batuari bizkaierako formak erantsi zaizkio. Beste kolore bateko paperean bizkaierazko formei batukoak gehitu zaizkie, erkatzeko bidea eskainiz.

**2.2.10.** Azkenik, badu oso erraz kontsultatzeko gramatika txiki bat ere.

Azkenik, oinarritzko hiztegia ere bada. Eskola mundurako baliabide egoki eta zabala. Egin-eginean ere, hiztegi bakarrean eskaintzen zaizkigu definizioak, adibideak, sinonimoak, anto-

nimoak, irudiak, deklinabideak, aditz joko osoa. Eta guztia, Euskaltzaindiak baturantz emandako urratsak zehazki betez eta islatuz.

ADOREZ bildumako hiztegegileon ustez, baliabide eta lanabes apartak izango ditu hiztegi bi hauek euskararen sakondu gura duen edonork ezen, ardura handiz eta tratamendu egokia erabiliz prestatutako hiztegiak baitira. Euskara batuari lehentasuna eman diogun arren, euskalkien eremuko termino erabilienei berariaz egin diegu lekua.

Bestalde, aurreko argitalpenean esaten genuenaren haritik, haur eta gazteen ingurumen osoa izan dugu gogoan, hots, familia, eskola, auzoa, lagunartea, komunikabideak, internet... Eremu horietan erabili ohi diren berbarik beharrezkoenei eta maiztasunik handienekoei lekua egiten ahalegindu gara, beti ere, aipatu dugun euskararen oinarritzko hizkuntza baliabideen azterketak eskainitako datuak aurrez aurre izanik.

*Patxi Uribarren Leturiaga*

## EZAUGARRI NAGUSIAK

<i>letra etzanez</i> : Euskara batuko hitzak.	<i>ababor, abadia, abadesa, abagune...</i>
"h.": ondokoa hobetsi da	<i>pantxa: 1 (h. xafla). 2 (h. lisaburdina); portzentaje: (h. ehuneko)</i>
"e.": ondokoa erabili behar da.	<i>abarrots: e. harrabots; abatetxe: e. abade(-)etxe...</i>
"ikus/ik.": ondokoa gomendatzen da.	<i>agor: 3 ikus lehor; ahuldura: 2 ikus ahulezia; aldakuntza: ikus aldaketa; landatu: 3 ikus birlandatu</i>
/ : nahiz bata nahiz bestea	<i>ahobero/aho-bero, burugogor/buru-gogor, mihigai<sup>z</sup>to/mihi-gai<sup>z</sup>to</i>
- : beti marraz idazten da	<i>adit<sup>z</sup>-izen, aita-ama, apain-mahai, arin-arin, bat-batean</i>
(-) : marraz lotuta nahiz bereizita	<i>abade(-etxe): abade-etxe / abade etxe</i>
Sin. = Sinonimoak (parekideak)	<i>aitona:** iz. gurasoen aita: aitak haserre egitean, aitona haurraren babesleku. Sin. Aitaita, aitajaun, aitaxi...</i>
Ant./* = Antonimoak (aurkakoak)	<i>ait<sup>z</sup>in: 1.... Sin. Aurre. Ant. Atze, gibel. 2 .... Sin. Aurrean. Ant. Atzean</i>
1/2/3/4: = adiera ezberdinak	<i>adiskide:** iz. 1 lagun on eta maitatua: adiskide handia; adiskide kutuna; adiskide mina. Sin. Gogaide, lagun. Ant. Etsai, arerio. 2 zenbait tokitan senargaia zein emaztegaia: maite dut bihotzeko nire adiskidea.</i>
da/du; zaio/dio: aditzen komuntadura	<i>ekarri: du; joan: da; abisatu: du/dio; ahantzi: da/du/zaio</i>
Gramatika alorreko laburdurak:	<i>iz. (izena), izond. (izenondoa: kasu atzizkirik gabeko adjektiboa), izlag. (izenlaguna: kasu atzizkia duen adjektiboa), ad. (aditza), adond. (aditzondoa: kasu atzizkirik gabeko adberbioa), adlag. (adizlaguna: kasu atzizkia duen adberbioa); esap. (esapidea); interj. (interjekzioa); konp. (konposatuak); h. e. (hit<sup>z</sup> elkarketa); konj. (konjuntzioa); Haur. (haur-hizkera); Irud. (Irudizkoa); Lag. (lagunartekoa); pl. (plurala).</i>
** : jakin beharreko hitza.	<i>adin:**; adiskide:**; aita:**; aitaita:**</i>
* : erabilera handiko hitza.	<i>abere:**; aberri:**; abeslari:**; abendu:**</i>



**EUSKAL KULTURA INDUSTRIAREN ENPRESAK:  
GAZIAK ETA GOZOAK**

Aldizkari honetan argitaratutako artikulu batean (Juaristi, 2013) esaten nuen euskaldun gehienek ez dituztela euskal kultur produktuak kontsumitzen, eta, beraz, gure kulturari babes sozial txikia ematen zaiola. Euskarazko komunikabideak dira kultura-kontsumitzaileen aldetik inplikazio maila baxuena eskatzen duten berbazko adierazpide kulturalak, eta gehienez jota, 100.000 euskaldun dira horien ohiko jarraitzaileak; hau da, euskaldun guztien % 15 inguru. Askoz gutxiago dira kontsumitzailearen ikuspuntutik inplikazio maila handiagoa eskatzen duten adierazpideetara hurbiltzen direnak. Euskarazko pelikuletara, gehienez jota, euskaldunen % 10 hurbiltzen da eta euskal literaturara euskaldungoaren % 0,6 edo % 0,7 inguru.

Ehuneko hauekin ondorioa argia da: eskaria txikiegia da, euskal kultura industria sendo bat eraikitzen ari garela esateko. Euskal kulturak erosle, kontsumitzaile, irakurle, ikus-entzule... gutxiegi ditu, euskal kulturari behar bezalako oinarria emateko.

Eskaria ahul dago, baina nolakoa da eskaintza? Zer-nolako egoera dute berbazko komunikazioa darabilten euskal kultura enpresak? Zeintzuk dira hauen sendotasunak eta ahultasunak?

**1. Argitaletxeen txikitasuna**

Gutenberg-ek inprenta asmatu zuenetik (Estrasburgo, 1440) 105 urtera inprimatu zuen Bernart Etxeparek bere *Linguae Vasconum Primitiae* (1545) liburua; hau da, mende bat baino gehiago igaro zen euskarazko lehen idaztia kaleratzeko.



Hurrengo hiru mendeak ez ziren emankorragoak izan. Joxe Azurmendik *Espainolak eta Euskaldunak* (1992) lanean ederki azaldu zuen legez, euskal kulturari buruzko kontzientzia ezak goi mailakoak gazteleraz edo frantsesez idaztera bultzatu zituen, eta, ondorioz, ez zen garatu Euskal Herrian liburugintza duin batek behar zituen azpiegiturak.

Egia esan, XX. mendeko 70. hamarkadara etorri behar gara euskal munduari loturiko lehen argialetxe sare finkoa aurkitzeko. Hau da, Gutenberg-ek inprenta asmatu eta 530 urtetara agertu ziren Gordailu (1969), Lur (1969), Etor (1970), Iker (1972), Gero (1973), Elkar (1973) edo Erein (1976) bezalako argialetxeak.

Harrezkero, hautariko batzuk zarratu eta beste batzuk zabaldu egin dira<sup>1</sup>; baina, egun, euskal sistema literarioak badauka bere inprimatzaile sarea. Zehatzago esanda, tamaina, izaera eta historia desberdineko 37 bat argialetxe ari dira euskal liburugintza mantentzen<sup>2</sup>.

Hauen berezitasunei begiratzen badiegu, ikusten duguna da 37 argialetxe hauen arteko ia denak Euskal Herrian jaio direla, baina tartean badirela kanpoan sortu eta euskarazko lanak kaleratzen dituztenak (batez ere testuliburuak). Egia esan, kanpoko argialetxeen pisua nabarmena da. Hain zuzen ere, euskaraz gehien argitaratzen duten 10 argialetxetik bostek hemendik at dute etxe nagusia. Hala ere, ametxea hemen duen batek dauka euskarazko argitalpen gehien: Elkarrek. 2010. urtean, adibidez, argialetxe honek euskarazko 221 titulu argita-

<sup>1</sup> Zarratutakoen artean Sendoa argialetxea aipatu nahi nuke. Jokin Berasategik (1939-2012) sortu zuen 1980. urtean, eta 2006an itxi zen. Sendoan kale-ratu zituen Antonio Zabalak Auspoa bildumako liburuetako gehientsuenak (Zabala, 2012-04-01 eta Ibargutxi, 2008-2-25). Oraintsu zabaldutakoen artean, Edo Argialetxea aipatu nahi nuke; hain zuzen ere, 2012. urtean sortu zena.

<sup>2</sup> Nire datuen arabera, 37 argialetxek lan egiten dute euskaraz Euskal Herri osoan. Eta Kulturaren Euskal Behatokiaren Arte eta Kultura Industriak 2009. Txosten Estatistikoaren arabera (2012:36), 37 argialetxe dira Euskal AEan euskarazko eta erdarazko lanak argitaratzen dituztenak.

ratu zituen (Torrealdai, 2012:22), eta, orotara, 2500 erreferentziatik gora biltzen dira Elkarreko katalogoan (<http://www.elkarargialetxea.com>).

Honako hauek dira euskaraz argitaratzen duten 10 argitale-txe nagusienak: Aizkorri-Everest, Alberdania, Anaya, Elkar, Elkar/Ikastolen Elkartea, Erein, Giltza-Édebe, Ibaizabal-Edelvives, Susaeta eta Ttarttalo.

Euskal Herrian dira nagusiak, zeren Torrealdaik dioen bezala: “(...) nazioarteko parametroetan ez dira batere handiak. Hori bateko. Eta besteko, hamarren artean ez dute liburu kopuruaren erdia ere ekoizten. Hona hiruzpalau ezaugarri: ekoizleen % 3,4 osatzen dute. Ekoizpenaren % 46,6 zor zaie. Erdiak bertokoak dira, eta beste erdiek Euskal Herritik kanpo dute ametxea edo etxe nagusia. Hamarron arteko ekoizpenaren % 70,5 bertokoen lana da eta berrargitarapenaren % 81,5 ere bai. Kanpokoak, aldiz, itzulpenean dira nagusi: % 57” (Torrealdai, 2012:21-22).

Txikiak izateaz gain, euskal liburuaren industriari langile gutxi enplegatzen ditu. Kulturaren Euskal Behatokiaren *Arte eta Kultura Industriak 2009. Txosten Estatistikoaren* arabera (2012:36), Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban, 38 argitale-txe ari dira lanean (2012an 37 argitale-txe ziren), 210 langilerekin. Alegia, batenaz beste, argitale-txe bakoitzak 5 edo 6 behargin ditu.

Joan Mari Torrealdaik 1994. urtean zioen euskarazko editorialgintzak buztinezko zangoak zituela merkatuak ezartzen zituen erronkei erantzuteko<sup>3</sup>, eta 20 urte beranduago, gauzak antzera zamar daudela begitantzen zait: ekoizpenaren zein lan-

<sup>3</sup> Torrealdaik zera zioen: “Euskal editorialgintzak buztinezko zangoak ditu. Euskal editorialak txikiak dira; enpresa gisa, ez ote txikiegiak? Merkatuaren esklabu ez izateko, kultur politika bat markatzeko eta ziurtatzeko gerora, kanpokoan erasoei aurre egin ahal izateko bertoko enpresak indartu behar badira, egitura txikiegiakin gabilza” (Torrealdai, 1994:73).

gileen ikuspuntutik, gure argitaletxeak tamaina txikikoak izaten jarraitzen dute.

Ahultasun horri errentagarritasun txikia gehitu behar zaio. Euskal AEko argitaletxeek, erdaraz zein bietan lan egiten dutenek, miloi bat euroko irabaziak izan zituzten 2007an (Kulturaren Euskal Behatokia, 2009:36). Hau da, batenaz beste, argitaletxe bakoitzak 26.000 euroko etekinak izan zituen. Eta hori, nire ustez, errentagarritasun txikiegia da etorkizunean egitasmo potoloak bultzatzeko.

Eta EAE-ko argitaletxeen egoera ez da hain txarra, Iparraldekoekin alderatzen baditugu. Iparraldeko *Hitza*-n adierazten zen bezala: “Azken denboretan *zailtasuna* eta *arrangura* hitzak dira nagusitzen ekonomiari begira. Ipar Euskal Herriko euskal argitaletxeek, ordea, aspaldiko burukomina dute iraupena. Euskarak ofizialtasunik ez duen lurraldean, legeak bermerik ematen ez duen eremuan, liburuak euskaraz argitaratzea erronka militantea da. Maitasunetik egina, eta irakurtzearen maitasuna lortzeko ekimena” (Iparraldeko Hitza, 2012/03/02).

Abagunea zaila dela onartuta ere, gauzak baikor ikusteko arrazoi batzuk ere badaude. Hots, ahultasunen alboan, sendotasun batzuk ere agertzen dira: alde batetik, positiboa da ikustea kanpoko argitaletxeak sartu direla euskarazko merkatuan, testuliburuekin negozio egiteko aukerak ikusita. Gure enpresentzako lehia handiagoa esan nahi du horrek, baina bestetik pentsa daitekeena da gure merkatuak etorkizuna duela, eta horregatik etorri direla enpresa pribatu horiek gurera. Ikuspuntu honetatik gure kulturak badu etorkizuna.

Bestalde, argitaletxe batzuk itxi egin dira, baina berriak hasi dira lanean, eta hori ere sektorearen bizitasunaren seinale da. Euskal editorialgintzak badu biziberritzeko gaitasuna.

Seinale ona ere bada bertan jaio eta garatu diren argitaletxe batzuk oinarri sendoak dituztela. Lur, Etor, Elkar edo Erein bezalakoek ia 40 urtez ari dira editorialgintzan, eta gora beherekin eta

arazoekin bada ere, XXI. mendera arte heltzea lortu dute. Eta hori horrela da modernizatzen eta egokitzen jakin dutelako. Ohiko lanez gain, multimedia produkzioak eta liburu elektronikoak egi-ten dituzte, eta Internetez erosteko aukerak eskaintzen.

Azkenik, azpimarratzekoa da argitaletxeak gero eta gehiago ateratzen direla nazioartera. Euskal Editoreen Elkartearen esku- tik, zein Espainiako Editoreen Elkartearen Federazioaren bidez, euskal argitaletxeek sarritan parte hartzen dute nazioarteko azoketan. Emaitzak ez ditut ezagutzen, baina pentsatu nahi dut erakusleihu hauek salmentak handitzeko eta kanpoko argitale- txeekin elkarlan egitasmoak gauzatzeko balio izan dutela.

## **2. Ekoiztetxeak: indartsuenak eta errentagarrienak**

Rikardo Arregi euskal prosa kazetaritzaren egituretara ego- kitzen hasi zenetik 20 urtetara hasi ziren ETB1-en emisioak. Zentzu honetan, 1983ko urtarrilaren 1a egun gogoangarri da euskaldunentzat eta, zehazki, euskal kultura industriarentzat: egun horretan, euskarazko lehen telebista katea plazaratu zen; askorentzat euskara eta euskal kultura suspertuko zituena. Be- reziki ikus-entzunezkoen euskarazko jardunarekin arduratuta zeudenentzat gertaera hau pozgarria izan zen, pentsatzen zute- lako ETB-1ek euskarazko zinea eta antzerkia bultzatuko zitue- la, ekoiztetxeen sorrera bultzatu eta sektorea profesionalizatu.

1986ko maiatzaren 31n, ETB-2 erdarazko kanalaren emi- sioak hasi ziren. Euskaldun askok mesfidantzaz hartu zuten te- lebista jaioberria, ETB-1 ahuldu eta euskararen biziberritza kaltetuko zuelakoan. Hala ere, beste askok pentsatu zuten, te- lebista publiko birekin, ikus-entzunezkoen sektorea are eta ge- hiago suspertuko zela, eta gurea bezalako kultura txiki batek behar zituen oinarriak jarriko zirela. Nire ustez emaitzak gazi- gozoak izan dira.

Gozen artean dago ekoiztetxe sare duina erdietsi dela. Bakarrik Euskal AEn, 84 bat enpresa ari dira lanean ikus-entzu-

nezkoen arloan (Kulturaren Euskal Behatokia, 2009:42). Haue-  
tariko 35 batek, gainera, euskaraz lan egiteko gaitasuna dute.

Ziur aski, gehiago egin zitekeen. Ikus-entzunezkoen tren-  
a urrunagoko estazio batean egon beharko luke, gauzak hobeto  
egin izan balira. Hala ere, iruditzen zait heldu garen estazioa  
ez dagoela oso gaizki, 60. hamarkadako egoerari erreparatzen  
badiogu. Rikardo Arregiren ametsik onenean ere ez zen ager-  
tuko gaur egun ikus-entzunezkoen arloan daukaguna. Izan  
ere, Kulturaren Euskal Behatokiaren arabera (2012:42), ikus-  
entzunezkoena da euskal kultura industriako arlorik indartsue-  
na eta errentagarriena. 2009an, adibidez, arlo honetako enpre-  
sek 5 milioi euroko irabaziak izan zituzten Euskal AEn, eta  
1.367 pertsoneri eman zien lana (kontuan izan ETB hemen sar-  
tua dagoela). Orotara, euskaraz eta erdaraz lan egiten duten  
ekoiztetxeek 211.399.000 euroko sarrerak izan zituzten.

Gora beherekin bada ere, onartu egin behar da ETB-k eus-  
kal fikzioa bultzatu zuela hasieran, eta horrek lagundu egin  
ziola ikus-entzunezkoen industriari; baita zineari eta antzerkiari  
ere. Horrela, sektorea hasten joan da etengabe. Adibide bat  
ematearren, 2007tik 2009ra, ikus-entzunezkoen enpresek 452  
langile gehiago kontratatu zituzten, eta bi milioi euro gehiago  
irabazi. Gainera, enpresa kopurua ere hazi egin da. 1997an,  
era honetako 60 faktoria genituen (Azpillaga, 1997:26), eta,  
egun, Hego Euskal Herrian bakarrik, 100dik gora dira euskaraz  
zein erdaraz lanean ari direnak.

Sendotasunekin jarraituz, aipatzekoa da ekoiztetxe gehie-  
nek orain dela urte batzuk baino ekipamendu eta azpiegitura  
hobeagoak dituztela, eta ondo egokitu direla teknologia be-  
rrietara. Halaber, Basque Audiovisual markarekin, gero eta ge-  
hiago ateratzen dira nazioarteko azoketara, eta ia denak elkar-  
tuta daude. Eiken-ek (Euskadiko Ikus-Entzunezkoen Kluste-  
rra), Egeda-k (Ikus-Entzunezko Ekoizleen Eskubideen  
Kudeaketa Erakundea) eta Ibaia-k (Ikus-entzunezkoen Euskal

Ekoihle Burujabeen Elkarte) sendotasuna eta babesu ematen diote sektoreari.

Ikus-entzunezkoena da euskal kulturak duen arlo indartsuena eta osasuntsuena, baina fraka zurian hari beltz puntadak ez dira falta.

Ahultasunik nabarmenatarikoa da EITB-k kanpoan erosten duela fikzio ia guztia, bertoko ekoiztetxeen lana bultzatu ordez. Horrek urteetako proiektuak geratzea, ikus-entzunezkoen sektorea desprofesionalizatzea, aktoreen langabezia eta ekoiztetxeen itxiera ekarri du. Miren Azkaratek, Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailburu ohiak, salaketa hori egiten zuen hainbat egunkaritan: "(...) ikus-entzunezkoen sektorea ere 'kinka larrian dago' zalantzarik gabe. ETB zen traktore nagusia, euskal fikzioa suspertzeko erantzukizuna zuena, gainerako hizkuntzetan sortutako fikzioaren bikoizketaren ardura ere izan behar zuena. Arlo honetan ere Ibaia euskal ekoizpen etxeen elkarteak, euskal gidoiarien elkarteak eta EAB aktoreen sindikatuak osatzen duten Ikus-entzunezko Plataformak otsailean salatu zuen telebistako fikzioa 'ia erabat' desagertu dela. Inguruko telebista-kate guztiak ari dira fikzioaren aldeko apustua egiten, Madrilgo kateetan zein autonomikoetan; ETBren jarrera, aldiz, guztiz kontrakoa da. Horrek berarekin ekarri du proiektuak geratzea eta euskal ikus-entzunezkoen sektorea desprofesionalizatzea, aktoreen hamarretik batek baino ez baitu lan egiten. Sektorearen egoera inoiz baino larriagoa zela adierazi zuten; orain arte ondo zebiltzan batzuk ixten ari dira, eta besteetan erregulazio espedienteak ari dira martxan jartzen" (Azcarate, 2012).

Beste arazo bat segiziozaletasun edo klientelismoarena da. Patxi Azpillagak orain dela 15 urte salatzen zuen enpresa batzuk gobernuan zegoen alderditik tratu berezia jasotzen zutela, eta horrek sinesgarritasuna kentzen ziela (Azpillaga, 1997). Han eta hemen entzuten denaren arabera, badirudi gauzak antzera zamar jarraitzen dutela. Boterean dagoen alderdiare-

kiko gehiegizko mendekotasunak sormena edota diskurtso estetiko berrien agerpena eragozten du.

Azkenik, aipatzekoa da ekoizpen egiturak garatzeko eta hobetzeko epe luzera begiratzea falta izan dela. Basquewood bat egiteko herri txikiegia garela onartuta ere, euskal zinearen estatusa hobetuzkoetan sinistu eta azpiegiturak sortzeko politika sendoa garatu balute.

### 3. Diskoetxeak krisian

Emil Berliner-ek 1888an sortu zituen hotsak grabatu eta entzuteko gramofonoa eta diskoa. 1904an, English Neophone Company-k plastikozko diskoa ideiatu zuen. 1935ean, AEG-k magnetofonoa plazaratu zuen. 1947. urtean, Peter Goldmark-ek mikrosurkoak dituen diskoa eta tokadiskoa sortu zituen. 1985ean, Philips-ek CD-ROM-a jarri zuen merkatuan, eta 90. hamarkadan, DVDA agertu zen.

Musika gordetzeko eta entzuteko erak aldatzen joan dira, baina orain arte erabili izan diren euskarriek dirua egitea (edo behintzat egitasmoarekin aurrera egitea) ahalbidetu die diskoetxeei eta, oro har, musikaren inguruko industriari. Diskoak, zintak, CD-ak eta DVD-ak dendetan erosi behar izaten ziren, eta horrek musika sortzen, banatzen eta saltzen zuen azpiegitura industrialia ahalbidetu zuen.

Industria hau, baina, hankaz gora jarri da, musika kontsumitzeko joera berriekin. Gustatzen zaizkigun taldeen lanak Internetetik jaisten ditugu, gehienetan ezer ordaindu gabe, edota musika bideak *youtouben* ikusten. Euskarri fisikorik gabe, salmentak eta etekinak murriztu egin dira, eta zalantzan jarri garai batean negozio aukera izugarriak ematen zituen musikaren industria.

Euskal diskogintzaren momenturik onenak 80 eta 90. hamarkadak izan ziren. Eusko Rock Erradikalaren inguruko ban-

dei, pailazoei (musika banda askok nahiko lituzkete Pirritx eta Porrotx-en salmentak), kantautoreei edo trikiti-rock taldeei esker, Soñua, Oihuka edo Gor bezalako diskoetxeek urte nahiko onak hartu zituzten. Talde eta egitasmo berriak, salmentak, kontzertuak... bi hamarkada horietan, nahiko erraz saltzen ziren diskoak, eta enpresek irabazi duinak izan zituzten. Negozioa ikusita, diskoetxe gehiago kimatu ziren (agian gehiegi); momentu onenean, 31 bat izateraino.

Gaur egun, orduko 12 diskoetxe desagertuta daude, eta badirudi etorkizunean gehiago zarratuko direla. Izan ere, diskoetxe gehienek tamaina txikiegia dute eta salmenta gutxiegi. Eustaten arabera, Euskal AEn 24 diskoetxe daude (oroitu 2009ko datuak direla, eta Eustatek desagertu diren diskoetxe batzuk ere zenbatzen dituela), 38 langilerekin funtzionatzen dutenak (bi langile baino gutxiago diskoetxe bakoitzean). Gainera, errentagarritasun gutxi dutela esan daiteke. 2009an, ia 4,7 milioi euroko diru-sarrerak izan zituzten, eta 4,4 milioi euroko gastuak<sup>4</sup>. Hau da, 24 diskoetxeek bakarrik 300.000 euroko errentagarritasun marjina izan zuten. Eta horrek esan nahi du inbertsioak egiteko edota egitasmo arranditsuetan sartzeko atek itxita dituztela.

Gaziekin jarraituz, azpimarratzekoa da zutik jarraitzen duten diskoetxeek orain dela urte batzuk baino disko gutxiago kale-ratzen dituztela. Gorka Erostarbek panoramaren deskribapen hau egiten du: “Euskal kantagintza modernoaren esparruan (pop, rock, folk...), urteko disko ekoizpen handiena izan duen diskoetxea Elkar da (Oihuka ere Elkarren marka da). 2000. urtean, 43 disko erreferentzia izan zituen. Iaz (2010. urteari buruz ari da), aldiz, 21 baino ez ziren izan, Eresbil musikaren euskal artxiboak bildutako datuen arabera. Gor diskoetxeak,

<sup>4</sup> Datuok [www.eustat.es](http://www.eustat.es) web orritik hartu ditut. Nahiz eta iturria Kulturaren euskal Behatokiak egin zuen Arte eta Kultura Industriak 2009 lana dela esan, batean eta bestean datuak desberdinak dira. Nik Eustatek ematen dituenak agertzen ditut, nire ustez, logikoagoak direlako.



aldiz, 13 ekoizpen izan zituen 2000 urtean eta 7 baino ez iazkoan. Gaztelupeko Hotsak izan da goitik beherako joera hori irauli duen bakarra. Duela hamar urte 14 erreferentzia plazaratu zituen eta iaz 23 izan ziren ekoizpen berriak, Errabal azpizigiluarenak kontutan hartuta” (Berria, 2011-03-10).

Etekinak, diskoak eta diskoetxeak ez ezik, gutxieneko disko kopurua ekoizten duten argitaletxeak ere murriztu egin dira. Atzera ere Erosterberri kasu eginez: “2000. urtean 31 izan ziren bi disko edo gehiago argitaratu zituzten zigiluak. Urtetik urtera kopuru hori jaitsiz joan da, eta iaz (2010. urteari buruz ari da) 16 baino ez ziren” (Berria, 2011-03-10).

Iritziak iritzi, iruditzen zait orain ezagutzen dugun diskoetxeen eredia agorturik dagoela. Musikaren industriak berbramatzea beste aukerarik ez du, etorkizunean bizi nahi badu. Zertan dabilta euskal diskoetxeak? Plan estrategikorik badute? Tamaina eta errentagarritasuna handitzeko egitasmorik bada-go? Nik dakidala ez.

#### **4. Hedabideak kultura industriaren erdigunean**

Noëlle-Neumann-ek, bere *La espiral del silencio. Opinión pública: nuestra piel social* (1995) iker-lanean ederki adierazi zuen bezala, hedabideek eragin eskerga dute egiten dugun errealitatearen definizioan. Sortzen dituzten iruditegiak, mitoen edota ereduak bidez, kultura produktu bat ona edo txarra den sinestazteko edo batzuk aupatu eta beste batzuk ezkutatzeko gaitasun izugarria dute. Zentzu honetan, hedabideak, kultura industriaren parte izateaz gain, epaile erabakitzaileak ere badira.

Euskal Herrian ez ditugu hizkuntza indartsuek dituzten bezalako komunikabide sarerik. Hala ere, azken 50 urteotan, euskararen presentzia handitu egin da komunikabide publiko zein pribatuetan.

Euskarazko hedabide publikoen artean lehena, dituen aurrekontu eta langile kopuruagatik, EITB taldea da. Euskaraz

emititzen duten bi irrati (Euskadi Irratia eta Euskadi Gaztea), euskaraz eta erdaraz dagoen Web orria eta euskarazko telebista bi dauzka (ETB1 eta ETB3).

RTVE-k ere bost minutuko euskarazko albistegi bat eskaintzen du eguerdian, eta France 3 Euskal Herri-k 6 minutuko albistegi bat egiten du egunero (seitarik bat euskaraz), eta asteroko Euskal Herriko gora beherei buruz emanaldi bat (hiru saiotarik bat euskaraz da frantsesezko azpi-tituluekin).

Hedabide publikoek aurrekontu potoloak dituzte (EITB-k, adibidez, Eusko Jaurlaritzako Kulturako aurrekontuaren % 55 - % 60 eramaten du), profesional onak eta ondo prestatua daude datozen beharrian teknologikoei erantzuteko. Krisi ekonomikoak eraginda pribatizazioaren mamua azaleratu eta euren aurrekontuak murriztu badira ere, egitasmo sendoak izaten jarraitzen dute. Gainera, etorkizunean ere erakundeen babesa izaten jarraituko dutela pentsa daiteke.

Dena dela, badira diotenak erakunde publikoek telebistekiko duten politika errotik aldatu behar luketela. Izan ere, orain arte, ETB1-entzat izan dira euskarazko telebistentzat bideratzen ziren diru gehienak. 2012. urtean, adibidez, ETB-k 124 milioi euro hartu zituen erakundeetatik eta euskarazko tokiko zazpi telebistek milioi erdi (alde ederra dago!).

Euskaingintzan ari diren batzuen ustez, telebista publiko eta pribatuek, modu konbinatuan, osatu beharko lukete euskarazko telebistaren esparrua. Telebista publiko eta pribatuak guztiak dira beharrezkoak ikus-entzunezkoen mundua eta euskara indartzeko, eta erakunde publikoek guztiak lagundu behar lituzkete. Jon Sarasua iritzi horren aldekoa da: "Euskararen telebista espazioa bera dela uste duen ETB bat atzean utzi, eta euskararen telebista espazioaren parte garrantzitsu bat soilik dela ulertu behar duen ETB bat sortu. (...) Telebista autonomiko bakar batean diru guztia jarrita ez goaz oso urrun, fragmentazioaren goera errotik aldatu baita. Eskema ere erroan

aldatu behar dugu. Monokultiboko eskema honekin jarraituz gero, eta telebistarako dugun diru guztia ETBn jarriz gero, euskararen telebista espazioaren potentziala murrizta izango da” (Berria, 2012-11-11).

Hedabide publikoak dira erakundeetatik diru eta babes gehien jasotzen dutenak, baina hedabide pribatuak, bide malkarrean bada ere, euren bidea egiten ari dira. Hain zuzen ere, historia, tamaina, izaera eta lan egiteko modu desberdinak dituzten 101 enpresa pribatu ari dira lanean Euskal Herrian (kasu batzuetan enpresa baino elkarte hitza erabiltzea egokiagoa da). Batzuk militanteei esker bizi dira, beste batzuk, ordea, liberatuak dituzte. Dirulaguntza publikoengatik egiten dute aurrera gehienek, eta publizitatetik eta salmentetatik ateratzen duten etekinei esker gutxi batzuk. Edonola ere, ”Azken 30 urteotako ibilbide oparoari esker, kontsumitzaileen eskubidea bermatzeko lanean diharduen sektore garrantzitsua bihurtu da euskarazko hedabide ez publikoena: 100dik gora komunikabide dira (prentsa, irratia, telebista eta Internet kontuan hartuta), 620 langile baino gehiago, eta guztien artean 27 milioi eurotik gorako aurrekontua mugitzen dute urtean. 7 milioi euro inguru sortu eta ordaintzen dituzte zuzenean Gizarte Segurantza eta zergen bidez” (Garcia, 2011:5-9).

Banan-banan hartuta, hedabide pribatuak txikiak dira, baina guztien langileak, aurrekontuak, tiradak eta emisio orduak elkartzen baditugu, euskal kultura industriaren zutaberik sendoenetarikoa dira. Dena dela, buruhaustea ez dira falta: enpresek langile gutxi dituzte, lan baldintza eskasak eta tamaina txikiak. Alazne Aiestaranek hedabide pribatuei buruzko ikerketa batean zioen legez: “Aztertu diren euskarazko 93 hedabideetan 598 profesional ari ziren 2007an lanean. Hedabide horien langile kopurua eta tamaina kontuan hartzen badugu, lauzpabost komunikabide-enpresa kenduta, gainerakoak lau

edo bost langile dituzten elkarteak dira” (Aiestaran, 2009:83)<sup>5</sup>. Eta horrek eragin izugarria dauka lan-baldintzetan. Hain zuzen ere, “langile kopuru horrek ez baitu ahalbidetzen langile-ordezkaririk aukeratu ahal izatea, ezta enpresa-komitea izendatzea ere. Izan ere, legearen arabera, beharrezkoa da sei langile izatea langile-ordezkaria aukeratu ahal izateko. Era berean, lan-legediak 50 langiletik gorako enpresetan enpresa-komitea sortzeko aukera eskaintzen du” (Aiestaran, 2009:83).

Aiestaranen beste ondorio bat da hedabide pribatuetako langileek oso soldata baxuak dituztela (Aiestaran, 2009:88): “(...) euskarazko hedabideetan ari diren profesionalen urteko soldata gordina batez beste 17.800 eta 20.700 euro artean kokatzen da. Kopuru horiek hileroko soldata garbira itzulita, 1.100-1.300 euroko lansariak kalkula daitezke gutxi gorabehera”.

Bukatzeko, gogoangarria da enpresa hauetan oso enplegu ezegonkorrak sortzen direla: “Lan-ordutegi luzeek, lan-egutegi estuak, dedikazio handiak, taldeen egitura txikiek eta soldata baxuek jendearen mugikortasuna eragiten dute euskarazko hedabide pribatuetan. Horrek zaildu egiten du langileria finkatzea eta, ondorioz, jendeak zailtasun handiagoak ditu lanean ari den proiektu horretan konpromisoak hartzeko, ez baitu bere burua luzaroan hedabide horietan ikusten. Jendearen finkotasunik ezak produktuaren kalitatean du eragin zuzena, zeren euskarazko hedabide pribatuetan trebatutako kazetariak alde egiteko arriskua handiagoa baita” (Aiestaran, 2009:95).

## **5. Lanku: bertsolaritza kultura industriarekin lotzen**

Ikus-entzunezkoen arloa omen da gure harri bitxia, baina bertsolaritzak ere distira berezia du euskal kulturaren baitan. Bertsotan ikasten dabilzan ume eta gazteei (20.000 Euskal Herria osoan), egiten diren bertso saioei (urtean 1.500 bat), lortu

<sup>5</sup> Mikel Garciak bere aldetik, euskarazko hedabide pribatuek 620 langile baino gehiago dituztela aipatzen zuen (Garcia, 2011:5-9).

den erakundetze mailari (Bertsozale Elkarte, Mintzola eta Lanku), dituzten azpiegiturei (Xenpelar dokumentazio zentroa, irрати eta telebista saioak...) eta hauetan lan egiten duten libe-ratuei erreparatzen badiegu (69 langile), maila onean dagoen adierazpidea dela esan daiteke (Susaeta, 2012-01-18). Eta horretan eragin itzela izan du 1999an abiatu zen Lanku enpresak. Izan ere, bertsogileen ordezkapen eta ordainketak kudeatzeaz haratago, edozein kultur ekitaldi sortzeko eta antolatzeko giza baliabideak zein materialak antolatzen ditu. Ekimen horri esker, koblakarien prezioak zehaztu dira, eta legalizatu hauei egin beharreko ordainketak. Lankuk kultura industriarekin lotu du bertsolaritza.

Hala ere, iruditzen zait krisi ekonomikoak gogor astintzen ari dela bertsolaritza. Gutxitu egin da jaietarako edo ekitaldiak antolatzeko aurrekontuak, eta, dagoeneko, nabaritzen da saio gutxiago egiten direla<sup>6</sup> (nahiz eta 2013ko bertsolari txapelketako kanporaketetan jende asko dabilen). Halaber, erakundeek bertsolaritzaren irakaskuntzara bideratzen duten dirua ere murrizten ari da: Nafarroako Gobernuak, adibidez, bertan behera utzi du 2013. urteko “Bertsolaritza irakaskuntzan” programa<sup>7</sup>; eta PPK gidaturiko Gasteizko Udalak Arabako Bertsolarien Elkartearekin zuen ituna amaitzeko asmoa erakutsi du<sup>8</sup>.

<sup>6</sup> Hala ere, onartu egin behar da 2013ko azaroaren 10rean Tolosan jokatu zen 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrean 1.732 bertsozale elkar-tu zirela, eta Gernika-Lumon jokatu lehen finalurrekoan 1.500 bertsozale. Gainera, finalerako sarrera guztiak hile bata urretik salduta zeuden.

<sup>7</sup> 2011-2012 ikasturtean, 1.100 inguru izan ziren programa jaso zuten ikas-leak, Nafarroako 31 ikastetxetan. Horren trukean, Nafarroako Bertsozale Elkar-teak 48.000 euro jaso zituen gobernutik. Hezkuntza Departamenduak programa-ren heren bat baino ez zuen finantzatzen, gainerakoa udal eta mankomunitate askoren ekarpenari esker finantzatzen zelarik. Nafarroako Bertsozale Elkarteak eta Nafarroako Gobernuak 2011ko udan hiru urterako sinatu zuten akordioa deuseztatu du Hezkuntza Departamenduak (Gara, 2012-6-28).

<sup>8</sup> Elkarteak jasotzen zuen 50.000 euroko laguntzarekin, 30 urte dituen Bertso Eskola zein hiriko zazpi ikastetxetako 700 ikaslek hartzen zituzten es-kolak finantzatzen zituzten (Gara, 2012-6-28).

Krisi ekonomikoaz gain, beste era bateko krisiak ere agertu daitezke epe ertainean. Batzuentzat, bertsolaritzak oinarri sendoa du, eta etorkizunean ere horrela izaten jarraituko du. Beste batzuentzat, aldiz, bertsolaritzaren arrakasta moda hutsa da, espejismoa besterik ez, eta ditugun ikasle, azpiegitura eta bertso saioak asko murriztu daitezke, puria pasatzen denean.

## 6. Azken berbak

Zenbat egitasmo pribatu ari dira lanean euskal kulturgingintzan? Zenbaki bat eman beharko banu, 185 direla esango nuke: 37 bat argialetxe, 35 diskoetxe, 12 ekoiztetxe, bertso enpresa bat (Lanku) eta 100 hedabide.

Hain herri txikia izanda, onartu egin behar da euskal kulturaren baitan denetarikoen enpresak ditugula. Alegia, adierazpide kultural guztiei loturiko enpresa publiko zein pribatuak ari dira lanean. Hauetariko batzuk, gainera, urte askotako ibilbidea dute, eskarmentu galanta eta profesional onak.

Hala ere, hutsuneak nabariak dira, eta neurriak hartzea ezinbestekoa da, kultura industria sendotu nahi badugu.

Lehenengo eta behin, soldatak igo eta langileen egonkortasuna ziurtatu behar da. Gure kultura industriak langile militanteak behar ditu, enpresan inplikatu den jendea. Eta horretarako, beharginak pozik eta egitasmoarekin inplikaturik edukitzea beste aukerarik ez dago.

Horrez gain, lan gehiago egin behar da langileen prestakuntzan. Berrikuntzaren eta kalitatearen ikusmoldea gureganatu nahi badugu, hezkuntza beste ezeren gainetik jarri behar da.

Langileak ez ezik, enpresek ondo jagon behar dituzte sortzaileak. Izan ere, asko dira enpresen tratuarekin kexatu eta autoekoizpenera jotzen dutenak. Autoprodukzioa libreki hautatzen den bidea izan behar luke, ez enpresen laguntasun ezak bultzatutakoa.

Enpresek urrats sendoak eman dituzte azken urteotan ikuspuntu teknologikotik, baina, gehiago egin behar dute. Kultura kontsumitzeko ohiturak, moduak eta uneak sakonetik aldatzen ari diren honetan, beharrezkoa da produktuak on-line iragarzkeo eta saltzeko estrategiak sendotzea.

Modu berean, prest egon behar dira beste batzuekin fusio-natzeko, lankidetzak proiektuak garatzeko edota harremanak bultzatzeko. Txikitasunetik ateratzeko eta eskala-ekonomiak ahalbidetzeko bide bakarra da. Hasteko, Euskadi, Katalunia eta Galiziaren arteko kultura lankidetzak bultzatu behar dira (Euskal Idazleen Elkarteak parte hartzen duen Galeuzka egitasmoa eredu egokia izan daiteke). Izan ere, hiru herriok, mintzaira desberdinak badituzte ere, alderatu eta partekatuzko moduko eskarmentua, informazioa eta jakintza dute. Eta hemendik abiatuta, atzerriko enpresa, erakunde eta merkatuei begiratu behar zaizkie, bezero eta aliantza berriak aurkitzeko.

Enpresak gehiago arriskatzeko edota inbertsio berriak egiteko prest ere egon behar dira, eta produktuen hedakuntza eta banaketa hobegotu behar dute, baita ikerkuntza gehiago egin ere. Enpresen tamaina txikia eta errentagarritasun eskasa medio, badakit zaila dela etekin argirik gabeko abenturetan sartzea. Dena dela, gurea bezalako kultura txikiek arriskatzea (bereziki sortzaile berriekin) eta esperimintatzea beste aukerarik ez dute, etorkizunean ere izan nahi badute.

Bereziki erantzukizun itzela dute hedabideek. Sortzaileak ezagutarazteko edo ezkutatuzko gaitasun izugarria dute, baita salmentak handitzeko edo txikituzko. Zentzu honetan, EITB-k ekoizpen lan gehiago egin beharko lituzke, bereziki zine munduan; baita produktuak eta sortzaileak gehiago iragarri; musikari, idazle, zinemagile edo antzezle gazteak ezagutarazi; eta euskal kulturaren irudia eta prestigioa indartu (ahantzi gabe, oso lan ona egiten duten programak badaudela. Adibidez, Arantxa Iturbek zuzentzen duen Arratsaldekoa irratsaioa edo

Goizalde Landabasok Radio Euskadin eguerditan egiten duten kultura irratsaioa).

Badakit enpresek errentagarritasun gutxi dutela, aipatutako arazoak egun batetik bestera konpontzeko. Badakit egoera hobegotzeko irtenbide magikorik ez dagoela. Hala ere, euskal kultura industria sendotzeko argi dago lana, teknologi aberriak, sormena, arriskua, inplikazioa, kalitatea, talentu berriak, hezkuntza, eta inbertsioak behar direla. Beste biderik ez dago.

## 7. Bibliografia


- Aiestaran, A. (2009): Euskarazko hedabideetako profesionalen lan-baldintzen analisia. *Uztaro*, 69, 79-101. Alonso Jon (2003-12-21): "Azokaz". *Argia*, 1925. alea.
- Azkarate, M. (2012-5-27): "Euskal Kultura Kinka Larrian". *Deia* egunkaria.
- Azpillaga, P. (1997): "Ikus-entzunezko Industria Hego Euskal Herrian", *Jakin* aldizkaria, 99. zenbakia.
- Azurmendi, J. (1992): *Espainolak eta Euskaldunak*. Elkar, Donostia.
- Erostarbe, G. (2011-03-10): "Diskogintza (I). Sektorearen Egoera". *Berria* egunkaria.
- Eusko Jaurlaritza, Kulturaren Euskal Behatokia (2007-2008): *Kultura Obiturak, Praktikak, Kontsumoa inkesta* (www.euskadi.net)
- Eusko Jaurlaritza, Kulturaren Euskal Behatokia (2012): *Arte eta Kultura Industriak 2009. Txosten Estatistikoa* (www.euskadi.net)
- Gara (2012-9-21): "Euskal kultura New Yorken, Basque Cultural Exchange egitararen bitartez". *Gara* Egunkaria.
- Garcia, Mikel: "Euskarazko hedabide ez publikoak. Babesa behar duen sektore estrategikoa". *Argia* Aldizkaria, 2011ko martxoak 27, 5-9.



- Ibargutxik, F. (2008-2-25): «Xalbadorren ‘Odolaren mintzoa’ saldu genuen gehien» artikulua. Diaro Vasco egunkaria.
- Iparraldeko Hitza (2012/03/02): “Euskal hiztunen galerak nekezagoa bihurtzen du argialetxeen jarduna” (<http://iparraldeko-hitza.info>).
- Juaristi, P. (2013): “Zenbatek kontsumitzen dute euskal kultura?” in Karmel, 2013-2, 282. zenbakia, 7-19 orrialdeak.
- Noëlle-Neumann, E. (1995). *La espiral del silencio. Opinión pública: nuestra piel social*. Bartzelona, Paidós.
- Sarasua, J. (2012-11-11): “Telebista espazioaren matrizea aldatu beharko litzateke”. Berria egunkaria.
- Susaeta, I. (12-1-18): “Erroak sendo, burua zabal”. Berria egunkaria.
- Torrealdei, J.M. (1994): “Euskal Liburugintza 1993”, Jakin 85. zkia, Azaroa-Abendua.
- Torrealdei, J. M. (2012): “Euskal Liburugintza 2010”, *Jakin*, 188. zenbakia.
- Zabala, J.L. (2012-04-01): “Auspoaren bigarren hauspoa”. Berria egunkaria, [www.Berria.info](http://www.Berria.info).

*Patxi Juaristi*

**PEDRO SAN ELIASENA DOHATSUA**  
(Pedro Eriz Egiluz 1867-1936)



Kristauen artean martiriak beti izan dira miretsiak. Esteban diakono santuaren martiritza da haien zerrendan lehenengoa. Apostoluen Eginak liburuak kontatzen digu, Saulo judu gazte gartsua eta orduan kristauen etsai eta hiltzaileen lagun zela gertaturikoa. Geroago, Erromako kristauak datozkigu gogora, jazarpen izugarri haietan katakonbetan ezkutatu eta bizi berriaren sortzaile izan ziren haiek. Kristoren erlijio hasi berria hantxe bildu, indartu eta loratu zen, haren lekuko izateko, doktrinaz, bizitzaz eta heriotzaz. Hain zuzen ere, martiri hitzak *lekukoa*, *testigua* esan nahi du. Martiri haien artean, kasu hunkigarriak dira, neska-mutil gazte-gazteak, ia haurrak, gorputz

ahul eta samurrekoak, Espirituaren gar eta ausardia miresgarriaz, oinazerik ankerrenei aurre egiten, barruko altxorra, fedea, gordetzearren. Badakigu garai guztietan izan direna martiriak; buruak, adimenak, arrazoiak eta fedeak hala esaten digute; baina urruntasunaren galbahetik igaroz iritsi zaizkigun haiek, beraiazko liluraz eta heroi-aireaz ageri dira gure oroimenean.

Zer esan gerra zibileko martiriez? Hor, kasu batzuetan, sentimenduak garrasi egiten du, kontrako bandokoak martiri eta dohatsu izendatzea besteentzat mingarri, iraingarri gertatuko balitz bezala. Hainbatek, baita kristau zintzoek ere, bekokia zimurtuko zuten hori dela-eta. Gerrateko frontean jardun zuten gehienak honezkero joanak izan arren, haien seme-alabak bizi dira eta orduko zauriak ez dira oraindik itxi; odoletan daude. Are gehiago: bidezko gobernu errepublikarraren aurkako altxamenduaren buruak –Franco Jeneralak– diktadura latza ezarri zuen galtzaileen gain. Gorputz eta arima suntsitu nahi izan zituen, kultura-adierazpenak, hizkuntza eta identitate-marka zirenak ezabatu. Kartzela eta erbestea izan ziren haietako askoren zoria eta gainerakoek ere beldurpean bizi beharra izan zuten.

Aurreko lerro hauetan esanikoa ia ez zegoen esan beharrik ere, aski ezaguna baita, baina beatifikazio hauen ingurumarian batzuegan sortu den ondoeza eta eztabaida ulertzeko testuinguru gisa jarri dugu.

Dena dela, inork ez beza ikus lerro horietan martiri eta dohatsu berrien aurkako zantzurik. 2013ko urriaren 13an Tarragonan martiri eta dohatsu izendatuak izan direnak ongi merezia zuten Elizaren eta kristauen aitortpena. Hauek ez ziren erori frontean, ez zuten armarik erabili; erlijiosoak zirelako besterik gabe hil zituzten, monasterio, komentu eta erakunde erlijiosoen etxeetan sartu eta multzoka sarraskiak eraginik batzuetan, eta lehen unean atxilotuta eraman eta ondoren heriotza emanik beste batzuetan.

A. Agustin Borrell Kataluniako Karmeldarren Probintzialaren hitzak jarriko ditut euskarara itzulirik: “Bakoitza inguruabar

desberdinetan, baina guztiak atxilotu zituzten erlijioso izateagatik besterik gabe, eta guztiek erantzun zioten sendotasun harri-garriaz heriotza-mehatxuari. Zer egiten zuten ongi jakinik eman zuten bizia Kristogatik”.

Hilak izan zirenek gorrotorik gabe, barkatuz eta bakez eskaini zuten bizia, Kristo lehen martiria imitatuz, beren ideal erlijiosoen alde. Beraz, gauza hau fedearen ikuspegitik begiratzera behartuak daude Kristoren ikasleak, ez berezko sentimenduen eraginetik, are gutxiago gutarren eta etsaien arteko bereizketaren ikuspegitik. Idazlan honen amaieran berriro ere joko dut hona, baina noan orain izenburuaren harira.

### **Aramaioko Karmeldar bat Tarragonako martirien artean<sup>1</sup>**

Bai, 2013ko urriaren 13an dohatsu izendatuak izan ziren gerra zibileko bostehunetik gora martirien artean A. Pedro San Eliasena (Pedro Eriz Egiluz) dago, Euskal Herriko eta Nafarroako San Joakim gure Probintziako semea, 1909. urteaz geroztik Kataluniako Karmeldarren Probintziakoa izan bazen ere.

Aramaio udalerriko Barajuen elizateko semea zen. Menditxo baten lepoan kokatua dago, erreka batek Barajuen eta Untzilla bereizten dituela. Erreka horren ertzean eraiki zen *Bolinburu* errota eta ola, Aramaioko Kondearena zena, eta haien ondoan, izen bereko baserria, aramaioarrek, bokalen disimilazioa eginez, *Bolinburu* esaten diotena. Hauxe da Pedro San Elias Dohatsuaren jaiotetxea.

Barajuengo parrokiako Bataio-liburuaren zerrendan –gaur egun Ibarako San Martin parrokiako Artxiboan gordetzen denean– aurkitzen ditugu Pedro Eriz Egiluz eta Paskasio beronen anaia bikiaren bataio-agiriak. Euskarara itzulirik, honela dio agiriak:

---

<sup>1</sup> Oharra: Idazlan hau osatzeko, gehienbat A. Antonio Unzueta aramaioar eta Karmeldarren probintziako artxibozainak eginiko idazki bat erabili dut. Eskerrak berari

*Pedro eta Paskasio Eriz eta Egiluz. Bikiak.*

*Mila zortziehun eta hirurogeita zazpiko otsailaren hogeita  
bian, nik, Frantzisko Bengoa jaunak, Gasteizko Elizbarrutiko  
eta Arabako Probintziakoa den Aramaio haraneko Barajuengo  
Andre Mariaren Jasokundeko Apaiz Zerbitzaria naizen honek,  
ospe handiz bataiatu nuen haur bat, eta emaginak era balioz-  
koan, heriotza-arriskuan zegoelako, bataiatu zuen bestearen  
zeremoniak osatu nituen; bikiak dira; izen hauek jarri nizkien:  
lehenengoari Pedro eta bigarrenari Paskasio; emaginak adiera-  
zi zuenez, egun berean jaio ziren, arratsaldeko ordu bietan;  
Domingo Eriz jaunaren eta Klara Egiluz andrearen legezko se-  
meak; gurasoak Garagartzako seme-alabak biak, ogibidez ne-  
kazariak, eta Barajuen honetako bizilagun eta eliztarrak. Aita-  
ren aldetiko aita-amaandreak Domingo Eriz jauna Santa  
Agedako semea eta Maria Santos Aristegi andrea Bolibarko ala-  
ba; eta Amaren aldetikoak, Antonio Egiluz jauna aipaturiko  
Santa Agedako semea eta Joakina Altuna andrea Arrasateko  
alaba. Bi bikien aita-amabitxiak, Anjel Eriz jauna, ezkondua,  
nekazaria, eta Barajuen honetako semea, eta beronen emazte  
Balbina Irure, aipaturiko Santa Agedako alaba; hauei azaldu  
nien egintza horren bidez hartzen zuten abaidetasun espi-  
rituala. Lekukoak hauek izan ziren: Frantzisko Zelaia jauna,  
ezkondua, hargin maisua, eta Ibarrako San Martineko semea,  
eta Bartolome Zubizarreta jauna, ezkongabea, nekazaria, eta  
Azkoagako semea. Eta hala ager dadin, idatzi eta balioztatu  
nuen agiri hau Parrokia honetako Bataio-liburuan ...data-  
egunean = balio beza. Frantzisko Bengoa.*

Bataio-agiri honek gure Dohatsuaren familiaz hainbat gauza jakiteko bidean jartzen gaitu. Gurasoak Arrasateko auzoa den Garagartzakoak ziren. Domingo 1834ko martxoaren 6an jaioa, Garagartzako Parrokiako Bataio-liburuan ikus daitekeenez; Klara, berriz, 1829ko abuztuaren 19an jaioa; beraz, bere senarra baino 5 urte zaharragoa. Dirudenez, senar-emazteak laster aldatu ziren Barajuengo *Bolunburu* baserrira, seme nagusia, Lorenzo Eriz Egiluz, han jaio baitzen. Guztira zazpi neba-arre-

ba izan ziren: zaharrena, aipaturiko Lorenzo, 1858ko abuztuaren 10ean jaio zen; bigarrena, Josepa Luisa, 1861eko abuztuaren 25ean; hirugarrena, Anjel, 1864ko martxoaren 1ean; laugarrena eta bosgarrena batera datoz, gure Pedro eta Paskasio bikiak dira, bataio-agirian agertu dugunez, 1867ko otsailaren 22an jaioak; seigarrena Jose Gregorio da, 1869ko abenduaren 24an jaioa; zazpigarrena, azkenik, Maria Antonia Damiana, 1873ko uztailaren 27an jaioa. 5 gizonezko eta 2 andrazko. Jose Gregorio urte bat ere bete gabe hil zen.

Haurtzaroko lehenengo urteak etxean eta inguruan igaro ondoren, Pedro eta Paskasio bikiak eskolara hasi ziren. Garai hartan bi eskola zeuden Aramaio haranean: bata haraneko elizate nagusian, Ibarra, eta bestea, Untzillan. Askoz ere hurbilago zegoelako, Pedro eta Paskasioren gurasoek Untzillakoa hautatuko zutela uste da. Han lehenengo gauzatxoak eta gaztelania pixka bat ikasiko zuten, haien ama-hizkuntza euskara baitzen.

A. Alejo Karmengo Amarenak, A. Pedro San Eliasena gure Dohatsuarekin Arizonan eta Tarragonan bizi izan zenak, honen biografiaz zenbait argibide ematen dizkigu “Nuestros mártires” izeneko liburuan. Hor dio, oso gaztea zela, Arabako herri batera bidalia izan zela gaztelania ikas zezan, hainbat mutiko euskaldunek egiten zuten bezala, apaizen batengandik gaztelaniazko gramatika-eskolak jasoz. Bada hor zehar beste ohar biografiko bat ere, Pedrok oso gazterik Somorrostroko meatzetan lan egin zuela dioena. Badu honek egiantzik, garai hartan Aramaio mutik gazte asko Bizkaiko meatze haietara joaten zirena gauza ezaguna baita. Kontua da, hogeitaz gutxiago, soldadutza egin behar izan zuela, ziur asko Madrilan, Larreako Prioreak eskaturiko portaera onaren agiria han baitago sinatua.

Larreako nobizio-etxean sartu eta abitua hartu zuen 1889ko uztailaren 13an. Paskasio anaia bikiak bi urte lehenago hartu zuen, 1887ko uztailaren 13an.

Ez dakigu zer prestaera izango zuen koruko erlijioso gisa sartzeko, argi baitago herriko eskola batean eman zitekeen for-

mazioa baino sakonagoa behar zela, batez ere euskal hiztun batentzat gaztelaniazko gramatika eta hizkuntzaren ezagutza aldetik, eta apaiz-ikasketak hasi ahal izateko latina ere nolabait mende izan beharko zela. A. Alejok esan digu, Arabako herri batera bidali zutela apaiz batekin gaztelaniazko gramatika eta hizkuntzazko eskolak jaso zitzaizkion. Latinezko eskolak Aramaioan apaizen batengandik jasoko zituela uste da.

Abitua hartzean Pedro San Eliasena izena hartu zuen. Bere nobizio lagunaren artean badira batzuk gerora nahiko ezagun eta aipagarriak izango zirenak, esaterako, Frai Marcelo Jesus Haurrarena (Ibañez), Burgosko San Joan Gurutzeko Probintziako lehenengo Probintziala izango zena, eta Frai Luis Karmengo Amarena (Aizpuru), gure Ordena Kolonbian sartu zuena. Nobizio-urtea amaiztean, profesia egin zuen 1890eko uztailaren 18an, A. Segundo San Joseren Priorearen eskuetan. 23 urte zituen.

Konstituzioek nobizio-eran bigarren urte bat agintzen dute, ahal izanez gero, nobizio-etxean bertan barik beste etxe batean egin behar dena. Markinako komentua zen horretarako izendatua. Anaia Pedrok, beste 22 profesia berrirekin batera egin zuen bigarren urte hori, eta latinaren ezagutza hobetuz batera, hasi berri zen karmeldar bizitzan aurrera egingo zuen, Santa Teresa Jesusenaren eta San Joan Gurutzekoren idazlanak irakurriz eta barneratuz.

1891ko uztailan Burgosen da, Paskasio bere anaia bikiarekin eta beste 37 ikaskiderekina batera Filosofia ikasketak hasteko. Bi urteko ikasketak dira (1891-1892, 1892-1893) eta lau urtekoak Teologian (1893-1894, 1894-1895, 1895-1896, 1896-1897). Gasteizko Karmeldarren Probintziako Artxiboan gordetzen den *Liber Studentium* izenekoan ikus daitekeenez, urte hauetan guztietan onarpena jaso zuten bi anaia bikiak eta ikaskiderik gehienek *tum quoad mores tum quoad scientiam*, hau da, bai portaerari dagokionez eta bai jakintzari dagokionez; Teologiako azken urtean, ordea, bost ikaslek huts egin zuten *quoad mores* eta bederatzi ikaslek *quoad scientiam*...

Filosofiako ikasliburua Antonio Goudin domingotar franziarrarena zen; Teologiako ikasliburu nagusia, berriz, San Tomasen *Summa Theologica*. Izan ere, Ordenak bere maisutzat zuen eta “Preceptor Ordinis” deitzen zion. Ikertu beharrekoak berriagoak zirenean, ikasleek Puig-Xarrié-ren *Institutiones theologicae* izaten zuten eskura, eta Eskritura Santurako, Janssens-en *Hermaneutica Sacra*.

Burgosen egin zuen gure Pedro San Eliasenak Profesa Nagusia 1893ko uztailaren 20an, eta bere garaian Burgosen bertan ordena sakratuak hartuz joan zen: 1896ko abuztuaren 22 eta 23an Tontsura, Ordena Txikiak eta Subdiakonotza; 1897ko abuztuaren 8an Diakonotza eta urte bereko abenduaren 18an hartu zuen Apaizgintza Saturnino Fernández Castoren esku-ertzaz. Une hartan 30 urte beteak zituen.

Ez digu utzi inolako oharrik une garrantzitsu horietan izan zituen sentimenduez. Hala ere, bere jaioterriko parrokian Meza Berria emateko ohiturari ez zion uko egin. Paskasio anaia bi-kiak ere gauza bera egin zuen Indiarantz abiatu aurretik.

## Herrerako Basamortuan

Kanpokoei begira, Karmeldarren artean Basamortua zer den pixka bat argitzea komeni da. Jendea bizi den lekuetatik urruti, bakardadean den monasterio bati deitzen zaio; han bizi diren erlijiosoak, biziera latzean, erabat kontenplazio-bizitzari emanak daude, kanpoko zerbitzu pastoralik egin gabe. 1835eko klaustrotik kanporatzera arte Probintzia erlijioso bakoitzak bere Basamortua izan zuen. Nafarroako San Joakim Probintziak Sestaoko lurretan zuen berea, Islako San Jose zeritzana.

Probintzia berrezarria izan zenean, beharrezko ikastetxeak atondu ondoren, guztiaren osagarri bezala, Basamortua behar zen. A. Segundo San Joserena (Oiarzabal) eta A. Joan Bizente Jesus Mariarena (Zengotitabengoa) izendatu zituen Kapituluak, fundazio berriak egiteko tokiak azter zituzten. Basamorturako, Herrerako monasterio zaharra, erortzeko zorian zegoena, jo zu-



ten begiz. Toloño mendikateko haran itxi batean dago, lehenago Zistertarrena izana. Dohaintza bati esker haren jabe eginik, lehenengo karmeldarrak joan ziren hara (Aita karmeldar bat eta hiru Anaia ez-mezako). 1896ko urriaren 19a zen. Anaia Rufo tratatzailea zen eta hark egingo zituen beharrezko konponketak. Markinaraino joan behar izan zuen hargintzan egiteko langile bila, bertakoek ez zutelako lanik egin nahi. 1897ko martxoaren 19rako guztia zegoen prest inauguraziorako; Ordenako Konstituzioen arabera eremutar bitzta egiteko eran atondurik zen.

A. Ezekiel Jesusen Bihotzarena hautatu zuen Probintzial kargurako 1897ko maiatzaren lehenengo egunetan egin zen Kapituluak eta honek priore-etxe izendatu zuen Herrerako fundazioa. Priore-etxe izateko jakineko erlijioso-kopuru bat izan behar zuen. A. Paulo Santa Teresarena (Uriarte) Herrerako monasterio honetara erretiratu zen, Probintzial kargua utzi berri. A. Probintzialak kopurua osatzeko gure A. Pedro San Eliasena bidali zuen. Mirandan hartu zuen Zaragozarantz zihoan tren eta San Felices-ko geltokian jaitsi zen. Handik bidezidor bihurri batean zehar gorantz jo zuen eta lau bat kilometro egin ondoren iritsi zen monasterio zaharrera. Han biziko zen bi urtean, A. Probintzialak beste komentu baterako izendatu zuen arte.

## **Mexikora bidean**

Mexikoko San Alberto Erdi-Probintzia egoera txarrean zen. 1899ko apirilaren 12an A. Rafael Checa Erdi-Probintziako Bikario Probintzialak eta A. Fernando Sortzez Garbiarena Gaztelako Probintzialak hitzarmena sinatu zuten, eta horren bidez, Gaztela eta Nafarroako Probintzien gain utzi zen Mexikoko San Alberto Probintzia berreraikitzeke konpromisoa. Gaztelak bere aldetik bi erlijioso bidali zituen Mexikora. Nafarroako Probintzialak, A. Ezekielek, hiru hautatu zituen hara joateko: A. Liberato Sakramentu Santuarena (Errarte), A. Justino Santa Teresarena (Egileta) eta A. Pedro San Eliasena (Eriz). 1899ko abenduaren 9an iritsi ziren Veracruz-era eta biharamunean hiriburura. A. Checa Bikario Probintzialak hiriaren erdian zegoen

**Carmen** etxera bidali zituen. Klaustrotik kanporaturiko espainiar bat, A. Joakim Ruiseco izenekoa, zen hango nagusia. Harekin zeuden bi fraide mexikar.

Elizara jende asko etortzen zen eta aitorlekuko zeregina arreta handiz betetzen zuten. Hemendik joan zirenak herriaren aldetik ongi hartuak izan ziren eta eskari ugari izaten zituzten beste eliza batzuetatik predikuak egitera joateko.

Baina laster ohartu ziren, erlijioso-bizitza egiteko han zeuden zailtasun ia gaindiezinez. Erdi-Probintziako Bikarioaren helburua, Ordenaren antzinako eliza eta komentuei nola hala eustea zen. Eliza eta komentu bakoitzean erlijioso bat edo bi zeuden eta apaiz diozesiar bezala bizi ziren. Fraide-bizitarik eta lege-betetzirik ez zen nabari inondik; bakoitza bere erara, ahal zuen bezala bizi zela zirudien. A. Liberato, A. Justino eta A. Pedro, Orduen Liturgia errezatzeko eta otoitz egiteko elkartzen ziren tokiren batean. Baina giro negargarria zen, erlijioso-bizitzari zegokionez. A. Pedrok eta beste batzuek ere premia-premiazkoa ikusten zuten horri erremedioa jartzea.

Batzar Nagusia egin zen. A. Pedrok A. Checari proposatu zion hango karmeldar guztien (mexikarren eta espainiarren) Batzar Nagusia egiteko **San Angel** komentuan. Bikarioak proposamena onarturik, halaxe egin zen 1901eko urriaren 21 eta 22an. Hemendik joanak zirenek Mexikoko Erdi-Probintziaren alde ahal zuten guztia egiteko jarrera erakutsi zuten. Mexikarrek nobizio-etxea **San Angel** komentuan ezartzea proposatu zuten eta gure A. Pedro izendatu Nobizioen Maisu. Bi izendapen horiek Kontseilu Jeneralak berretsi zituen 1902ko urtarrilaren 3ko dataz.

Dena dela, lege-betetzea berrezartzeaz hitz egin zenean, mexikarrak ez zetozen bat, eta komunitate bakoitzak erlijioso-bizitza bere erara antola zezala eskatu zuten.

Fundazio berriak egiteaz ere hitz egin zen. Erradikalenak ezetzean zeuden, hemendik joanikoei eta espainiarrei bidea ix-

tearren. Modutsuenak bat zetozen, A. Bikario Probintzialaren obedienciazaren pean egitekotan.

### **Durangoko (Mexiko) fundazioa**

Ordurako A. Pedro Mexikon Nafarroako erlijiosoekin soilik fundazio berri bat egitekotan zen. Nafarroako bere Probintzialari agertu zion asmoa eta honi ez zitzaion gaizki iruditu. Hau 1901eko hasieretan izan zen.

Durangoko familia nagusietakoek Moja Karmeldar Oinutsen antzinako komunitatea berrezarri nahi izan zutenean izan zen aukera ona. Izan ere, Ama Magdalena Jesus Haurrarenak, fundatzailea izango zenak, baldintza jarri zuen hemendik joaniko Aita Karmeldarrek ere bertan funda zezatela, beren ondoan aitor-entzule eta aholkulari gisa izateko. Artzapezpikuak, Santiago Zubiriak, hasieran ezezkoan egon arren, baimena eman zien mojei fundaziorako.

A. Pedrok, Cerradako Moja Karmeldarren aitor-entzulea zenak, abagune ona ikusi zuen bere asmoak aurrera eramateko eta Durangorantz abiatu zen. Hamabost egunen buruan bi fundazioei zegokien guztia bideratu ahal izan zuen, fraideen fundaziori Gotzaindegiko Kapitulutik kontra egin bazitzaion ere.

Artzapezpikuak San Migel eliza eman zien fraide karmeldarrei; eliza txikia eta pobrea zen, baina herrian oso maitatua, hiriko zaharrenetakoa zelako. Azkenik, fundazio kanonikoa izateko Erromako Erlijiosoen Kongregazioaren eta Ordenako Kontseilu Jeneralaren baimenak lortu ondoren, gauzak ongi bideratuak zeuden.

Hiriburura itzuli zen A. Pedro eta abenduaren hasieran Veracruz-era joan zen hemendik zihoazen fraideak hartzera. A. Basilio Jasokundekoa (Delgado), Simon Jesusena (Urkiza), Ziriako Espiritu Santuarena (Magunazelaia) eta Anaia Eugenio ziren, Nafarroako San Joakim Probintziatik zetozenak Duran-

goko fundaziorako. A. Rafael Checa Bikarioak A. Basilio izendatu zuen Durangoko nagusi eta A. Simon administrari.

1902ko urtarrilaren 1ean A. Basilio, A. Simon eta A. Pedro Durangora joan ziren bost moja fundatzaileekin, eta egun berean, arratsaldeko seietan Moja Karmeldarren monasterioa Elizaren legeen arabera ezarria geratu zen. Bien bitartean, fraide karmeldarrei Seminarioan eman zieten ostatua, elizaren ondoko etxetxo atontzen zen bitartean. Bi hilabeteren buruan prest zegoen guztia eta etxe-sartzea egin zuten. A. Pedro Mexiko hiriburura itzuli zen. 1902ko ekainaren 8an iritsi zen Veracruz-era A. Gabriel Deikundekoa (Garai-Iurrebaso). A. Pedron eskariz, A. Checa Bikarioak Durangora bidali zuen, eta komunitateak laguntza ederra izan zuen berarekin.

### **Mexikoko Karmeldar guztien Bisitari Jenerala**

Ordenarenak ziren zenbait eliza berreskuratu eta karmeldar bititza berrezarri beharra ikusi zuen A. Pedrok, eta Ordenako Jeneralari, A. Rainaldo San Justorenari, egoeraren berri eman ez eta Bisitari Jeneral bat bidal dezala proposatuz, idaztea bururatu zitzaion. A. Jeneralak ez bakarrik onartu zuen proposamena, baita Bisitari Jenerala izendatu ere; nor eta A. Pedro bera. Beraz, egiteko latza leporatu zion, mexikarrek hemengo nahiz espainiarra zen guztiaren aurka zuten kontrakotasunagatik eta baita hemengo nahiz espainiar bat edo beste (A. Justino eta A. Eladio) kontra zituelako ere. Berak bazekien hori, eta ohar batzuetan hau gaineratzen du: “Baina hainbeste gaitzi erremedioa jartzearen, onartu zuela”.

Idazkari A. Damian Jesus Maria eta Joserena (Arrien) hartu zuen. Bisitak ez zuen ondorio onik izan, goian aipaturiko mexikarren kontrakotasunagatik. A. Checa, Bikario Probintziarra, zen bisitaren aurka zeuden mexikarren buru. Puebla de los Ángeles-ra hango komunitateari bisita egitera joan zenean, atek itxita aurkitu zituen eta, arratsaldeko bost eta erdiak izan arren, atek irekitzeko berandu zela esan zioten barrutik. Do-

mingotarren komentuan eskatu behar izan zuten ostatua berak eta bere idazkariak... Gertakari desatsegin hau gorabehera, jarraitu egin zuen gainerako komunitateetan bisita egiten, inork pentsa ez zezan, hori dela-eta beldurtu eta atzera egin zuela.

Dena dela, egoera honen aurrean, A. Pedro harremanetan jarri zen Erromako Kuriarekin eta Jeneralari eskatu zion agintea zuen beste bat, espainiarra ez zena, bidal zezala bisita egitera. 1903ko apirilean, A. Jeneralak A. Gregorio San Joserena (Martineau) frantziarra eta Kontseilari Jenerala bidali zuen. Maiatzaren 6an iritsi zen Mexikora eta, Erdi-Probintzian ordena pixka bat jartzeko asmoz, komentuak honela banatu zituen: Mexikoko Carmen, Orizaba eta Durango karmeldar espainiarren eskuetan jarri zituen; gainerakoak, berriz, mexikarren eskuetan; hauei nobizio-etxerik eraikitzeke debekua ezarri zien. Bisitaria laster itzuli zen Erromara, eta A. Pedrok kargu horrekin jarraitu zuen.

### **Jazarpen eta kanporatzeak**

Mexiko Errepublikan komunitate erlijiosoak toleratuak zeuden soilik, ez onartuak. Horregatik, kexa edo salaketa txiki bat nahiko zen aginte zibilak esku hartu eta haien komunitateak desegiteko. Hori gertatu zen Carmen komunitatean: Distrituko Epailera agertu zen goizeko zazpitan eta A. Pedrogatik galdetu. Hau ez zegoen etxean, Cerradako moja karmeldarrak aitortzen ari baitzen; An. Gillermo etxeari kargu egiten utzirik, A. Liberato eta A. Damian polizia-etxera eraman zituen eta handik Belengo kartzelara. A. Pedrok, etxeratzean, jakin zuen non zeuden bere anaiak eta, lau egunen buruan, lortu zuen libre utz zitzatela, baina bakoitzak ehun pesoko isuna ordaindu ondoren.

Zortzi egun geroago, Artzapezpikuak, Prospero Maria Alarcón-ek, deitu zion A. Pedrori Gobernuako Ministroaren idazki ofizial bat erakusteko; horren arabera, ez komentuak eta ez elizak ez zuen egon behar Karmeldarren esku, eta apaiz diozesiar baten esku utzi behar zituzten. A. Pedrok ahaleginak egin

zituen agindu hori saihestu ahal izateko, agintariengan eragina izan zezakeenagana joz, baina alferrik izan zen. A. Checa egongo zela honen guztionen atzean uste zuten haiek. Jose Maria Olivaresen esku utzi zituzten etxea eta eliza, hura baitzen Artzapezpikuak bidali zuena. Kanporaturiko fraideak familia batzuetan hartu zituzten. Artzapezpikuak kapera bat eta behin-behineko etxe bat eman zizkien Pachuca hirian, hiriburutik hurbil zen 40.000 biztanleko hirian. Ez zuten luze iraun han, behin betiko egoitzarako baldintzarik ez zuelako.

A. Pedrok fundazio bat egiteko leku bila jardun zuen, baina ez zuen aurkitu bere gogokorik.

Mexiko hiriburura itzulirik, 62 orrialdeko idazki bat idatzi zuen Mexikoko San Alberto Erdi-Probintziari buruz. Izenburu hau du: *Breves pero exactos apuntes de los acontecimientos que tuvieron lugar en la Antigua Provincia de S. Alberto de México, desde la exclaustación de los religiosos hasta estos días del año 1904*. A. Ezekiel Jesusen Bihotzenari, garai hartan Kontseilari Jenerala zenari, zuzendua dago, eta Gasteizen gordetzen da, Nafarroako Karmeldarren Probintziako Artxiboan, "Mexiko" karpetan.

1905eko urtarrilaren 11n A. Pedrok, oraindik Bisitari Jenerala izaten jarraitzen baitzuen, Orizabako karmeldarren komunitatea bisitatu zuen. Gaztelako Probintziako bi erlijioso zeuden han.

Otsailaren 28an Durangon dago. Komunitate hau Nafarroako Probintziako erlijiosoz osatua da.

### **Kalifornian fundatzeko ahalegina**

Maiatzaren hasieran A. Pedro hiriburura itzuli zen. Kalifornian fundazio bat egiteak izan zitezkeen alde onen berri jakin ahal izan zuen eta harantz joatekotan zen, lekuan bertan horretarako aukerak aztertzeke. A. Ezekieli idatziriko gutun batean esaldi hau itzurtzen zaio, Mexikoko behe-mailako jendeaz zuen iritzi eskasa erakusten duena. Ez deritzo ongi Erromak

mexikarrei nobizio-etxea irekitzeko baimena emateari, “porque admitirían gente del pueblo bajo como son ellos la mayor parte y a esa gente no se puede educar” (1905-05-02).

Egunean baino egunean gehiago sinesten du Kaliforniako San Frantziskon fundatzeko egokitasunaz eta ia beharraz. Baina A. Ezekieli idazten dion hurrengo gutuna Kaliforniako Los Ángelesen sinatua da, eta hiri hau San Frantzisko baino ego-kiagoa iruditzen zaio, klima hobea duelako. Gotzain jaunak frantziskotarren antzinako misio-toki bat eskaintzen dio, etxe handi bat eta inguruan lursail zabala zuena eta trenez hiritik ordubetera zegoena. Baina Gotzainaren asmoa batez ere elizbarruti osoan gaztelaniaz egiten zuen jendearentzat misioak eman ditzatela zen. Hiriak 200.000 biztanle inguru ditu eta horietatik 40.000 edo katolikoak dira, pixka bat bertan behera utzirik daudenak, gaztelaniaz nork aitorturik eta nork predikuak eginik ez dutelako.

### **Amerikako lurraldeak Espainiako Probintzia karmeldarren artean banatzea**

Mexikora itzuli zenean A. Ezkielen gutuna jaso zuen. Hor jakinarazten zaio 1905eko ekainaren 30eko Kontseilu Jeneralaren erabakia: Amerikako lurraldeak nola geratzen ziren banatuak Espainiako Probintzia karmeldarren artean; Kubako komentu guztiak Gaztelako Probintziari uzten zaizkio; Argentinakoak Andaluziako Erdi-Probintziari; Txile, Bolibia eta Peru Nafarroako Probintziari; eta Mexikokoak (Orizaba, Aguascalientes, Durango, Silao, Mazatlán eta Kaliforniako San Frantzisko Aragoi-Valentziako Probintziari. Komentu horietan bizi diren erlijiosoak, jatorriz beste Probintzia batekoak izan arren, banaketa horren arabera, Probintzia batekoak edo bestekoak izango dira aurrerantzean. Beraz, A. Pedro Aragoi-Valentziako Probintziakoa izango da. Nafarroako Probintzia maite-maite izan arren, poz-pozik jarriko zen Aragoi-Valentziako nagusien

esanera. Poz-pezik batez ere kargurik gabe izango zela uste zuelako. Baina usteak hemen ere erdi ustel.

Aurretik hiru fundazio berri egiteko aukerak sortu ziren: Mazatlán, Pachuca eta Quintana Ró. Lehenengo biak gauzatu ahal izan ziren: Mazatlán (194-11-01), Pachuca (1907-07-04). Quintana Ró-ko fundaziorako egitasmoa Kontseilu Jeneralak onartu bazuen ere, hurrengo Kapitulu Jeneralean aurkeztu zitzaizen egitasmoa Espainiako Probintzialesi, baina haietako inork ez zuen hartu nahi izan bere gain eta horrela geratu zen.

### **Kataluniako Probintziara aldatzen da**

A. Valentin Jasokundekoak (Zubizarreta) Aragoi-Valentziara eginiko Bisita Jeneralaren eta hango azken informearen ondoren, Kontseilu Jeneralak zatitu egin zuen Probintzia 1906an eta Kataluniako Erdi-Probintzia sortu. Beraz, bi Probintzien artean banatu behar ziren Mexikoko etxeak ere.

A. Ezekielek egin zuen hori, Ordenako Jeneral zela, Espainiako Probintziei bisita egin zienean. Desierto de Las Palmas-en zegoela, 1909ko abenduaren 18an sinatu zuen Mexikoko lurraldeak antzinako San Alberto Probintziaren, Aragoi-Valentzia Probintziaren eta Kataluniako Erdi-Probintziaren artean banatzen zituen dekretua.

Kataluniako Erdi-Probintziari ezarri zitzaizkion Sonorako Estatuak, Chihuahua, Sinaloa, Jalisco, Durango, Tepic lurraldea, Colima, Michoacam, Oajaca eta Chiapas. Horrela, Kataluniako Erdi-Probintzia bi komentu hauekin geratuko zen: Durango eta Mazatlán (Sinaloa) komentuekin, eta geroago (1925), San Albertoko erlijiosoek hala nahi izanik, Morelia-ko komentua gehituko zitzaion.

A. Pedrok eta jatorriz Nafarroako Probintziakoak zirenak, inongo zalantzarik gabe, Kataluniako Erdi-Probintziako komentuetan geratzea hautatu zuten. 1920ko Kapitulu Jeneralean eman zitzaion Kataluniako Erdi-Probintziari Probintzia maila.



## Arizonako fundazioa Estatu Batuetan

A. Pedro nagusi eta parroko zegoen Mazatlán-en, A. Lukas San Joserenak, Kataluniako Bikario Probintzialak, Mexikoko etxeetara bisita egiten ari zela esan zionean: Estatu Batuetara joan zedila, han erlijiosoentzat egoitza bat egiteko erarik ote zen ikusteko, badaezpada, Mexikotik irten beharrik bazen, egotziak izateko arriskua sumatzen baitzen.

A. Pedrok aspaldiko ametsa, Kaliforniara eginiko bidaietan gauzatu nahi izan zuena, egia bihurtzeko abagunea ikusi zuen. Tucson-eko (Arizona) elizbarrutira jo zuen Mazatlán-en ezagutu zuen apaiz baten bidez. Virgilio Genevrievue zeritzan. Honek On Enrike Granjón Gotzainarengana eraman zuen. Lehenengo harremanak honekin pixka bat hotzak izan ziren; gero ere ez zion itxaropen handirik piztu, baina, gutxienez, beste gotzain batzuegana bideratu zuen. Haietako batzuei idatzi zien, bere asmoak adieraziz. Erantzuna iristen zen bitartean, Kaliforniako San Frantziskora joan zen. Handik A. Ezekieli idatzi zion, eta hiri horretako Moja Karmeldarrek Fraideen Egoitza bat han eraiki zedila nahi zutela adierazi; Artzapezpikuaren erabakia ere adierazten zion: ingelesa ongi ez zekiten erlijiosoei ez zietela utziko hango kaperarik. Une hartan Erroman zegoen Artzapezpikuarekin hitz egin zezala eskatzen zion, bide batez: “Uste dut ez dela damutuko Berori, idazten zion, lurralde honetan Ordena zabaltzen saiatzeaz; alderantziz, poz handia izango duela heriotza orduan”.

Tucson-era itzuli zenean, Besbez-en gelditu zen A. Pedro eta herri honetako parrokoaren etxean hartu zuen ostatu, eza-guna baitzuen. Haren asmoa han gotzainen erantzunaren zain egotea zen, ingeles pixka bat ikasten zuen bitartean.

Hilabete eta erdi zeramatzan Bisbez herrian, Enrike Granjón gotzainaren gutuna jaso zuenean. Gutun horretan esaten zion, hitz egin nahi zuela berarekin bere elizbarrutian kaperaren bat emateaz. Gotzainak zurezko kapera txiki bat eskaintzen zion

Winkelman herrian, Florence-ko parrokian. Besterik gabe, hara joan eta bertan jarri zen bizitzen. Kaperak zuen sakristia txikian lo egiten zuen, hango fundazioak aurrera egin zezan, lazatasun hori eta antzekoak gogo onez eramanez. Arrazoiz esango zioten etxe hari, gero, *Estatu Batuetako Duruelo*, San Joan Gurutzekok egin zuen Karmeldar Oinutsen lehen fundazioaren antzekoa zelako. On Enrike Granjón gotzainak sinaturiko fundatzeko baimenak 1912ko otsailaren 6ko data du, eta agiri horretan seinalatzen dira karmeldarren kokaleku izan daitezkeen beste herri batzuk ere, horrela guztien artean parrokia bat osatuz. Bikario Probintzialari, A. Lukas San Joserenari, eman zion A. Pedrok honen guztionen berri. 1912ko urriaren 17an onartu zuen Kontseilu Jeneralak fundazioa parrokiak administratzeko baimenarekin.

Hilabete batzuk igaro ondoren, Granjón gotzainak Ray-Sonora-ko meatze-distritua eskaini zion gure karmeldarrei; izan ere, meatze-inguru horretan mila eta bostehun meatzari mexikar baino gehiago bizi ziren, laguntza erlijiosorik gabe eta erlijio-zereginak betetzeko kaperarik gabe. Distrituko ordezkariak Sonoran kapera eta etxea eraikitzeke baimena eman zion. Arizonako bigarren fundazioa izan zen. 1912ko ekainaren 22ko data du eta Santa Elenaren izeneko da. Meatzarien artean lan egiteko, A. Pedrok A. Alejo Karmengo Amarenaren (Coll eta Coll) eta Jose Maria Sortzez Garbiarenaren (Melé) laguntza izan zuen. 1913ko martxoaren 15ean Hayden-en (Arizona) fundatu zuen, San Joseren izena emanez.

Granjón gotzainak, 1913ko Garizuman, Morenciko meatze-distrituan misio bat predikatzeko eskatu zien karmeldarrei. A. Pedro eta A. Alejo izan ziren predikariak. Gotzainari gogoko izan zitzaion haiek emaniko misioa eta leku hartako kapera eta etxea eskaini zizkien. A. Alejo izango zen bietako arduraduna. Atentatu bana izan zituen lehenengo berak eta gero kaperak, aurrez han izan zen apaiz frantziarraren aldekoek ez baitzuten ongi hartu. 1913ko urrian A. Pedro eta honen anaia Paskasio

Morencira joan ziren, A. Alejori kapera berreraikitzen laguntzeko. Ekainean Bikario Probintzialak bedeinkatu zuen kapera berriua, A. Pedro, A. Paskasio eta A. Alejo lagun zituela.

Arizonan zabalduz eta indartuz zihoan Karmeldarren Ordena. Horretarako, hainbat arrazoi zeuden. Haietako bat eta, beharbada, garrantzitsuena, A. Pedro eta honen lagunen misio-garra izan daiteke; beste bat, On Enrike Granjón gotzaina oso aldeko izatea; pastoral eta misio-lanerako lagun gehiago izatea; eta azkenik, Mexikon zegoen erlijioso kanpotarren aurkako jazarpenak erlijioso asko Estatu Batuetan biltzea eragin zuen. 1919an Granjón gotzainak Karmeldarren Ordenari eman zion Tucson-en Santa Cruz parrokia, Prelatuak berak bere diruz eraiki zuena. Fundazio hau Arizona Estatuko fraide karmeldarren etxe nagusi bihurtuko zen eta Kataluniako Bikario Probintzialaren Amerikako ohiko egoitza.

XX. mendeko lehenengo laurdenean Euskal Herritik eta Espainiatik joaniko karmeldarrek hainbat eliza sortu eta gobernatu zituzten meatzari-giroko 22 toki baino gehiagotan, Arizona Estatu osoko parrokia eta ermitetan; helburua askotarikoa zen: alde batetik, beren eliztarren premia espiritualei erantzutea eta, bestetik, kultura bizkortzaile eta sozial aldetik erreferentzia izatea Estatu Batuetako mexikarren kolonietan.

### **Mexikoko Durangon berriro**

Durangon A. Simon Jesusena (Urkiza) hil zen, eta Florencen parroko eta Bikario Probintzial karguetan zen A. Pedrok hartu zuen haren lekua. Florencen A. Basilio Jasokundekoak beteko du haren egitekoa. Beraz, Mexikotik kanporatua izan arte, Durangon biziko da, baina Kataluniako Bikario Probintziala zenez gero, sarri bisitatzen zituen Arizonako etxeak.

*Ley Calles* izenekoa aldarrikatu zen Mexikon 1926ko ekainaren 14an. Lege horren indarrez, ordena eta kongregazio erlijioso guztiak debekatuak geratzen ziren. Monasterio eta komen-

tuak, eliza eta gotzain-egoitzak, parroki etxeak, seminario eta ikastetxe erlijiosoak Estatuaren ondare bihurtzen ziren. Atzerri-tarrek debekaturik zuten Apaiz katoliko zereginak betetzea. Horren aurka jaikitzen ausartzen zen edozein apaiz nahiz erlijioso, bost urteko kartzelara kondenatua izango zen.

1927an ez zen geratzen Mexikon Kataluniako Probintziako fraide bat bera ere. A. Liberatok, 1924rako lortua zuen Kataluniako eta Nafarroako Probintzialengandik bere jatorrizko Probintziara itzultzeko baimena.

A. Pedrok ere Mexikotik irten beharra izan zuen, baina Espainiara itzuli beharrean, Arizonara joan zen. Kaluniako Probintziako Kapituluak, beste gauza batzuen artean, Bikario Probintzialak Amerikan ezin zuela aldi berean parroko izan erabakienez gero, Nagusi izango da Tucsonen eta han biziko da 1928tik 1930eko lehenengo hilabeteetara arte.

### **Tarragonan, Nobizioen Maisu karguan**

1930eko maiatzaren lehenengo egunetan Kataluniako Probintziako Kapituluak egin zen Bartzelonan. A. Pedro San Eliasena, bertan ez zegoela, lehenengo Kontseilari Probintzial eta Tarragonako Nobizioen Maisu hautatu zuten. Hogeita hamar urte baino gehiago Mexikon eta Estatu Batuetan egin ondoren, Kataluniara itzuli zen.

Hiru urte geroago, 1933ko Kapituluak bi karguetan berretsi zuten. 1936. urtean ezingo zuten legez hautatu Kontseilari izateko; bai, ordea, Nobizioen Maisu izateko eta halaxe berretsi zuten kargu horretan. Kapitulu berean Washingtingo komentua Priore-etxe izatera jaso zuten eta haren anaia Paskasio hautatu zuten Prioreorde eta Nobizioen Maisu.

### **Martiritza**

1936ko uztailean gerra zibila piztu zenean eta Tarragonako komunitatera erlijioso eta apaizen aurkako jazarpenaz albiste la-

rriak iristen hasi zirenean, horretaz gutxien sinesten zuena A. Pedro izan zen, Mexikon horrelako altxamendu eta arriskuetatik onez iriteten ohitua baitzen. Baina laster ohartu zen hemengoak bestelakoa zela eta arriskua larri-larria zela. Priorea ez zen etxean eta berak hartu behar izan zituen zenbait erabaki. Lehenik nobizioak beren etxeetara bidali zituen eta komunitateko fraideei adiskideen etxeetan babeska bilatzeko aholkua eman zien.

Berak ere, beste bi erlijiosorekin batera, babes bila jo zuen leku batera eta bestera, baina toki haietakoak beldurrez ezin egonik jartzen zirela ikusirik, alde egin behar izan zuten behin eta berriro. A. Pedrok egun berean bost atetan jo zuen, baina inon ez zuten hartu nahi izan. Behin etxe baten atarian igaro behar izan zuen gaua; beste behin egun osoan baso bete esne baino besterik hartu gabe izan zen.

Azkenik, Antonia Rovira andrearen etxean lortu zuen aterpea, Rambla Vella kalean; han zeuden A. Elipio eta An. Damian ere. Beste hamar bat egun iraungo zuten han. Baina Frente Popularrekoek pregoi bat zabaldu zuten, etxean erlijioso edo apaizik zutenek hura edo haiek salatzerak behartuak zeudela adieraziz; bestela ondorioak izango zituztela. Etxeko seme bategi, beharbada beldurragatik, Generalitateko adiskide bati esan zion bere etxean hiru erlijioso zeudela. Kontua da, abuztuaren seian, hamabi eta erdietan, bi guardia agertu zirela etxe hartan eta, bazterrak ongi arakatu ondoren, hiru erlijiosoak atxiloturik eramanez zituztela. Arratsalde osoan eduki zituzten Gobernu Zibilean inork kasurik egin gabe eta, inolako epaiketarik gabe; “Rio Segre” itsasontzira eramanez zituzten gero, eta hemendik “Mahon” izeneko itsasontzira. Hiru hilabete eta bost eguneko gatibualdia, erlijiotasun, etsi on eta pazientziaren eredu izanez.

Antonia Rovira andrearen alabek eta Maria Corbellák eginalak egin zituzten arropa garbiak, janariak, mantak etab. eramanez eta ahal zuten guztian lagunduz.

A. Alejok bere kontaeran hau dio: “Itsasontzian haiekin egon zirenetako bati entzun nion, erlijiosoek beren buruak eskaini zituztela biktima izateko, familiako guraso ziren beste laiko batzuk salbatzearren”. Kontua da, azaroaren 11n gaueko orduetan atera zituztela itsasontzitik A. Pedro, A. Elipio eta An. Damian eta An. Zezilio (azken hau Aragoi-Valentziako Probin-tziakoa, Vinarozen atxilotu eta “Rio Segre” itsasontzira eraman zutena). Lau hauekin batera atera zituzten itsasontzitik Irakas-kuntzako Karmeldar Anaietako lau ere, Frantzisko Palau Dohatsuak fundaturiko Kongregazio batetik geratzen zirene-takoak. Auzoko Torredembarra herrira eraman zituzten eta hi-lerriko horma ondoan fusilatu zituzten eta hobi komun batean lurperatu. 1936ko azaroaren 11 zen.

Geroago A. Pedro, A. Elipio eta An. Damian eta An. Zezilioren gorpuk identifikatu, Tarragonako Karmeldar Oinutsen elizara eraman eta San Eliasen aldarearen azpiko aldean ezarri zituzten.

### **Beatifikazio-prozesua**

Elizbarruti mailako informazio Prozesua hasi zen, hau da, Dohatsu edo Martiri izendatzeko Prozesua 1952ko apirilaren 28an. Zazpi ziren prozesu horretan sartzen ziren karmeldar oi-nutsak, baina Tarragonako beste martiriak ere hartzen zituen. Zazpi karmeldarrez gainera, Tarragonako Gotzain Laguntzai-lea, Manuel Borrás, 68 apaiz diozesiar, Montserrateko 20 bene-ditar, Anaia Kaputxino bat, 7 Misiolari Klaretar, 39 Anaia Salle-tar eta Hirugarren Ordenako Irakaskuntzako 4 Anaia Karmel-dar. Guztiz: 147 martiri.

Prozesuak bere bidea jarraitu zuen: lehenik, Elizbarrutikoa; gero, Erromakoa, Santuen Kausetako Kongregazio Santukoa; eta azkenik, Santuen Kausako Kongregazioaren ondorioak az-tertuz, Aita Santuak ematen du bere onespena, dekretu baten bidez. Kasu honetan, Aita Santu Benedikto XVI.ak eman zuen 2012ko ekainaren 28an.

Espainiako Gotzain Batzarrak, bere aldetik, Beatifikaziorako lekua eta data finkatu zituen: Tarragonan 2013ko urriaren 13an. Aipaturiko 147 horien artean dago, esan dugunez, A. Pedro San Eliasena (Eriz Egiluz); Dohatsu izendatzeko kausak Espainiako beste elizbarruti batzuetan sarturikoak gehitu behar zaizkie hauei, eta horrela, 500 martiri baino gehiago dira guztiz, 1936ko gerra zibilarekin zerikusia duten gertakari tragikoetan hil zirenak.

### **Azken gogoetatxo**

Gerra honetan izugarrikeriak egin ziren bi aldeetan. Baina 500 martiri hauen bereizgarria, inongo alderdi politikori atxikia ez egotea izan zen eta, beraz, ez zuten borrokatu inoren aurka; hauek argi eta garbi fedearen aurkako gorrotoaren biktima izan ziren. Zergatik sortu dira, bada, mesfidantzak martiri eta dohatsu hauen inguruan? Zergatik kontrako ahots horiek komunikabideetan? Zergatik hainbeste eztabaida? Gerra Zibilak eta ondorengo diktadura latzak irekiriko zauriak oraindik itxi gabe daudelako eta beste bandokorik ez dagoelako martiri eta dohatsu berrien artean, nik uste. Beraz, daudenak badirela esan behar, baina ez daudela diren guztiak. Diren hauetako batzuk ez badaude, alde honetakoen beatifikazio-prozesurik ez delako egin izan daiteke.

Falta direnen hainbat izen datozkigu gogora. Ez dugu ziurtasunik, Elizak ez baitu ofizialki haietaz hitz egin, baina ezagutu zituztenengan berariazko oihartzuna eta santu hotsa utzi zuten. Esteban Urkiaga “Lauaxeta” bera, Kristo gurutziltzatuari olerkiak egiten, bake-bakean eta heriotza onartuz hil zena. Florentzio Markiegi (Polentzi) Debako alkatea izan zenaren biografia labur bat *Karmel* aldizkari honetan argitaratu genuen. Benetan hunkigarria eta eredugarria haren bizitza eta heriotza kristau-ikuspegitik.

Artibai ibarrean Jose Sagarna Larruskainen hil zuten apaiz gazteak ere oihartzun handi eta bikaina utzi zuen inguru hone-

tan. Familiako beste bi gurasoren lekukotasunak ezagutu izan ditut hur-hurretik, benetan harrigarriak: Bonifazio Egurrola Ziortza-Bolibarko Agarre baserrikoa bata eta Hilario Aretxabaleta Markina-Xemeingoa bestea. Bonifazio Egurrolak azken egunetan eta hil baino gutxi lehenago bere emazteari eginiko gutunak esku artean izatea egokitu zitzaidan. Hunkigarriak ziren. Tamalez, urte asko da ordurik hona eta, kopiak atera arren, honezkero galduak ditut. Hilario Aretxabaletaren azken uneko gutuntxoia eta emazteari emaniko azken aholkuak estanpatxo batean ditut, beraren alaba Jaione zenak emanda. Hona hitzez hitz lekukotasun hau:



CARCEL DE LARRINAGA

21-VII-37

*Mi cariñosísima esposa:*

*Dentro de breves momentos voy a dar cuenta de toda mi vida a Dios Nuestro Señor, y rogad por mi alma y no guardar rencor para nadie, y sí perdonar a todos, y todos los hijos que vayan a oír misa y comulgar para que mi estancia en el Purgatorio sea corta, y que todos ellos sean buenos y sigan aprendiendo la doctrina de Cristo.*

*Besos por última vez a los niños y te espero en la eternidad.*

*Rogad por mi alma.*

*Hilario Arechabaleta*

“DOY FE”

*Luis Baraiazarra Txertudi*



## FRANTZISKO AITA SANTUAREN ALKARRIZKETA

Peter Seewald kazetariak Benedikto XVI.ari egindako alkarrizketa oso entsutetsua eta egokia izan bazan bere pentsamentua eta espiritualitatea ezagutzeko, beste horrenbeste esan geinke “La Civiltá Cattolica”aldizkariaren zuzendariak, Frantzisko Aita Santuari egindako alkarrizketari buruz ere. Hizketaldia aberatsa eta interesgarria Bergoglio Aita Santuaren pentsamentua eta bihotz barnea ezagutzeko.

Alkarrizketa hau Europa eta Ameriketako jesuiten aldizkariaren zuzendariak Lisboan egindako bileran hartutako erabakia dogu. Besteak beste Razón y Fe, Mensajero eta Sal Terrae aldizkariaren zuzendariak. Galderak danen artean antolatu ondoren, Antonio Spadaro, La Civiltá Cattolicaren zuzendaria arduratuko da. Abuzuaren 19an, Aita Santuagaz aurkituko da galderak zuzenean egiteko.

Begiak zabaltzeko aukera asko emoten ditu alkarrizketa honek. Baina nire asmoa ez da galdera guztien erantzunen itzulpena egitea, neuri zirrara gehien eragindako erantzun batzuk azaltzea baino. Baita alkarrizketa eder hau irakurtzera gonbidatzea ere bada nire asmoa, Aita Santuaren pentsamentua hobeto ezagutu eta gero fundamentuz berba egiteko!

## ***(Lehenengo eta azkenengo galderak)***

### **Nor da Jorge Mario Bergoglio?**

Izan zan alkarrizketaren lehenengo itauna. “Jaungoikoak errukiz beterik begiratutako pekatari bat besterik ez naz”. Erantzuna benetan hunkigarria. Mistiko umil batena dirudi. Bere armarrria “Miserando atque eligendo” beste barik oso esan-guratsua jat, Aita Santuaren erantzuna zuzen ulertzeko.

### **Zelakoa da zure otoitza?**

Izango da alkarrizketaren azkenengo galdera. “Goizero erre-zatzen dot Orduen Liturgia. Salmoeekin otoitz egitea oso atsegin jat. Jarraian meza santua. Ondoren errosarioa. Baina gehien gustatzen jatan otoitza, altarako Sakramentuaren gurtza izaten da arratsaldero, zazpiretatik zortziretara. Baita otoitzean jarduten dot egunean zehar ere, dentistearen zain nagoanean eta abar. Otoitzean, batez ere, Jaunaren mesede miresgarriak ditut gogoan. San Ignazioren metodoa lagungarri jat otoitzean: Zer egin dot Jesukristogaitik? Zer egiten dot Jesukristogaitik? Eta zer egingo dot aurrerantzean Jesukristogaitik?. Ondo baino hobeto dakit Jaungoikoak gogoan naukala. Beragaz ni neu ahaztu neinteke baina bera nigaz inoiz ere ez. Hortik doa nire otoitza”.

Bi itaun honeen bitartean, beste itaun asko datoz. Batzuk jesuita izan danez, Jesusen Lagundiari lotutakoak, eta besteak gaurko Eleizari eta gizarteari begira jarritakoak. Nik neuk galdera batzuk aukeratu eta euron erantzunak hartu ditut kontuan.

Lagundiari lotutako galderak, nire ustez, lartxo dira. Hiru besterik ez ditut aukeratuko. Baliteke jesuitak aspaldion Vatikanon galdutako ospea eta sona barriro ere Frantzisko Aita Santuagaz berreskuratzeke asmoa edo izatea...

### **Zergaitik sartu zinan jesuita?**

“Zerbait gehiago nahi neban egitea. Baina ez nekian zer. Seminariora joan nintzan. Domingotarrak erakarten ninduen

eta banituen domingotar lagun batzuk ere. Baina azkenean, jesuita izatea erabaki neban. Gure Seminarioa jesuiten ardura-pean egoan. Eta euron hiru gauzak zirrara egin eusten: misiolari izaera, komunitate biziera eta diziiplina, nahiz eta neu oso indiziplinatua izan. Baina denborea antolatzeko diziiplina gustukoa neban. Komunitatean bizitzea ere oso inportantea zan niretzat. Ez neban ikusten neure burua abade moduan bakarririk. Niretzako komunitatea preminazkoa da. Arrazoi honeek bultzatu ninduen jesuita izatera”. Ikusten danez, motibo konkretuak dira baina ez beste mundukoak.

### **Jesuita batentzat, zer esan gura dau Aita Santu izateak?**

“Diszernimentua! San Ignazioren espiritualtatearen barnean dago diszernimentuaren premina Jesukristo hobeto ezagutu eta zerbitzeko. Nagusi izateko, ‘non coerceri máximo, sed contineri minimo divinum est’ esaera gogoko dot. Hau da, ez jarri mugarik gauza handiak egiteko orduan baina gauza txikietan leial izanez, eguneroko lanak bihotz zabalez eginez. Hori bai, inoiz ere, horizontea galdu barik. Momentu bakoitzean gauzak eta tokiak eta pertsonak ondo bereizturik. Juan XXIII.a Aita Santuak gobernatzeko beste esaera hau erabilten eban: “Omnia videre, multa disimulare, pauca corrigere’. Nahiz eta gauza guztiak ikusi, gauza gitxi jorratzen saiatu. Ez naz bat ere fidatzen bat-batean hartutako erabakiekaz. Inoiz ere ez, burura lehenengo jatortan erabakiaz. Ia beti, errakuntza besterik ez dalako. Erabakiak Jaungoikoaren aurrean ondo pentsauta eta astiro bereiztuta hartu behar dira”.

### **Lagundiaren historian zehar, zeintzuk izan dira zuretzat jesuita deigarrienak?**

“Pedro Fabro saboiarra, San Ignazioren lehenengo laguna Parisen eta bere gelakidea Sorbonan ikasle zirala. Beti egoan prest mundu guztiaz berba egiteko baita arerioekaz ere. Jainkozale laua eta apala, laguntzeko beti erne, barneko dis-

zernimentu argitsua, nahiz eta izaeraz biguna eta tolesgabekoa izan, erabaki handiak eta arriskutsuak hartzeko ausarta”.

Harritzekoa bada ere, ez Ignazio, ez Frantzisko Xabier, ez Arrupe, ez beste inor, Frantzisko Aita Santuaren jesuita gustukoena Pedro Fabro izango da.

Eleizari eta gizarteari begira egindako itaun eta erantzunei buruz, honexek aukeratu ditut:

### **Zer da Eleizagaz sentitzea?**

“Niretzako Eleiza Jaungoikoaren herria da. Hauxe da Vatikanon II.aren definizioa. Salbamen Historian, Jaungoikoaren Alkartasuna Israel Herriarekin hasten da eta Eleiza dogu Alkartasun barriko Herria. Jaungoikoak ez gaitu bakarrik salbatzen. Eleizagaz sentitzea, herri honen barruan sentitzea da. Eleiztar guztiak Aita Santu eta gotzainekin Espiritu Santuaren arabera bizi eta leial diranean hutsezina da. Ez da ba teologoekaz bat sentitzea eta ez eleiz hierarkiaz sentitzea be. Eleiza Jaungoikoaren herri osoak egiten dau. Ez bakarrik teologoak eta hierarkiak. Horixe gertatzen da Andra Mariagaz. Jakin nahi badogu nor dan Maria, teologoei galdetzen deusagu; jakin nahi badogu zelan maitatu Andra Maria, herriari galdetzen deusagu. Nik Jaungoikoaren herrian ikusten dot santutasuna, bere eguneroko santutasuna. Danok gagoz santutasunean bizitzera deituak. Nik ikusten dot santutasuna bere umetxoak hazten dituan amagan, eguneroko ogia etxera eroateko lan egiten dauan aitagan, gaixoengan, hainbat zauri jasandako abade zahar eta ezpanetan irribarre goxoa dabenengan, hainbat lan isil eta ezkutu egiten daben mojenengan. Hauxe da niretzako santutasun normala. Nik neuk santutasuna lotzen dot beti aurrera egiteko iraunkortasunagaz. Horixe izan zan nire gurasoen santutasuna, baita nire amama Rosarena ere. Zenbat zor deusadan nire amamari! Nire Orduen Liturgia liburuan daroat amamaren testamentua eta egu-nero irakurtzen dot, niretzat otoitz bat dalako. Santa bat izan zan eta asko sufritu arren bere naigabeetan sendo egin eban

beti aurrera. Guztion etxea da Eleiza eta ez “taldetxo” aparteko batek osatutako kapillatxoa. Ezin dogu Eleiza Katolikoaren al-tzo zabala, “kutuntxoen kabitxo” bat bihurtu. Eleiza Ama da. Eleizak emonkorra izan behar dau. Eleizaren abadeengan edo erlijiosoengan edo lekaimeengan portaera ustelak ikusten do-dazanean, lehenengo burura jatortana hauxe izaten da: zelako mutilzaharrak!, zelako neskazaharrak! Ez dira izan gauza ez ai-ta, ez ama izateko. Ez dira izan gauza bizia emoteko. Alderan-tziz, esaterako, misiolari salestarrak egindako ebanjelizatze eta lana Patagonian irakurtzen dodanean, egiazko emonkortasuna-ren historia irakurtzen ari naz”...

### **Zein da gaur egun Eleizaren eginbehar premiazkoena?**

“Argi daukat Eleizaren zeregin beharrezkoena zauriak senda-tzea dala eta eleiztarren bihotzak berotzea euron ondoan biziz. Bataila baten ondoren kanpainako ospitale bat dirudi Eleizak. Ze alperrikoa dan zauritatutako bateri ea kolesterola goitik daukon edo zenbat azukre daukon odolean galdetzea! Zauriak sendatu behar jakoz. Eta gero gerokoak. Zauriak osatu!... zau-riak osatu!... Horixe da beharrezkoena... Eleiza batzutan gauza txikietan naastauta ibili izan da. Gauzarik inportanteena beste hau da: **Jesukristok salbau gaituala!**, bihotzez onartzea! Eleizaren ministroak errukiaren ministroak izan behar dabe. Esaterako, abade baten arriskua da lar estua, errigorista izatea edo oso laxoa, bahe andikoa izatea. Ez bata ez bestea ez dira batere erru-kitsuak. Ez bata ez bestea ez dira pertsonagaz benetan ardura-tzen. Estuak eskuak garbitzen ditu agindutako legea gogoratuz. Laxoak, ostera, eskuak garbitzen ditu hori ez da pekatua esa-nez. Pertsoneri lagundu egin behar jake zauriak sendatzen. Ze-lako portaerak daukaguz Jaungoikoaren herritarrekin? Nik ames-ten dodan Eleiza Ama da. Eleizaren ministroak errukitsuak izan behar dabe, eleiztarrekaz arduratu, lagundu samariar onaren antzera hurkoaren zauriak garbitzen eta sendatzen. Hauxe da Ebanjelio garbia. Jaungoikoa pekatua baino handiagoa da!. Es-

trukturak eta beste antolamenduak aldatzea bigarren mailako gauzak dira. Lehenengo pausoa da gure jarrera aldatzea. Ebanjelioaren ministroak izan behar dabe pertsonen bihotzak berotzeko gai, eurekin alkarrizketa egiteko beti prest eta euron iluntasunean parte hartzeko gertu. Jaungoikoaren herriak artzainak behar ditu eta ez funtzionarioak, 'bulegoko eleizgizonak'. Gortzainak, batez ere, adi egon behar dabe Jaungoikoak bere Herrian dituan pausoak sumatzeko eta bide barriak urratzeko. Beharrezkoak dira ausardia eta kementa! Ebanjelioa toki guztietan iragarri eta danetatik jotako gaixoak sendatuz. Buenos Airesen nengoala, homosexualen hainbat karta hartzen nebazan, Eleizak baztertu eta kondenau egiten ebazala eta kexuz. Baina Eleizak ez dau holakorik egin. Rio de Janeirotik egazkinez nentorrela esan neban, pertsona homosexual batek borondate ona badauko eta Jaungoikoa bilatzen ari bada, ni ez nazala inor hori epaitzeko. Horixe diño Eleizaren katiximak. Erljioak badauko eskubidea pertsonen zerbitzuan bere eritxia emoteko, baina Jaungoikoak pertsona libreak egin gaitu eta ezin da pertsona baten barruan sartu. Behin persona batek zirikatzen edo, homosexualitatea onartzen neban, itandu eustan. Eta hauxe erantzun neutson: "Esaidazu, mesedez, Jaungoikoak pertsona homosexual bati begiratzean, onartzen dau bihotzez pertsona hori ala kondenau egiten dau? Pertsona euki behar da beti kontuan. Eta horrela pertsonaren misterioan sartzen gara. Bizitza honetan Jaungoikoak pertsoneri laguntzen deutsee eta gure eginkizuna ere errukiz beterik eurei laguntzea da. Hori gertatzen danean, Espiritu Santuak berba egokiak emongo deutsoz abadeari. Horixe da autortzaren edertasuna!, kasu bakoitza aztertu eta ikusi zer dan onena Jaungoikoa eta bere grazia bilatzen dauan persona batentzat. Autorlekua ez da oinazetoki bat, Jaungoikoaren errukia banatzeko tokia baino. Gogoan dot, ezkontzan porrota eta abortua izandako emakume baten kasua. Barriro ezkondu eta bakean bizi da bere bost seme-alabekin. Abortuaz oso damututa dago bera. Kristau bidea barriro nahi leuke egin. Zer

egiten dau abadeak? Ezin gara beti abortuari edo homosexualen ezkontzari edo antisorgailuei buruz ari. Inposible da hori. Horretaz nik askotan egin dot berba eta erantzun gogorrak hartu ere bai. Gainera badakigu Eleizaren doktrina eta ni Eleizaren semea naz eta ez dago zertan beti horretaz berba egiten ibili. Eleizaren irakatsiak ez daukee balio bardina. Oreka bat aurkitu behar da Barri Ona aldarrikatzean. Ezin da Ebanjelioaren esentzia eta freskotasuna eta guritasuna inguruko gauza txatxarrekin ito. Esaterako, sermoia egiteko orduan, egiazko sermoi on bat salbamenaren iragarpenagaz hasi behar dau. Ez dago beste ezer hori baino ederragorik. Gero etorriko da katekesia. Hortik atara leiteke moral ondoren bat. Moral obligazioa baino aurretik, Jaungoikoaren maitasunaren aldarrikapena dago. Gaur egun alderantziz gertatzen dala dirudi. Sermolariak Jesusen Barri Onaren bihotza eskeini behar dau bestela ez dau, biztuko herritarrengan Jaungoikoaganako egardia.

### **Zein da emakumearen eginkizuna Eleizan?**

“Beharrezkoa da emakumearen presentzia sendotzea Eleizan. Hain desberdinak diranez emakumearen eta gizonaren egiturak, bildurra deusat ‘gonaz jantzirik dan matxismoari’. Emakumeari buruz entzuten dodazan gauzak matxismoaren ideologiaz kutsatuta dagoz. Andrazkoak gai sakonak eta inportanteak ari dira planteatzen. Eleiza ezin da Eleiza izan emakume gabe eta bere eginkizuna bete gabe. Andra Maria gotzainak baino inportanteagoa da. Ez da nahastu bear kargua dignitateaz. Ez daukagunez oraindino emakumeari buruz ganorazko teologiarik, lanean jarraitu behar dogu horretaz. Badago mundu bat emakumearena dana eta hori sakondu behar dogu. Horren ondoren ikusiko da hobeto zein dan emakumearen funtzioa Eleizan. Erabakiak hartzen diran tokietan, han beharrezkoa da emakumearen jeinua, ikus puntua, izaera. Emakumearen begirada eta gauzak sumatzeko modu berezi hori da gaur egun daukagun erronka mahai gainean. Horrela jakingo

dogu zein dan emakumearen eginkizun espezifikoa Eleizan, baita autoritatea gauzatzeko mailan ere”.

Badira alkarrizketa honetan beste gai mordoxka batzuei buruz egindako itaunak eta erantzunak. Esaterako, Vatikanoko II.aren garrantzia, ordena erlijiosoen eginkizun espezifikoa Eleizan, Ekumenismoa, Sinodoak, Kuriako dikasterioen erreforma eta abar. Emondako erantzunak ez dira beste mundukoak.

Badago itaun aparta Aita Santuaren artelanetarako ederresmena ezagutzeko egokia. Itaun honi emondako erantzunaz amaituko dot Frantziskoren alkarrizketa luzea. Hona hemen Antonio Spadaroren galdera:

### **Zeintzuk dira zure artista eta idazle gustukoena?**

“Asko eta oso desberdinak dira. Itzel maite ditut Dostoyevski eta Hölderlin. Honek bere amamaren urtebetetzarako egindako olerkia sarritan gogoratzen dot. Bertso hau “Umeak emondako berbea, gizonak eutsi dagiala”, arimaraino sartuta daukot. Nik asko maite neban neure amama Rosa eta Hölderlinek olerki horretan bere amama, Jesusen Amaren, Andra Mariaren, ondoan jarten dau. Manzoniaren ‘Los novios’ hiru bider irakurri izan dot eta barriro ere banoa irakurtzera. Nire amamak buruz esaten erakutsi eustan ‘Los novios’ en hasiera: ‘Quel ramo del lago di Como, che volge a mezzogiorno, tra due catene non interrote di monti...’. Baita Manley Hopkins ere asko gustatzen jat.

Margolarien munduan, Caravaggiok txunditzen nau gehien. Baita Chagall-en “Crucifixión blanca”k ere. Maite dot Mozart. Bere Mezaren ‘Et incarnatus est’, Jaungoikoagana naroa. Mozarten interpretatzaile onena niretzako Klara Haskil izango da. Mozartek bete egiten nau. Beethoven ere gustuko dot batez ere, Furtwängler zuzendariak interpretatuta. Zer esanik ez, Sebastian Bach goieneko musikalaria jat. Bere ‘Erbarme Dich’, Pedoren negarrak, Jaunaren Nekaldian San Mateoren arabera, benetan hunkigarria. Beste maila baten, gustatzen jat entzutea



Wagner baina ez beti. Knappertsbuschek egiten dauan ‘Parsifal’en interpretazioari zoragarria deritxat.

Felliniren ‘La Strada’ izango da gehien gustatu jatan filmea. Bada bertan Frantzisko Asiskoaren aipamentxoak. Beragaz identifikatzen naz. 10 – 12 urte nebazala, Anna Magnani eta Adolfo Fabriziren pelikula guztiak ikusi izan ditut. ‘Roma città aperta’ ere itzel gustau jatan. Sarritan eroaten ginduezan gurasoak pelikulak ikustera eta eurogandik datorkit zinerako zaletasuna”.

Alkarrizketa laburbiltzeko, Frantzisko Aita Santuak hain maite dauan San Agustinen pentsamentu eder hau gogoratzeak merezi dau: “Gauza guztietan eta bazter guztietan eta aldi guztietan eta persona guztiengan Jaungoikoaren bila ibili aurkitzeko eta aurkitu ondoren jarraitu bilatzen. Deus semper maior”.

*A. Olea*

**SINESTEA ARRAZOIZKOAGOA DA**

1.- Bere hasteetatik filosofia, gizonaren egiaren aldeko maitasuna, okupatu da kosmos honen konprenitzeaz, eta ezagutu den konprenitze lehenetarik izan da kosmos hau igarotzea dela, igarotze etengabea, ematen duelarik amaierarik gabea dela, ez hasterik ez amaierarik. Eta postura hori honela laburbiltzen ahal da: dena igarotzea da, ezer ez da geratzen. Eta horri, nahiz eta ez duen ezer konpontzen, zirkularidadean erortzen delako, eta lehen galderaren formulazio berbera da, horri, jarraituz, deitu izan zaio filosofia perennea. Baina hor geratzea, erran dut arestian, lehen galderan geratzea da, eta galdetzen diogu geure buruari ea nola demontre konprenitzen ahal den kosmos hau.

2.- Idatz liburu-dendan erosi dut liburu bat, idazlea Maritain famatua da, tomismoaren defentsari modernoa, titulu honekin: “tres reformadores, Lutero, Descartes, Rousseau”. Eta irakurtzen hasi naiz eta hitz hauekin topo egin dut: “ No hablo de Kant, que se halla en la confluencia de las corrientes espirituales originadas en estos tres hombres, y que creo, si es licito afirmarlo, como la armadura escolastica del pensamiento moderno.”. Nik badut Kanten gainean hitz egiten, irakurlerik badut horrek badaki, eta irakurlerik ez badut Espiritu Santuak badaki, horrek nire “habilidada” guztiak ezagutzen ditu, eta bromaz aparte erran behar dut ni gehienbat filosofian zentratzen naizela, eta hortik nik bai hitz egitea Kanti buruz.

Nik ere pensatzen dut filosofiaren arloan Kant dela modernidadearen aita nagusia. Galdetzen duelarik ea posible diren

juizio sintetikoak a priori, ikasiz gero bere sakontasun osoz ahal dela zer egiten duen galdera horrekin ikasi egiten da galdera horri ematen zaion erantzuna erabakigarria dela gero eza-gutzeko zer bide hartuko duen filosofiaren historiak. Niretzat bi aukera dira daudenak jokoan, edo filosofia naturaletik erantzuten da ezin direla juizio horiek, eta materialismo hutsean erortzen da (ez litzateke lehen aldia humanidadearen historian) edo Errebelazioaren historian ageri diren fenomeno sobrenaturalak aintzat hartzen dira, eta afirmatzen da ezen personaje historiko batendako badirela posible halako juizioak egitea, eta zehaztasun perfektuaz gainera, eta orduan, a priori-tasunak duen ezagutza unibertsalaren seinalatzea aintzat hartuz, orduan tomismoa ikaragarri indartua ateratzen da, hau da, filosofia kristaua, eta hortik nagusitzen da filosofiaren historian, historia modernoa barne.

Nik dakidala inork ez du egin nik egiten dudana, Kanten galdera zentral hori kontuan hartuta, nik egiten dudana jiroa, hau da, galdera hari baiezko batekin erantzutea, eta ez nik ahal dudalako, eskatu egingo lidakete demostrazio bat eta orduan nire burugabetasuna agerian geratuko litzateke, baizik eta personaje historiko bat deskubritu dudalako, nire ikerketetan, bazituenak egiten eta mordoak gainera egin zituen, eskrituren arabera, eta eskriturei jaramon egiten badiegu, jakina. Zeren dena mitologia bada, batek sarritan erraten didan moduan, orduan positibisten jokoan erortzen gara, azkenik jausiz materialismo zientifikoan, zientifismo materialistan.

3.- Topatu egin dut beste aipamen mamitsu bat Kanten gainean Maritainen liburu horretan, honela dio: "También Kant dira: debo suprimir el saber para dar lugar a la creencia". Kantendako filosofia alde bat laga behar da fededun egiteko, zeren beraren filosofiak ondo argi erakusten baitu metafisika ezinezkoa dela, eta metafisikaz hitz egiten dugularik erran nahi dugu kristautasun osoa oinarritzen duen sobrenaturalismoa.

Halakorik ez da ikasten filosofiatik, edo hobe erranda, filosofia naturaletik.

Baina ezagutza alde bat lagatzen bada zerena da fedea?. Garbi dago ezen ezin dela izan fede garbia, san Pedrok aholkatzen zuen gertu egon behar ginela fededunok gure fedearen arrazoa emateko, baina arrazoirik gabea baldin bada gure fedea, permititzen bazait, orduan ez dugu arrazoirik, juizio gabeko fedea da ere, eta hor erotzat ere hartzen ahal gaituzte. European, arrazoi gabeko fedea, badaude bultzatzen dutenak, Hegel izan daiteke bat, eta Mayor Orejari nik badiot entzun ezen humanismo kristaua defendatzen ahal dela fedegabeko postu-retatik, gure kulturaren parte inportantea baita, omen. Nik, ordea, hor perbertsio handia ikasten dut, zeren funtsean halakoak materialista ateoak baitira, kontzientzia moral eskasekoak, komenentzien arabera.

4.- Pensatzen igarotzen dut nire denbora, eta gaur pensatu dut nola filosofia naturaletik joanez oso emaitza zoragarriak lortu direla filosofiaren historian, eta garapenik emankorra den santo Tomas Aquinokoak desarroilatu zuen duda barik, nik lorpena irudikatu egiten dut lau kausen teoriarekin, kausa materiala, kausa formala, kausa efizientea eta kausa finala. Zerua ere ikutu egiten dugu filosofia naturaletik joanez, Socrates, Platon, Aristoteles eta eskolastikaren bururapena den tomismoa, filosofia kristauaren erreferente gorena. Harek bai zuela idazten argitasunaz, haren aldean nire estiloa pobrea da eta antojadizoa, miserablea, harek latin admirablean nik nire euskara maitean. Baina ni mende batzu geroago iritsi nintzen mundu honetara, eta ezagutu dut Tomasek ezagutu ez zuena, hala nola nominalismoa. Badirudi ezin ederragoa bada ere, filosofia teorikoaren harri bizi bat, azkenik dena ilusio bat besterik izan daitekeela, kausa formalan definizioak ematen du esentziaren berri, nire arimaren berri, baina hori izendatzea besterik ez daiteke, eta ondorioz materialismoan erortzen ahal gara. Gero datorrigu Kant bere galdera famatuarekin, nik hainbeste buel-

ta ematen dizkiodana, eta filosofia naturaletik ez da juizio sintetikorik a priori antzematen inon ez inoiz. Baina ikasten bada Jesusek bazituela egiten juizio klase horiek, signoak dira, orduan Harek bazuen metafisikaren berri, filosofia naturala baino gorago dagoen kosmos baten berri, ez dagoena kosmos honetan, eta halako juizioen a prioritasunak erakusten digu badagoela ezagutza unibertsalik, kosmos honetan ez baina bai beste kosmos goragoko horretan, inbisiblea zaigu baina ezagutza unibertsalaren esistentziak jaso egiten du eskolastikaren hoherena, tomismoa, eta egiazkoa dela erakusten digu. Ez dira izenak bakarrik, gure definizioak gure esentziaz hitz egiten du, eta badago esentzia horren ezagutza unibertsalik beste kosmos batean, Zeruetako Erresuman.

5.- Filosofiako profesore profesional batek, agian, esan diezadake oker nabilela, juizio sintetiko bat a priori ez dela mirari baten definizioa, baina nik erantzuten ahal diot hortik edo oso antzerako demostraziobideetatik datorkeela fedearen zimentatzea filosofiatik. Estudiante atrebidu honek ez du ikasten bere hanka sartuetan arrazoi nahikorik bere fedebidea hausteko. Izatekotan berak jorratutako demostraziobidea pobrea da, eta inauguratzen du demostraziobide bat oparagoa, fedea oraindik zimentatzen duena harri gogorragoetan.

*Roman Garmendia*

***KONTU KONTARI*****ZIKLOPEARENA**

Tximeleta koloretsu eta dirdaitsuak, launa orratz hormetan iltzatuak, Zientzi Museoko hormetan iltzatuak. Eder dirudite, bizirik baino ederrago, hilik ederrago. Hegaz, lehenago, lau haizeetara, horiak, orlegiak, gorriak; plast, gero, larua, odola, behazuna, eta, orain, hormetara. Argazkilari ziklopeak bizirik ikusi zituen ikusi bere begi bakarrarekin, bizirik eta alde egin gurean kameraren marko karratutik. Ziklopeak, azkar ibili eta botoia atzamarrarekin sakatuta, klik, disekatu egin zituen, disekatu betirako, bilduma egi-learen betiereko poztasunerako.

Nagusitan zer izango ete zen, zer izan gurako zuen galde-tzen ziotenean, artean ziklopea izan gura dut erantzuten ez zuen sasoiari, tximeletak harrapatu gurean zebilela esango zuketena hara eta hona zekusatene; berak, ostera, tximeleten koloreak eta hegazkadak erakarrita, atzetik zebilkiela esango zukeen, horixe besterik ez, atzetik ibili. Izan ere nagusitango

asmoez kezaturikoek ez zuten sekula tximeletak harrapatze-ko tximeleta-sarea astinduz gogoratuko.

*Zeure zain nago eta ez daukat presarik. Bilakaera prozesu luzeenei ere ez diet berantesten. Idiari leporatzen dioten eroan berbera daukat, fokatze eta enkoadratzerik onena egin zain dagoen argazkilaria nola, holantxe nago neu ere, kerizpetan edo eguzki kiskalgarria noiz ostendu zain, neure inguruan us-tezko argazkilariak kamera grinatsuaren botoia sakatu eta saku-dabiltzan bitartean.*

Tximeleta izan baino lehenagoko bideak, arrautzatik beldar edo larbara, beldarretik krisalidara, krisalidatik tximeletara, bide horrexek, tximeletaren beraren kolore-hegazkadek beste erakartzen zuen argazkilaria. Bizitzaren misterioa. Larba bera nola kiribiltzen den eusten dion adar inguruan. Jario likatsuak bizitzara atxikitzen duen krisalida hauskorra. Krisalida hauskorren sortze trinko eta indartsua inguratzen duen estalkia apurtu eta gero.

Ingurukoek ikusi ez zuten tximeleta-sarea astintzen ikusiko. Berak baina, egin egiten zuen, egun argiz zein gaueko tximeletak harrapatuz, besteen begi-lotsa barik. Sare finaren besarkadak, ziklopearen begi kliskak, argazki kameraren klikak, bat egingo zuten denek, jomuga, harrapakina, bistaratu bezain laster.

*Zenbat argazki alperrik galduta, zenbat argazki joango ete dira mabai ondoko zakarrontzira, zenbat sastar-ontzi birtualera. Eskasak iritzitako argazkiokin batera, argazkion muina izan daitezkeen eta diren bizitza iheslariak, itzal iheskorak, argazkilariak gitxietsitakoak, horrelako zenbat sastarretara.*

Desagertzeaz daude argazkilarien etxeetako eta argazki-dendetako gela ilunak, ganbera ilunak, iluntasunaren eta itzalaren errege-erreginek erabat agintzen zuten lurraldeak. Isil-isilik, ezarian-ezarian, argitasuna eta araztasuna datoz trosta arin be-

zain axolagabeen ziklopearen lurraldeok bereganatzen. Fokatzeko enkoadratze-leihoak zabaldu asmoz muina estutuz, argazkietako itzalei ihes eginaraziz.

*Zeure zain nengoen eta ez neukan presarik. Orduan. Baina zeu etorri ez zentozen. Eta orain zer. Ez naiz kerizpetan geldituko. Ez dut eguzkiak kiskali nazan itxiko. Zeure bila abiatuko naiz. Neu abiatuko naiz. Zain nengoela, argazki kamera eskutan, enkoadratzerik onenaren bila, suge bat susmatu nuen nire berna-izterretatik zehar sigi-sagaka enborretik hostoetaraino heldu gurean, haren azal likatsu hotza nire azal beroan laban eginez.*

Hor daude museo eta pinakotekak, hor kultur etxe eta argazki erakusketak, hortxe euron aurrealdeetan kartel-iragarki itzelak barruko ederraren iragarle eta erakarle. Hor daude, batzuetan ikusleak ilarak egiten, barrukoa ikusteko asko samar ordaindu behar delako edota doaneko eguna delako, bestetzetan ateak zabalik eta ikuslerik barik batek daki zergatik. Hor dago barruotan margolari eta argazkilarien esku eta begiradaren zorrotza eta ederra, hortxe eskultorearen eskuaren aldibereko dardara eta irmotasuna.

*Ziklopea naiz eta itsusietsita naukate. Baina nik jakin badakit zuk ederretsi egin gura nauzula, ederretsi, bai, baina ez diozula, ezin diozula zeure buruari horrelakorik aitortu. Ziklopea naiz eta suge bat dabil nire enborretik sigi-sagaka laban eginez, ezin itsusiago. Baina ez ezazu etsi. Zure bila noa. Eta aurkitu egingo zaitut. Harrapatu egingo zaitut. Eta gu bion esku-begiek dena baztatu eta ederretsiko dute.*

Ziklopea deitzen diote ikasleek unibertsitatean Arte Ederretako sailean Argazkigintza irakasleari. Ziklopea, begiak bata bestearen hurrean dituelako, asko dakielako. Irakasleak jakin badaki ziklopea ezizena jarri diotela. Ustea eta itxaropena du destainaz begiratzen dioten begibi ustez ederreko bihozgabeek



ZIKLOPEARENA

ikasturtea amaitu dadinerako eder ikusiko dutela. Aspaldiko eta antzinako ikas-kobetatik datorren ziklopeak itxarotea besterik ez du.

*Begiak itxi eta proiektorea martxan jarri, klasea hastera doa eta.*

*Lourdes Unzueta*

## RENÉ CASSIN PASTORALA

Maule ondo-ondoko Sohüta (lehen Soroeta) herriak pastoral tradizio handia dauka. 1927an bi pastoral jokatu zituen, lehena Pette Salaberrek idatziriko San Andres izenekoa eta bigarrena J.P. Hegiapalek idatziriko Napoleon entzutetsua. 1954an Eüskaldünak Ibañetan jokatu zuten. Ez dakigu nor idatzi zuen. 1984an Arotzaren eta Dalgarrondok idatziriko Aimonen lau semeak, 2001ean Jean-Louis Davantek idatzi Xiberoko makia eta aurten, 2013ko uztailaren 28an eta agorrilaren 4an, Davantek idatziriko René Cassin pastoral arrakastatsua. Sohütarrak, behin eta berriz, ongitxo frogatu digute pastoralak antolatzen eta jokatzen biziki trebeak direla.

### **1.- Jean-Louis Davanten azalpenak.-**

2013ko ekainaren 27an, Jean-Louis Davantek Donibane Lohizuneko Ravel entzutegian eman zuen hitzaldia entzutera hurbildu nintzen. René Cassinen historia ez nuen sobera ezagutzen, eta jakin-nahiak bultzaturik, hitzaldiaren aretora joan nintzen. Areto eder horretan hogeita hamar bat lagun inguru bildu ginen. Davantek eman zuen hitzaldia ederra eta argia izan zen.

Hasiera batean, pastoralaz aritu zen, zer den pastorala eta zer ez den argituz.

Pastorala antzerkia dela oroitarazi zigun eta bertara haur baten bihotzarekin joan beharra dagoela gehitu. Antzerki epikoa

da eta epopeia bat kontatzen du. Ederra izan behar du, eta halaber, bihotzak hunkitu egin behar ditu.

Pastorala trajeria giristinoa dela garbi utzi zuen, ondoren. Davantek esan zuenez, pastoral zaharrek ez omen zuten ikus-entzuleen bihotza pizten, eta horrela jarraitu zuen izaten Etxahun-Irurik bere zortzi pastoralak idatzi eta jokatu zituen arte. Garai bateko pertsonaiak handikiak ziren, errege eta enperadoreak, edo bestela santu eta pertsonaia biblikoak. Etxahun-Irurik, euskal pertsonaiak pastoralara ekartzean, zuberotarren bihotza pizten jakin zuen. Davanten ustez, pastoralak sinbolista eta surrealista izan behar du. Jelkaldietan barrena bertsetak emateko erabiltzen den basa doinua gregorianotik heldu omen da. Pastoraletan dena kalkulaturik dago ederra izan daitezen.

Gero, pastoralaren jatorriari buruz mintzatu zen. Agosti Xaho eta Junes Casenave-Harigileren ustez, pastoralak jadanik mila urte inguru ditu. Gehien-gehienek Erdi Arotik datorrela pentsatzen dute. Beñat Oihartzabalek eta Txomin Peillenek XVIII. mendean sortu zela defendatzen dute. Peillenek dio erresistentzia katoliko moduan sortu zela, agintzen zuten Paueko jaun kalbinisten aurka egiteko. Kalbinismoa jende eskolatuaren erlijioa zen, eta zuberotar gehienek, laborariak izaki, katolikoek irudiak, beilak, elizkizunak, prozesioak... maite zituzten; eta pastoraletan iruditeria katoliko hori nonahi agertzen da.

## **2.- René Cassini buruzko azalpen historikoak.-**

Pastoralari buruzko azalpen historiko orokorrak eman ondoren, René Cassini buruzko datu biografikoak ematera pasatu zen. Ravel entzutegian eman hitzaldian azaldu zigunez, 2010. urtean, bi sohütar hurbildu omen zitzaizkion eta 1914ko gerla handiaz pastoral bat egiteko eskatu omen zioten.

Davantek, ez zuen hasiera batean, proposamen hura onartu, sobera gai zabala eta hitsa iruditu baitzitzaion, baina gero, Baio-nan sortutako René Cassin bakezaleaz gogoratu, sohütarrei

aurkeztu eta horiek onartzean, idazteari ekin zion. René Cassin pertsonaia egokia ikusten zuen Davantek, bi gerla handietan ibilia izan baitzen eta beti mezu bakezalea defendatu zuelako.

René Cassin pastorala hogeita bi jelkaldiz, hamaika kantuz, bost bertsoz, bi güdükaz, laupabost satan dantzaz, hiru türken ateraldiz eta laupabost dantzaz osaturik dago. Beraz, pastoral oso-oso dela esan dezakegu.

Hitzaldiaren bigarren zatian, arestian esan bezala, René Cassinen bizitzaz luzaz aritu zen, hurrengo datuak bertan ginen guztion gogora ekarriz.

René-Samuel Cassin Baionan sortu zen 1887ko urriaren 5ean, herriko etxeko karrika berean. Ama baionarra zuen eta aita Nizakoa. Lau seme-alabetan hirugarrena izan zen. Lau urte zituela familia Nizara bizitzera aldatu zuen. Udako oporraldietan René-k Baionan igarotzen zituen, aitatxi-amatxien etxean, bertako adiskideak eginez eta euskal kanta ugari ikasiz.

René Cassinen familia bi aldeetatik judua zen, baina oso laikoak, erlijio eginkizunetara gutxi emanak. Aix en Provence-ko unibertsitatean zuzenbidea ikasi zuen. Gero, Parisen bizi izan zen, hainbat lan eginez, eta 1914an doktoregoa erdietsi zuen. 1914ko gerlara deitua izan zen, eta Lorrenan soldadu zebilela, leherkari batek larriki zauritu zuen. 1917an Simone Yzombardekin ezkondu zen Parisen. 1919an Lille-ko unibertsitatean aritu zen irakasle, eta 1929tik aurrera Pariseko fakultatean.

Gerlari Ohi Zaurituen Elkartearen sortzaileetako bat izan zen eta luzaz bertako lehendakaria. Hor hasi zen Nazioen Elkartearekin kolaboratzen eta lan handia egiten munduko potentziak bertara sar zitezten. Hitlerren gobernuaren gehiegikeriak ikusita, Europa ohartzen eta esnarazten ahalegindu zen, beste gerla baten atarian zeudela garbi baitzekusan. Bigarren Gerla Handia piztuta, alemaniarrek Frantzian sartzen hasi zirelarik, Cassin Baionara etorri zen eta geroxeago, Donibane


Lohizunetik atera zen azken ontzi britainiarra hartuta, Ingalaterrara joan zen, eta Londresen bere bizitoki berria finkatu.

Berak idatzi zuen De Gaulle eta Churchillen arteko hitzarmena, 1940ko abuztuaren 7an sinatu zutena. Manuel Irujorekin batera, euskal tropa bat Ingalaterran sortzen ahalegindu zen, baina Churchillek ez zuen onartu Francoren neutraltasuna galtzeko beldurrez. 1944ko abuztuaren hondarretan, Paris liberatura itzuli zen eta berriz, Pariseko fakultatean zuzenbide zibila erakusten hasi. 1947an, Giza eskubideen Aldarrikapen Unibertsala idatzi zuen eta 1948ko abenduaren 10ean, nazio Batuen Erakundeak onartu egin zuen. 1968ko abenduaren 9an, Oslon, Bakearen Nobel Saria eman zioten. 1976ko otsailaren 20an zendu zen.

Hauxe da Davantek pastoral süjeta izateko hautatu zuen pertsonaia, bi gerla handiak ezagutu eta beti bakearen alde egin zuen baionarra.



*Jean-Louis Davant*



*Pastoralaren afixa*

### 3.- René Cassin pastoral.-

Agorrilaren 4an, igandearekin, Sohütara hurbildu nintzen 2013ko pastoralaren bigarren emanaldia ikustera. Prentsagatik banekien lehen emanaldia, hau da, uztailaren 28an jokatu zutena, guztiz arrakastatsua izan zela. Goizeko 10,30etarako, jendez aiduru zen Sohütako elizan nengoen, pastoral meza entzuteko asmoz. Meza amaitzean, karrika üngürüa ederraz gozatu ahal

izan nuen, eta bazkaldu ondoren, ordubi eta erdietan, jadanik betetzen ari ziren harmailetan eseri nintzen. Hiruretan, puntu-puntu, pastoralaren martxa entzun genuen. Arizaleak oholtzara igo eta berehala lehen perediküari hasiera eman zioten.

Oholtza ohikoa den bezala apaindurik bazegoen ere, ez nuen haurrentzat horren maitatua den deabrüa ikusi. Cassin judua zenez, ez jartzea erabakia zuten. Gauza bera gertatu zen haur aingeruekin, ohiko arropak baztertu eta zirtzil itxuraz-edo jantzirik, atera baitziren. Apeza behin bakarrik azaldu zen eta apezpikurik ez zen izan.

7. jelkaldian René Cassin eta Battitta Borthiri-Sala koblakari larraintarraren arteko hizketa irudikatu zuten. 74. eta 76. bertsetetan hauxe jarri zuen Davantek koblakariaren ahoan:

*74.- Hamalauko gerla zinez itsusia,  
ezin errana düzü gük han ikusia.  
Ürde ebaiten üdüri, algar seinatzea,  
lobian botitürük hila eta bizia.*

*76.- Han kolpatü naiana ez dit ezagützen,  
bena ni bezalako gizon gazte bat zen.  
Bizirik egoiteko gure tirokatzen,  
hebentik ari nüzü hura non ote den.*



*Harmailak jendez gainezka zeuden*

16. jelkaldian, Cassinek Eusko Jaurlaritzan ordezkatzeko zuten Manuel Irujorekin hitz egin zuten, Ingalaterran euskal tropa bat sortzeko asmoz:

*152.- Cassin: Eskerrak adiskidea Euskadiren lagüngoaz,  
bai eta haste-bastetik erakutsi süstengüaz.*

*153.- Irujo:Süstengü hori berritü nahi deiot de Gaulleri  
eta abalaz emendatü zerbait haboro ekarri.*

*154.- Cassin: Popülü txipi batentzat hanitx egin düzüe,  
eüskal güdari gazteak gurekin haütü dirade.*

*155.- Irujo:Ordaiz hego eüskaldüna frantses inperio  
güzian,  
Aterpetü nahi dügü eta lagüntü nekezian.*

*156.- Cassin: Amerikar Estatüetan bedatü den eüskaldünak  
azkartü nahi lütüke züekiko harremanak.*

*157.- Irujo:Euskadikoek hitzarmen bat behar günüke  
züekin,  
eüskal armada txipi bat Ingalaterran sor dadin.*

*158.- Cassin: Printzizpioko baimena de Gaullek eman  
diküzü  
eta lehen ofizierak laster honartü gei ditüzü.*

*159.- Irujo:Eüskaldün armada baten bedatzeko Ingalate-  
rran  
Churchillengana banoa baimenaren eskatzera.*

Jelkaldi hau eta gero, ene ustez, Davantek pastoralean utzi nahi zuten mezua garbi agertu zen *Jaiki zite berritarra* izeneko kantuan. Letra Davantena da eta doinua J.L. Aranburu *Bidabe*-rena.

*Jeiki zite herritarra!*

*Jeiki zite herritarra lotsaren ülünpetik,  
etsaien aztaparretik argiaren hartzera,  
libertatearen süiaz egünaren piztera.  
Goiz berri bat sor dezagün gaü horren sabeletik.*

*Aski gezür, aski laido, herri bat heben dago,  
bere bihotzaren jabe, bere bizkuntzan mintzo,  
bere gisan bizi beita, lür hau ez dü saltzeko.  
Altxa dezagün bürüa hobitik elkitzeko.*

*Libra dezagün herria, libra jente bakoitxa,  
oroz gainetik jentea dügün beti peretxa,  
estatiak zain dezala behar düan bezala,  
artzain honaren bidetik otsoa ken dezala.*

*Beste herririk badago, zapazaleen despit,  
esküak eman algarri, algar süstenga beti,  
güziak libra gitean, heben eta lürrean,  
denek batean etsaia sar dezagün sarean.*



*Satan dantza gogoangarria*

18. jalkaldiaren bukaeran Beethoven-en 9. sinfonia, *Libertateari* kantua zubereraz abestu zuten Davant berak jarritako letra ederraz.



*Libertateari*

*Askatarzün ederra azkorrian izarra,  
kartsüki sartzen gira zure sentoralean.  
Maitarzünez düzü josten ezpatak moztü düana,  
jenteak hurridetzen zure begalen pean.*

*Gain zobardian ekia alagera dabila,  
zü bardin, haurridea, libertatearen bila.*

*Tiranoenganik libra beharrinanta lagünt,  
esperantxa denentzat, herio gaztigürik ez.  
Galdü dena bizi bedi, denek dügün arrapika:  
Ogendantari parka! Presontegia zerra!*

*Algar besarkatüz denek mündüari potak eman,  
algar etxek gainetan izar argia dügünek.*

20. jelkaldian Piarres Xarriton apezaren eta René Cassinen arteko hizketaldiaren berri eman zuten. Xarritonek laguntza eskatu zion Cassini Hegoaldetik joaten ziren euskal iheslari-entzatzat, Frantziako Gobernauk kanporatzen baitzituen. 185. bertsetan honela esaten dio Xarritonek Cassini:

*Eüskaldün borroka hori Europaren alde doa,  
Europaren etsai beita estatüen nausigoa.*

Eta Cassinek 186. bertsetan Xarritoni honela erantzuten dio:

*Eüskaldünetik ere badit, baiones hanitxek bezala,  
neskatoak eüskaldün ginitizün eta eüskara txipitik  
entzün dit etxen. Eüskal kantore andana badakit,  
nabi düzüa biek eman dezagün?*

Eta biek *Boga, boga marinela* kantatuz, bukaera eman zioten jelkaldiari.

21. jelkaldian Bakearen Nobel Saria eman zioten, eta 22. enean zendu zen. Azken perediküaren ondoren, antxerak izan ziren. Uztailaren 28ko pastoral emanaldian Garindainek irabazi zituen 1500 euroekin eta bigarren horretan, Arrokiagak irabazi zuen 800 euroekin. Ondoren bertan ziren arrokiagatarrak oholtzara igo eta ohiko dantzak: muneinak, antzina pika... dantzatzeari lotu zitzaizkion. Hauek hurrengo urtean jokatuko dute Pier-Pol Berzaitz idazten ari den *Bühaminak* izeneko pastorala.



*Artzainak, ardiak eta astoa oboltzan*

#### 4.- Ene iritzia René Cassin pastoralaz.-

Ene iritziz, hau da Jean-Louis Davantek idatzi duen pastoral onenetako bat, eta horrela ulertu dute pastoralaren bi emanaldietan harmailak bete dituzten ikus-entzule gehienek. Lehen emanaldian hiru mila inguru izan omen ziren, eta bigarrenean beste hainbeste.



*Arizale guztiak oboltza gainean kantuz*

Musikariak, arizaleak, dantzariak, kantariak,... denak bikain aritu ziren eta zer esanik ez, lehen aldiz errejenta aritu zen Battitta Berrogainez, zuzen eta egoki zuzendu baitzuen pastoral osoa hasieratik bukaera arte. Errexenta bikaina dela erakutsi zuen.

Aipa dezadan denbora berean, Joana Etxeberri arropa asmatzaile gaztea, luzaz lan hau egin duen Erramun Gartzia Zabalegi errenteriarraren lekukoa adore handiaz harturik, arlo horretan egin zuen lan eskergagatik., desafio ikaragarri handia bazen ere, ederki asmatu baitzuen egindako hautuetan.

Lan bikaina Davantek eta sohütarrek 2013ko pastoral honetan erakutsi zutena.

*Joseba Aurkenerena Barandiaran  
Urruñan, 2013ko abuztuaren 10ean*

## **OLERKIAK**

### **ITAKA SUITE ETA HABANERA BAT**

#### **I.**

Amets egin nuen.  
Eta esku lakar abiatu nintzen.  
Itaka helburu.  
Negar egin nuen.  
Eta begiak blai abiatu nintzen.  
Itaka helburu.  
Irri egin nuen.  
Eta bihotz arin abiatu nintzen.  
Itaka helburu.

#### **II.**

Uhin, harri eta su. Ene herria.  
Abandonuaren zigilua Bizkaiako golkoan.  
Azken balea hondartzara dator:  
    Hiltzera ote?  
Ezpal, bide eta hitz. Ene herria.  
Partitzeko tenorearen aiduru beti.  
Azkorri sutsua ortz-hegira dator:  
    Bizitzera ote?

**III.**

Gorputzak elkartu ziren.  
 Ahamen bakarrean  
     Bata bestea jan zuten  
     Goseti  
 Eta betazalak apaltzean  
 Auhentzatez  
 Norbaitek  
     *Uharte niz*  
     Erran zuen:  
     Itaka.

**IV.**

Penelopa gurutzatu genuen  
 Stavros aldean  
 Gaez irun oihala buruan:  
     Eguzki zurbilak  
 Itsasoaren eta Peneloparen  
 Aurpegi zimurtuak  
 Zilartzen zituen.  
     Kiloa gerrian...

**V.**

Vathi gaineko sasia  
 Adineko andrea, itsumandoka,  
 Ahuntzak matoaz akuilatzen.  
     Ninfen harpearen atean  
 Gelditu eta hatsa trenka hurran  
 Kantatu zuen:  
     Ez naiz ni begiak  
     Haragiz hustu dituen  
     Irganaren labana  
     Baino.

**VI.**

Itakan galdu nintzen:  
Amaren hobiaren aitzinean  
Kopeta apalduz  
Otoitz egin nuen.  
Haize hegoak  
Ezpainak erretzen zizkidan:  
Galerna eta urbide latzak  
Zeharkatu ditut.  
Bizirik nago oraindik.  
Urdinaren aldaera anitzak  
Barkamenerako  
Mendi mazelako xendra  
Lokaztua erakutsi zidanean  
Itakan galdu nintzen  
Eta ene herria zen.  
Berriz.

**VII.**

Frikes eta Vathi lotzen dituen errepidearen aldamenean  
Zuhaitz koskor tematsuek harri arros lehorra ttakatzen  
Dute.  
Ez dut jakingo non naizen.  
Betiereko gaztetasuna segurtatzen duen  
Arethousako iturriaren ondotik gabiltza.  
Ez dut jakingo nor naizen  
Mende garratzen bezperan.  
Zahartu nahi dut Itakan.  
Mendikleta bat dago Phorcysko portuan aurtikia  
Frikes eta Vathi lotzen dituen errepidearen aldamenean.

**VIII.**

Uhartearen beso-muturrak laztanduz  
 Gordetzen doa ekia:  
     Itsasoak kobrez apaintzen ditu  
     Eta sareak distira dabilta  
 Artizarra agertzean.  
 Itxuraldatzen,  
 Nahiaz eta desioaz gabetzen  
 Gaituen isiltasunaren  
     Ordua da.  
     Uhin leoa bezalakoa naiz:  
 Denboraren isuriaz ez dut axolarik.  
 Nehon ez eta denetan heda naiteke.  
     Zuen arteko debaldeena naiz  
 Itakan. Pissos Aetosko haritzen maldan.  
 Zakur bi zaunkaz gauean.  
     Ordua da.

**IX.**

Hiregatik etorri naun,  
 Piztiak,  
 Bereziki ene baitakoak,  
     Haizatuz:  
     Amodioz baizik  
 Izan ez balitz  
 Ez nindunan sekula  
 Altzairuzko arratsean  
 Hire sukaldeko  
 Ahazturia zurian  
     Biluziko.  
 Begirik gabe  
 Belarririk gabe

Hankarik gabe  
Sexurik gabe  
Bihotzik gabe  
    Hiregatik etorri naun.  
    Zergatik banenki  
Ez lukeen  
Amodiorik.

X.

Itakan egon nintzen benetan  
Destinua harilkatzen.  
Egundaino ez naiz  
Handik itzuli.

XI.

Ontzia kaiertzan dago.  
Kapitainak *grigora grigora*  
    Oihukatzen du.  
Ernatu beharko genuke  
Mendean behin baino  
    Ez delako pasatzen.  
    Hil-mihiseen itzalean  
Nagitzen goaz  
    Haizean:  
Ontzia ez da guretzat  
Itaka malkartsuak  
Bilakatu  
    Garelako.  
    Gatz eta olio.  
Bidaiak darrai  
Geldo.



**ETA HABANERA**

Nere herriko emaztek  
 Zaharrek edota gaztek  
 Ez dute betarik galtzen  
 Direlarikan apaltzen,  
 Nik bezala ametsetan  
 Hitzen atzeko detsetan:  
 Goizerik jeikitzen dira  
 Tenore hotzen hegira  
 Eta makurtzen lanera.  
 Hau da zuen habanera.

Garbitzen dute mahaia  
 Bai eta errauts nasaia  
 Haurrak eskolara igor  
 Eta dabilta derrigor  
 Ilhar-erratza eskuran  
 Ezkaratzaren freskuran.  
 Ondotik oiloak bazka,  
 Bildots herabeak aska  
 Eta segidan barnera.  
 Hau da zuen habanera.

Batera ginen eskolan  
 Aspaldi Uhane zolan.  
 Agudo ziren ezkondu  
 Etxeko andere ondu,  
 Errazkeria baztertuz  
 Eta bizitzak aztertuz.  
 Begia zaie uzkuratzen  
 Kopeta ere zimurtzen

Akiduraren gainera.  
Hau da zuen habanera.

Ez ditut inoiz ahantzi.  
Ele lainoa dut jantzi:  
Debaldeen izerdian  
Soraio tropen erdian  
Kantua diet orrazten  
Eta amodioz hazten.  
Ez naiz ezer zuek gabe:  
Bertan destinua labe  
Lerra bekigu zainera.  
Hau da gure habanera.

*Itxaro Borda,*  
Baiona - 2010/2013

**IRUDI BETE ERRIBERA,  
Ondarroa eta bilbo artean**

**I. ZATIA  
MAREA GORA**

Behin batean, harrituta geratu zen nire lagun bat. Harrituta, esan nionean Aste Santuetan marea behean egoten dela goizean, eta goian arratsaldean, eta hala dela beti. Harrituta geratu nintzen ni ere. Harrituta haren harriduraz.

Gauerdiko kontuetan genbiltzala atera zen gaia, eztabaida. Aitzitik, hurrengo urtera arte ez omen zen hura argituko nire lagunaren ustetan.

Urteak igaro ziren ordutik, askotxo gainera, gaiari berriro heldu genionean. Atzo balitz bezala, han ginen osteraren ere marez hitz egiten, musika-plazan.

Ekainaren azken larunbatean jai egiten dugu herrian. Koadrilan batzen gara, bazkaldu eta parranda egiteko asmatan. Lagun-giroan, bateko eta besteko kontuak izaten dira tartean. Eta horretan genbiltzan, musika-plazako taberna txikian.

Bitxia da taberna. Barra txikia du baina estali gabeko plaza bete edukiera. Gotikoa dela diote batzuek. Armiarmalanpararengatik izango da akaso, edota dekorazioarengatik:

papereztatuta ditu ingurua eta sabaia, modu psikodelikoan den-dena jantzia. Paperean musikariak ageri dira. Han ziren guri begira, besteak beste, Bob Marley, Janis Joplin eta Jimi Hendrix.

Eta arrazoi nuela esan zidan. Eztabaida izan genuenetik, urtero hurreratzen ei zen Aste Santuetan erriberara.

## *1. ORDUA*

### **Erribera lekuko**

Mareak sei ordu behar ditu gora egiteko,  
behera egiteko beste horrenbeste.  
Horrela sortzen dira itsasgora eta itsasbehera.  
Eta horren lekuko da irudi bete erribera.

Atzoko eta gaurko irudiak  
zenbat gorabehera  
uretan islatuta,  
errealitatea itxuraz aldatuta,  
mosaikoa bailitzan,  
ageri da erribera.

### **Ubarroiak**

Ubarroien etorrerarekin agurtzen da udazkena,  
arian-arian erorian doazen bitartean  
ibai-ertzeko masustondoan hosto gorrituak  
hego-haizearen gozotasunean.

Gaurkoan lau ubarroi doaz ibaian gora  
neguaren atarian:  
azkar, bizi, mugituz hegoak,  
joan doaz elkarren segidan  
laztanten ur-azala.  
Itsasgoran egin ohi dute ibaian gora  
hobeto arrantzatzen omen dutelako orduan,  
urak gardenago direnean.

Must eginez, jolasean lortzen dute  
gizakiontzako hain gaitza dena,  
guztien gosea asetzea alegia.

### Eserlekuan

Ez dago inor eserlekuan.  
Falta dira maiteminduak,  
larretxori eta usoak,  
falta eguneroko bi katu bisitariak.  
Hutsik da eserlekua.

Hutsik da eserlekua.  
Bertan behera utzi dute.  
Dagoeneko inork ez du gogoan.  
Urruti dira garairik onenak,  
Non da gaztaroa?

Hankak herdoilduta,  
berde koloreko azala eguzkiak janda,  
eta kaio baten mesprezua,  
NON DA DUINTASUNA?

## Gaztetasuna

Baina gazte dela pentsatu izan dut beti.  
Gazte dela erribera marea goian dagoenean,  
bete-betea ageri denean, emankor, bizi.

Gaztetasunaren sentrazio hori  
nabarmendu izan diot halakoetan,  
gaztetasunak ez duelako beldurrik.

Ez du beldurrik, ez mugarik,  
dena kontrolpean izan ohi duelako,  
gogo indarrez etorkizuna berea egiteko.  
Bada, urrun ikusten du etorkizunaren uea,  
bete-betea bizi nahi duelako  
unean-uneke gertakizun oro.

Horregatik, gazte dela pentsatu izan dut beti.  
Gazte dela erribera marea goian dagoenean,  
bete-betea ageri denean, emankor, bizi.

## 2. ORDUA

### Ur gaineko ibiltariak

Ibilian ibili, badatoz ur gaineko ibiltariak.  
Gero eta argiago ikusten dira, hurbilago,  
atzean utzirik ibaia hartua duen behe lainoa.

Korrontea kontra izan arren,  
arrauna sartu, arrauna atera,  
aurrerantz egiten dute,  
koordinatuta, elkarren parean.

Stand up: zutunik uraren gainean.  
Arraun bakarria eskuetan: *Paddel*.  
Ia-ia zaratarik atera gabe,  
hondoa oinetan, zerua goietan,  
badatoz patxadaz lehorrera.

### Faroen arteko elkarrizketa

Egunerokotasuneko kezketatik ihesi,  
ibai-ertzeko bi faro txikiek egunero ekiten diote elkarrizketari,  
iluntzearekin batera artizarra ikusi orduko, kale egin barik,  
egunsentiko lehen txori-kantuak aditu artean beti.  
Horrenbeste orduz zertaz mintzo ote diren  
jakin nahi izan du inoiz  
ibiltariren batek edo bestek,  
nahiz eta sekula ez igarri.

Gaur zu eta ni gara ibiltariak,  
faroen argiez ohartu garenak.  
Eta argien hizkuntzarik ulertu ez arren,  
zerbait ikasi dugu bederen.

Argi gorritz ihardetsi dio eskuin erriberako faroak  
ezkerrekoak argi berdez egindako galderari,  
eta hala jarraitu dute solasean, elkarrekiko errespetu osoz:  
batak besteari hamalau segundoko tartea uzten dio,  
badute beraz astia,  
arnasa hartzeko ez ezik,  
elkar ulertu eta aurrera egiteko ere.

Eta halako batean guk ere elkarri begiratu diogu,  
gure artekoaz konturatu garenean.

Hitzen premiarik sentitu gabe,  
eskutik elkarri oratu ondoren,  
nolabaiteko telepatiaz bat egin dugu pentsatzean  
benetako maitasuna ez dela inoiz itzaltzen.

### Salbe

Gaur izen bereko zubia dago ibaiak bihurgunea egiten  
duen tokian.

Ez dago garai bateko itsasontzien arrastorik.

Ibaiak atsedean hartzen du orain.

Bapore-ontziak lotzeko bitak ere aspaldi bihurtu ziren  
dekorazio-tresna.

Alabaina, izenak memoriari eusten dio oraindik,  
jakina delako izena duen guztia badela,  
zeharo eraldatuta ageri zaigun pasaia horretan izan arren.

Bada, itsasoak badu ahalmena  
nabigatzen ausartzen den orori dena eman eta kentzeko.  
Horregatik, lehorreratzea berriro jaiotzea bezalakoa da.  
Ondo dakite hori marinelek.

Eta aspaldi, gaur ibaiak bihurgunea egiten duen tokian,  
marinelak berriro jaiotzen ziren.

Arrauna gora, txapela eskura, begiak Begoña aldera,  
esker onez Amatxori begira, Agur egiten zioten. Salbe!



### 3. *ORDUA*

#### **Titaniozko ontzia**

Titaniozko ontziak behin jo zuen hondoa,  
eta ordutik ez da mugitu.  
Erriberan lehorreratuta dirau,  
harro bodegetan gordetzen duen altxorraz.

Agian altxorra zaintzeko egin zituen lagun  
txakur erraldoia eta hanka luzedun armiarma,  
lehenengoa ababorrean, bigarrena istriborrean,  
ernai dirautenak, zelatari, edozer bada ere zur.

#### **Begiralea**

Zutunik, altzairu koskor galanta,  
jaikita ikusten da zubiaren hasieran.  
Begirari deritze.  
Den-dena jagoten duenaren seinale,  
iragana nahiz etorkizuna.  
Aireari berea eman behar ei zaiola  
esaten zuen Txillidak,  
eta hori berori egin zuen beste hainbestetan bezala  
Begirari sortzean.

Oraingoan, altzairu koskorrari  
ez zion horrenbeste materia kendu.  
Zatitxo bat besterik ez, goiko aldearen erdi-erdian,  
lauki perfektua,  
handik den-dena ikus zedin.

Eta ez zitzaion arrazoirik falta  
artista handiari.

Materiak betetzen du halabeharrez aireari dagokion  
espazioa.

Sarritan gehiegi.

Eremu itsuak eta dena sortu ahal dira halakoetan.

Aurrez aurre duguna existituko ez balitz bezala.

Edo txarrago dena, hura zapaldu nahi izateko sentimendua,  
materiaren malgutasunik ezaren irmotasunik bortitzenean.

Eta halaxe ibiliak ziren bizitza osoan

bi artista handiak:

Txillida eta Oteiza.

Bi-biak aireari berea eman nahian,  
materiak lapurtutako espazioa hari itzultzeko asmotan,  
ohartu gabe eurak ere azken finean  
itxuraz behintzat materia besterik ez zirela.

Baina bizitzako azken partida jokatu aurretik

jakin zuten bete-betean onartzen,

euren giza materiaren gainetik

bazela zerbait hitz egiten ziena ozen.

Barru-barruko sentimenduak

iratzarri zien giza materiaren alderik ezkutuenean

tarte-unea irekitzeko beharrizana,

aireak aske korri zezan

materia hark guztiak hainbeste denboraz isolatutako  
giza gorputzetatik zehar.

Bada, besakada batez utzi zuten atzean  
iragan ilun, hila.  
Eta azkenean nagusitu zen bakea,  
etorkizun argi, bizia.

### **Akordeoi-jotzailea**

Erriberako pasealekuan akordeoi-soinuak entzuten dira.  
Gerturatzean aurpegia jarri diogu akordeoi-jotzaileari:  
adineko gizona, Europa Ekialdekoa seguruena,  
aurpegiko zimurak gorabehera alai,  
baditu begi handiak eta bibote zuri lodia,  
kapera baten babesean dago eguzkitan lasai.

Hiruzpalau akorde jotzen ditu soilik,  
hauspoa gutxi zabalduz batera eta bestera,  
baina melodia alaia darabil,  
erraz gogoratzeko modukoa,  
astebetean gutxienez bai.

### **4. ORDUA**

#### **Anguleroak**

Neguko lehenengo euriekin batera  
lokazten dira ibaiko urak,  
iluntasuna ekarriz angulenzat.

Mareak gora egitean,  
bazter-bazterretik gora egiten dute  
eurek ere noraezean.

Iluntzea egunari gailentzen zaionean,  
anguleroak gerturaten dira farola eta bahea hartuta  
korrontea baliatuz angelak harrapatzera.

Farola dingilizka jartzen dute nasa gainean,  
argira erakarri nahian angula koitaduak,  
mutur batetik bestera bahea mugitzen duten bitartean.

Badatoz, badatoz argitasunera  
angula gaixoak itsu-itsuan,  
gainera datorkien engainua ez dakitela.

Konturatu orduko dira bahearen sareetan,  
askatasuna betiko galduta,  
urduri-urduri, bizkor-bizkor, kezka beteta.

Dir-dir egiten dute orain anguleroen eskuetan,  
garden-garden sentitzen baitira, erabat biluzi  
tranpan erori eta gero, beranduegi denean.

### Ripara heldu zen arrain handiarenak

*«Ichaso urac handi,  
eztu ondorik agueri;  
pasaco ninsaquerri andic  
Maiteá icustea gatic».* Diote antzinako bertso batzuek.

Itsaso zabalean batek daki  
noraino heltzen den arrantzaleen ausardia.  
Eta denboran zenbat eta gehiago atzera egin,  
ordu an eta nabariago antzematen dira haien balentriak...

...Mila zortziehun eta laurogeita hamarreko urtean,  
apirilaren hogeian, igande zela,  
atera zen Ondarroako portutik hamahiru laguneko trainerua  
antxoan nahiz sardina harrapatzeko egunsentiaren magalean.

Izango ziren bizpahiru miliatara  
agertu zitzaizenean aldamenean arrain izugarria, arrain  
gaiztoa.

Eta berehala hankakoaren agindua:  
Boga mutilak, ekin arraunketari, luzatu soka eta prestatu  
arpoia.

Saka eta ten,  
ten eta saka,  
tiburoi kastako marrazoaren begiradaren aurrean  
bihotzetik gertu hara arpoikada galanta,  
eta aparra ateraz,  
ziztu bizian,  
arrain gaiztoa hondorantz hasi zen ihesi,  
mendekuan hartu nahian traineru ondarrutarra.

Asko kostata, baina hark egin zuen men azkenean.  
Eta herriko bandan ozta-ozta jarri ziren berriro arraunean  
inguruko traineruekin konpainia eginda.

Behin lehorrera helduta,  
ibili ziren ezin asmatuta  
zer egin hogeita hamabi oineko luzerako arrainarekin,  
irabazirik ahalik handienak nahi zituzten-eta.

Bilboko Klub Nautikora eramatea erabaki zuten aho batez.  
Bai eta bilbotarrek atoi-zereginetarako Algorta baporea  
bidali ere.

Ikusmina nagusitu zen Ripako moilara ailegatzean, zahar  
eta gazteen artean.  
Horregatik, trofeoa bailitzan ikusgai jarri zuten biharamunean,  
Klub Nautikoko biltegi batean.

Egun batzuetara etorri zen Aldundiaren saria:  
garaiko mila pezeta handi arrantzaleentzat!  
Eta arrainaren eskeletoa behin betiko erakusgai jartzeko  
proposamena  
Bilboko Institutuko Natur Historiako harrera-gelan.

Halatan itzuli ziren ondarrutarrak herrira  
arraina zatitu eta hezurak baino ez uzteko asmotan.  
Haragia usteltzen hasita zegoen alabaina,  
eta azaleko koipea baino ez zuten banatu hainbana.

Portu berria, seguruagoa  
egiteko eskaria ere egin zioten Aldundiari,  
baliatuz egun batzuetan izandako ospe eta sona,  
baina ez zuten jaso inolako erantzunik.

Aldunditik berri txarrak heldu zitzaizkien uda ostean,  
Bilboko Institutuak atzera egin zuelako azken orduan.  
Hala bukatu ziren ondarrutarren ametsak,  
eta arrain handiaren abentura,  
herriko eskabetxe-fabrikari lurperatuta.

## 5. ORDUA

### **Bastida eta prietoren arteko zubia**

Ricardo Bastida: Artekaleko arkitekto handia.  
Indalecio Prieto: adopzioz bilbotar politikaria.  
Kristau sutsua lehengoa.

Sozialista agnostikoa bigarrena.  
Bestela esanda, erribera bereko bi muturrak, bi ibai-ertzak.  
Baina biak lagun minak.

Bastida hil zen egunean,  
mila bederatziehun eta berrogeita hamahiruko urriaren  
hamabostean,  
erori zen berak hainbeste maite zuen Zubi Zaharra.

Uholdeen ondorioz erori zen Zubi Zaharra,  
eta ez zuten berriro eraiki zortzi urte igaro arte,  
baina harriz harri, lortu zuten ibaiaren eskuinaldea eta  
ezkerraldea lotzea.

Harrizko zubia ez bezala,  
adiskidetasunaren zubia ez zen inoiz erori,  
desberdintasunak gorabehera, muga guztien gainetik,  
nahiz eta handiak izan jasandako uholde guztiak.

## Unibertsitatea

Unibertsitatea bada  
ibaian islatutako irudia baino zerbait gehiago.  
Bada  
inguruan dituen palmondo eta magnoliak baino zerbait  
gehiago.  
Bada  
liburutegian pilatutako milaka liburu baino zerbait gehiago.  
Bada  
gela eta ordenagailuak baino zerbait gehiago.  
Bada  
azterketak baino zerbait gehiago.  
Unibertsitatea bada

askoz gehiago:  
jakintasunaren etxea da.  
Hala nahi duenarentzat.  
Nahi duenak jakiten duelako.  
Eta jakin ohi duenak gainditzen dituelako bizitzako ikasturteak.

## 6. ORDUA

### Txorien hizkuntza

Goizeko lehenengo orduetan entzuten dira txoriak.  
Batzuk ibai-ertzeko pasealekuko platanondoetako adarretan  
dabiltza,  
adarrik adar, salto brinkoka, *txio-txiu-txi-txiu-txi* txioka  
egunari ongi-etorria eman nahian dabiltzan txantxangorriak.

Harantzago, aparkalekuko palmondoetan pagauso bat dago  
*kruk-kruk, kruk-kruk* egiten, protestan antza  
eguna datorrelako.

Beste batzuk parketik ihesi doaz,  
sumatu dituztelako lehenengo ibiltariak.  
Zozoak dira, *txok-txok, txok-txok-txok* esanez, hegoak  
astinduz,  
galdutako intimitatea berreskuratzen duten bitartean.

Parkean bertan burubeltzak aditzen dira:  
*katatxin-katatxin-katatxin... katatxin-katatxin-katatxin...*  
behin eta berriro temiati,  
txikiak izan arren eurek ere zeresana badutela argiro utziz.

Itzultzaileak gaurkoan arin eta ondo itzuli digu txorien  
hizkuntza.



## Tigrea

Tigre deitzen omen zioten enpresaburu bati,  
eta hark fabrika zabaldu zuenean zer bururatuko eta  
eraikinaren teilatuan tigre erraldoi bat jartzea,  
ibaiari begira-begira, edozein unetan salto egiteko  
aurpegierarekin.

Ez zen gutxiagorako,  
fabrikako mailu-hotza eta makinen zarata monotonoa  
gau eta egunez entzuten nahitaez aspertuta egon behar  
zelako.

Behin fabrika zarratuta,  
etxebizitzak egin ziren eraikin berean,  
eta ethezain izendatu zuten tigrea,  
lantzean behingo ur- eta pintura-bainuen truke.

*Francisco Javier Arrieta Idiaquez*

**BERTSOEN TXOKOA**

**I. HAMABI HERRI**

Oizen altzoan Hamabi harri  
antzinakoen oinarri  
hamaika histori bertan ebatzi  
badira gaur hainbat barri,  
Gerediagan hamabi herri  
ta lau uri  
amillenpetik Anbotoko Mari,  
sei bandera, zortzi dantzari...  
Udalatx, Mugarra ertzetan  
erdian izar bi  
**ha hor Gerediaga,**  
**ha hor Durangerri!**

.....

Untzillatx barreneko  
Tabira zaharrear,  
Andre Marijako elizpe  
Zurrunen magalean  
Euskal Liburu eta kantua,  
Hau ez da lantua!

.....

**Euskal hizkuntzaren Azoka  
Durangon Euskal Azoka.  
Gerediagarrok,Durangon,  
Euskal Azoka!!!!**

.....

Gerra galdurikoen berriketa  
erbestean loratua,  
barne exilioan isilarazia,  
hiriko porlan asfaltora  
basotik jaitsia  
bertan sustrai berritua.

.....

Errautsetatik su berbiztua  
eskola zoko iluneko zigorpetik  
Unibertsitatean trebatua,  
gurdi txirringen negarretik  
Facebooken tekleatua.

.....

**Euskal hizkuntzaren Azoka!  
Ez da eten soka!  
Gerediagarrok,Durangon,  
Euskal Azoka!!!!**

Euskal elean idatziz  
Ibaizabaleko uren igurtziz  
Landakon internet, ingelera...  
Erdera, twiter... geureari eutsiz.

.....

Harri eta Herri,  
Herri bat egarri  
Euskara ta euskaraz,  
Erregela zaharraren doinuan  
Eskuz esku soka-dantzan  
Herri bat geure hizkuntzan.

.....

**Euskal hizkuntzaren Azoka!**  
**Ez da eten soka!**  
**Gerediagarrok,Durangon,**  
**Euskal Azoka!!!!**

Ez da eten soka:  
*Behelaino artean, Oraindik izen gabe,*  
*Etiopia,*  
*Arabak bagare, Apologia,*  
*Abarrak zein Atalak*  
*Anbotopeko Baltza, Anfora*  
*Hautsian Ergelen nonbrea*  
*Zazpi eskalaren kapela kolorgetuan*  
*Kolosala izango da!*

**Euskal hizkuntzaren Azoka!**  
**Ez da eten soka!**  
**Gerediagarrok,Durangon,**  
**Euskal Azoka!!!!**

## II. DURANGERRIA GEREDIAGAKO ZELAIAN

Bolinkobako lainopetik  
Mari Urrikeren orrazian kateaturik  
egunsentiaren biharamunean  
Sarrimendi gaineko  
ilargi betearen argitara  
eskutik helduta  
Soka-dantzan ginen  
Argiñetako larrainean

Patziku itsuaren danboliñean  
Eskuz esku Bitaña-Palazioko etxanderea  
ta Alonso Mella fraidea,  
gona-atorrrak gora!  
puntapijua gorago!  
... eta kriskitin kraskitin  
Larrosa krabeliñ  
Gerediagako zelaian  
Danboliña dabil!

**Oi Durangerri! Geure Durangerri!**  
**Harri eta Herri,**  
**Gerediagan hain zahar**  
**Eta egunerokoan berriz,**  
**Berri,**  
**Geure Durangerri!**

Kurutzea ta antziñakoa  
Ameriketako urre-zillarra,  
Andre Marijako su-garra...  
ta Harzubipeko aparra...

Sotana, gona ta prakadunen habia,  
Fray Juan Zumarraga, Berriotxo,  
Iturriza zein Astarloaren jakitura...  
Matilde Ibaibarriaga kapitainaren  
bekoki iluna  
Belaustegigoitia ta Juleneren luma,  
Joan Yçiarkoaren kaligrafia,  
Arrese-Beitiaren ekarria,  
Sarrionandiaren *ez naiz hemengoen*  
egarria...  
Kerexetak euskal meza liburua  
Zubiaurre aita semeen  
partitura, pintura... lilura ...!  
*Abarrak* eta *Atalak* euskal irribarrea  
ezpainetan ikaraz...

**Oi Durangerri! Geure Durangerri!**  
**Harri eta Herri,**  
**Gerediagan hain zahar**  
**Eta egunerokoan berriz,**  
**Berri,**  
**Geure Durangerri!**

Oinaz ta ganboarrak,  
baltzak eta karlistak,  
erreketeak ta bizkattarrak...  
hogeita hamazazpiko bonbaketa,  
zerutik sua ta eztanda...  
hilketa, suntsiketa...

Sutautsetik zutik, berriz,  
Herri,  
Herri berri,  
Euskaldun,

Euskaldun berri,  
Euskal Herri!

Atzo urrinean lez  
biharko arrasti lurrinean  
eskuz esku  
guztiok bizirik  
Soka-dantza bixi bixian  
izango gaiatzuz

**Oi Durangerri! Geure Durangerri!  
Harri eta Herri,  
Gerediagan hain zahar  
Eta egunerokoan berriz,  
Berri,  
Geure Durangerri!**

### **III. GEREDIAGA DURANGERRIAN**

Argizaiola, Azoka  
Merioaren bidean  
Dantzari eguna  
Durangerrian lanean

**Gerediaga Durangerrian,  
Durangerrian Gerediaga**

Egunsentiz izar bi  
Gerediagan hamahiru herri  
ta harriak hamabi  
danboliñ eta dantzari

zaharrak gazteari:  
izan hadi adi adi!  
Ha hor Anbotoko Mari  
gau ilunean hilargi  
ta begira berari...  
izan daigula gidari!

### **Gerediaga Durangerrian, Durangerrian Gerediaga**

Historia goibela  
bizi izan dogu, batzutan bizkor  
sarri sarri krudela  
herejeak badirela...  
bonbardeo itzela...  
ta Euskeraren kordela  
gure Astarloak bezela  
Joseba eustarri dela  
agertuz bagarela,  
datozenak datozela!

### **Gerediaga Durangerrian, Durangerrian Gerediaga**

Nor garen jakitea  
Durangerriak geroan ere  
ilusioz betea  
honi indarra emotea  
amets hutsa ete da?  
Gerediagaren idea,  
bai ta ere borondatea:  
gure inguru maitean



lana da ondarea ...  
zabalik dogu atea!

**Gerediaga Durangerrian,  
Durangerrian Gerediaga**

*Anttonmari Aldekoa-Otalora Zamalloak  
2013.go irailaren Aitte Kurutzekoz*

**egin zazu lagun bat KARMEL aldizkariaren harpidedun...!**  
(urteko harpidetza: bakarrik 14€).

Izena-deiturak -----  
Kalea ----- Zbkia. ----- Solairua -----  
Herria ----- Tfnoa. ----- Postakoaidea -----  
Herrialdea -----

### **Ordainketa**

Banku edo Aurrezki Kutxa -----

Kontu korrantea/libreta -----

Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu-zenbakia

\* \* \* \* \*

Aldizkariaren helbidea:

KARMEL - Zuzendaritza

Karmengo kalea, 5

48270 Markina (Bizkaia)

(Tel. 946 166 019)

[www.karmelaldizkaria.com/karmel](http://www.karmelaldizkaria.com/karmel)